




EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y POLITICA TERRITORIAL



I.

2015<sup>eko</sup> azaroa  
Dokumentu Exekutiboa

EAEko Lurralde Antolamendurako  
Gidalerroen Berrikuspena

Oinarrizko Dokumentua

Documento Base

Revisión de las Directrices de  
Ordenación Territorial de la CAPV

LAG

DOT





---

# OINARRIZKO DOKUMENTUA

## DOKUMENTU EXEKUTIBOA

EAEKO LURRALDE  
ANTOLAMENDURAKO GIDALERROEN  
BERRIKUSPENA

**2015**<sub>eko</sub>  
AZAROA





<b>1.</b>	<b>LURRALDE-ANTOLAMENDURAKO ESPARRU JURIDIKO ETA POLITIKOA</b>	
	<b>EAEn</b> .....	<b>9</b>
1.1.	LURRALDE-ANTOLAMENDUAREN ESPARRU JURIDIKOA EAEn .....	9
1.2.	INDARREKO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK ETA HORIEN GARAPENA.....	14
1.3.	INGURUNE SOZIOEKONOMIKOA ETA LURRALDE-INGURUNEA .....	26
<b>2.</b>	<b>LURRALDE-EREDUAREN OINARRIAK</b> .....	<b>30</b>
2.1.	LURRALDE ADIMENTSUA .....	31
2.2.	LURRALDE JASANGARRIA .....	33
2.3.	LURRALDE SOZIAL ETA INTEGRATZAILEA .....	36
2.4.	ELKARLOTUTAKO LURRALDEA .....	38
2.5.	LURRALDE PARTE-HARTZAILEA .....	39
<b>3.</b>	<b>LURRALDE-EREDUA (LE)</b> .....	<b>41</b>
<b>4.</b>	<b>ZEHARKAKO ALDERDIAK</b> .....	<b>42</b>
4.1.	GENERO-IKUSPEGIA.....	42
4.2.	Klima-aldaketa.....	44
4.3.	OSASUNA .....	47
4.4.	EUSKARA .....	51
4.5.	LURRALDE-ERLAZIOA.....	55
<b>5.</b>	<b>PAISAIA</b> .....	<b>58</b>
<b>6.</b>	<b>INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA</b> .....	<b>61</b>
6.1.	INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA .....	61
6.2.	AZPIEGITURA BERDEA .....	64
<b>7.</b>	<b>LANDA-INGURUNEA</b> .....	<b>74</b>
<b>8.</b>	<b>HIRIGUNEA</b> .....	<b>78</b>
8.1.	HIRI BIRGAITZEA ETA BERRONERATZEA .....	80
8.2.	LURRALDEAREN JASANGARRITASUNA JARDUERA EKONOMIKOEN ERABILERAN .....	84
8.3.	HIRI HAZKUNDEAREN PERIMETROA .....	87
8.4.	METROPOLIALDEAK ETA ERALDAKETA ARDATZAK .....	89
8.5.	BIZITEGI-KUANTIFIKAZIOA .....	95
8.6.	BIGARREN ETXEBIZITZA ETA BALIABIDE TURISTIKOAK .....	97
8.7.	PLANGINTZEN BATERAGARRITASUNA .....	100
<b>9.</b>	<b>MUGIKORTASUN JASANGARRIA</b> .....	<b>103</b>
9.1.	OINEZKOEN ETA BIZIKLETEN MUGIKORTASUNA .....	104
9.2.	BIDE-MUGIKORTASUNA .....	107
9.3.	TRENBIDE-, PORTU-, ETA AIREPORTU-MUGIKORTASUNA .....	109
9.4.	MUGIKORTASUN KOLEKTIBO MULTIMODALA .....	112
9.5.	EREDU LOGISTIKOA .....	113
<b>10.</b>	<b>URA</b> .....	<b>116</b>
<b>11.</b>	<b>ENERGIA</b> .....	<b>119</b>
<b>12.</b>	<b>GOBERNANTZA: Parte-hartzea, Antolaketa, Adierazleak</b> .....	<b>124</b>
12.1.	Parte-hartzea .....	124
12.2.	Gobernantza .....	126
12.3.	LURRALDE- ETA HIRIGINTZA-ADIERAZLEAK.....	128





## SARRERA

2015eko uztailaren 27an, Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) berrikusteko prozedura hasteko erabakia hartu zuen (gidalerro horiek otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onetsi ziren) eta, orobat, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren esku uztea berrikusketa hori zuzendu eta prestatzeko lana, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 10. artikulua ezarritakoari jarraiki.

Horrez gain, erabaki horren bidez, Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen gidalerroen berrikusketa parte-hartze prozesu zabal baten bidez egitea, egungo gobernu-programarekin eta X. legegintzaldi honetan gidalerro horiek berrikusteari buruz Eusko Legebiltzarrean eman diren ebazpenekin bat.

Aldi berean, LAGak berrikusteko prozesu formala partaidetza-prozesu gisa planteatzeak EAEko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea egoera berrietara egokitzea dakar. Horren emaitza da, hain zuzen ere, aurkezten den “Oinarrizko Dokumentua”. Dokumentu honen helburua da agiri batean jasotzea LAGak berrikusteko prozesuan Eusko Jaurlaritzaren ikuspegia eta proposamenak, abiapuntu izan daitezten parte-hartze prozesua abian jartzeko eta azken emaitza moduan, “Gidalerroen Aurrerapena” dokumentua lortzeko, parte-hartze prozesu egoki baten ondoren.

“Oinarrizko Dokumentua”:

- EZ DA Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak LAGak berrikusteko prozesuaren baitan ezarritako izapide formal bat.
- EZ DA “Gidalerroen Aurrerapena” .
- PROPOSAMEN-AGIRI BAT DA, “Gidalerroen Aurrerapena” onartzeko legezko izapide formala egin aurretik parte-hartze prozesu bat zabaltzeko.
- LAGak berrikusteko prozesuaren kudeaketaren BERRIKUNTZA BAT da.

“Oinarrizko Dokumentua” hiru ataletan egituratuta dago. Lehendabizi, lurralde-ereduaren oinarriak zein izatea proposatzen den adierazten da. Ondoren, proposatutako



lurralde-eredua aurkezten da, baita zein eremuk osatzen duten ere. Eta, azkenik, EAEren lurralde-antolamenduaren gobernantza adierazten da.

Parte-hartzea errazteko, “Oinarrizko Dokumentua” dokumentu exekutiboa eta sintetikoa da, lan-dokumentu zabalago eta garatuago baten emaitza, eta eskuragarria eta irekia izango da. Bi dokumentuak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Sailburuordetzak eta Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzak egin dituzte, Eusko Jaurlaritzako beste sailen lankidetzarekin eta ekarpenekin.

Eusko Jaurlaritzaren 2015eko uztailaren 27ko erabakiak, LAGen parte-hartze bidezko berrikusketa abian jartzeaz gain, bi epe ezartzen dizkio Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari, izapidetzeko hasierako faseari muga batzuk jartzeko. LAGak berrikusteko parte hartzeko ikuspegi horrekin bat etorrira, prozesuaren administrazio-izapidetzea eta Euskal Hiria Kongresua aldi berean egin nahi dira. Euskal Hiria Kongresua lurralde-antolamenduaren arloko topaketa-foro irekia da, eta urtero egiten da, azaroaren amaieran.

“Oinarrizko Dokumentua” aurkeztuta, bete egiten da Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari hura egiteko emandako epea, eta urtebeteko epea dago, 2015eko azarora artekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspenaren aurrerapena aurkezteko, orain abian jartzen den parte hartzeko prozesuaren emaitza moduan.

2015eko azaroaren 23a





# 1. KAPITULUA

## 1. LURRALDE-ANTOLAMENDURAKO ESPARRU JURIDIKO ETA POLITIKOA EAEN

Lurralde-antolamendurako politika 1990ean hasi zen legalki EAEn, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea onartuta. Lege horrek lurraldea antolatzeko tresnak txertatzen ditu gure ordenamendu juridikoan.

Hiru dira aipatutako Legean lurraldea antolatzeko aurreikusten diren tresnak, hau da, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), Lurralde-plan Partzialak (LPP) eta Lurralde-plan Sektorialak (LPS). Hiru horiek elkarrekin lotuta daude eta "lurraldearen plangintzarako bloke" modura izendatzen dena osatzen dute<sup>1</sup>, izan ere, hiruren artean EAEko lurralde-antolamendurako politikaren esparru juridikoa eta oinarriak osatzen dituzte, are gehiago LAGak nahiz LPP eta LPSak arau juridiko baten bidez onartzen direla kontuan hartuta, hau da, Dekretu bidez.

Lehen kapituluan, lehenik eta behin, lurraldea antolatzeko legez ezarritako tresnen esparru juridikoaren laburpena egiten da eta, bigarrenik, indarrean dauden Lurralde Antolamenduaren Gidalerroena eta orain arteko haien garapenaren ingurukoa.

### 1.1. LURRALDE-ANTOLAMENDUAREN ESPARRU JURIDIKOA EAEN

EAEn lurralde-antolamenduari dagokion kokapen juridiko labur bat egite aldera, jarraian, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, Lurralde-plan Partzialak, Lurralde-plan Sektorialak eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea izango ditugu mintzagai.

---

<sup>1</sup> Rafael Mata. EAEko LAGak berrikusteko prozesuaren proposamena, prozesu integral parte-hartzaile batean oinarrituta. 1. txostena, laburpena eta azterketa. 15. orrialdea Zeharkako paisaia



### 1.1.1. Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legea.

Lurralde-antolamendurako politika 1990ean hasi zen legalki EAEn, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea onartuta, hura garatzeko esparru juridikoaren oinarria ezartzen duena.

Hala, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean, lehenik eta behin, eskumeneko administrazio ezberdinetako lurralde mailan eragina duten arloko zehaztapenak, modu koordinatuan, jasotzeko lurralde-antolamendurako tresnak definitzen eta arautzen dira. Eta, bigarrenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea (EAELAB) ezartzen da, Herri Administrazio guztietako ordezkariak osatzen dutena, lurralde-antolamendu nahiz hirigintza arloko kontsulta- eta koordinazio-organo modura eta, era berean, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikako Organo aholku-emailea ezartzen da, Jaurlaritzako sailletako ordezkariak eta herritarrak batzen dituen partaidetza-organo modura.

Hiru dira lurraldea antolatzekeo tresnak. Horietako bat, hain zuzen, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak izenekoa, beste biak, hots, Lurralde-plan Partzialak eta Lurralde-plan Sektorialak, eratzeko oinarria eta erreferentziatzko esparru orokorra da. Modu horretan, “kateko plangintza”<sup>2</sup> bat ematen da, lurralde-antolamendurako politika, “lurraldearen plangintzarako blokearen” korpus modura, arautzeko printzipio gidari gisa.

### 1.1.2. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen I. kapituluko II. tituluan, Euskal Herriko lurralde-antolamendurako tresnei buruzkoan, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak arautzen dira.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek honako hiru funtzio hauek betetzen dituzte:

1. Lurraldea orekatzea bermatzeko interes orokorreko jarduera ekonomiko eta sozialak lurraldean finkatzeko prozesuak orientatu eta arautzeko irizpideak

---

<sup>2</sup> Ibid.



eta arauak eratzea, eta lurralde-eremu aproposetara jarduera ekonomikoa erakartzeko baldintza egokiak sortzea.

2. Herri Administrazio guztien arloko politiketako espazio eta lurraldeen antolamendu nahiz erabilerarako erreferentziazko esparru bat eraikitzea, hirigintza-jarduerarako ere baliagarri izango dena, horien guztien arteko koordinazio eta bateragarritasun egokia bermatzeko xedez.
3. Estatuarekin edo beste autonomia-erkidego batzuekin egiteko baterako ekintzak eskatzen dituzten lurralde-ekintzak aurreikustea.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek honako zehaztapen hauek barneratu beharko dituzte, gutxienez:

1. Lurraldearen gaineko xehetasuneko azterketa, dauden arazoak zehatz-mehatz definituz eta balizko tratamenduak balioetsiz.
2. Hautemandako arazoak ebazteko Herri Administrazioen esku-hartzearen irizpide nagusiak.
3. Babes bereziko eremu edo zonaldeak.
4. Babestu edo areagotu beharreko nekazaritza-ustiapeneko lurzoruak, horien eta etorkizuneko hirigintza-garapenaren arteko proportzio egokia bermatze aldera.
5. Lurralde-plan Partzialen bidez xehetasunetz antolatze eremuak.
6. Azpiegitura eta ekipamendu handiak finkatzeko eremu egokienak.
7. Etxebizitzen zenbaketa, babes ofizialekoak barne.
8. Ekipamendu aldetiko defizitaren ebaluazioa lurraldearen eremuetan.
9. Ondare higiezinak eta ondare historiko nahiz artistikoak eraberritzeko premien inguruko aurreikuspen orokorra.
10. Administrazioen arteko informazio-sistemen ezarpena.
11. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak egokitu eta aldatzearen arrazoiak eta adibideak.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak lotesleak izango dira eta horien eragina zuzena izango da orokorki aplikatzeko arau zehatzak direnean. Aldiz, zeharkako eragina izango



dute, gerora garatzea eskatzen dutenean, hirigintza edo lurraldea antolatzeko tresnak baliatuz. Lotura hori izan daiteke espazioaren antolamendu eta erabilerarako irizpideei buruzkoa; Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin bateraezinak diren irizpideak baztertzeari buruzkoa; alternatibak zehazteari buruzkoa; eta gomendioei buruzkoa, nahiz eta, kasu honetan eskumeneko Administrazioak aukera izango duen haietatik salbuesteko, betiere, modu justifikatuan eta espresuki.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen zehaztapenek, era berean, hirigintza antolatzeko tresnetan eragina izango dute, izan ere, plan orokor eta bereziak nahiz plangintzako arau osagarriak eta subsidiarioak irizpide horien arabera izan beharko dira.

Indarrean diren Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak 1997an onartu ziren Euskal Autonomi Elkartearen Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onartzeko otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez. Dekretu horretako hitzaurrean nabarmentzen denez, beharrezkoak dituen udal-plangintzan zuzenean aplikatzeko zehaztapen lotesle batzuk salbuetsita, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen gainerako zehaztapenak Lurralde-plan Partzialak eta Lurralde-plan Sektorialak idazteko erreferentzia dira.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen bidez lurraldea hamabost eremu funtzionaletan banatzen da eta horien lurralde-antolamendua bakoitzari dagozkion Lurralde-plan Partzialen bidez garatzen da. Eremu funtzionalak homogeneotasun geografikoko irizpideen arabera, bere ingurune geografikoko udalerrien multzoan gune bat edo gehiago egotearen arabera, eta horien arteko bateragarritasunaren arabera hautatzen dira. Modu horretan, eremu funtzionalen arteko artikulazioa eta lurralde osoaren oreka lortze aldera.

Halaber, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan aurreikusten denez, ezinbestekoa da Lurralde-plan Sektorial batzuk kontuan hartzea.

### 1.1.3. Lurralde-plan Partzialak

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen arabera, Lurralde-plan Partzialen bidez garatzen dira Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak eta horietako antolamendu-irizpideak zehazten dira Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan aurreikusitako eremu funtzional bakoitzerako.



Halaber, 4/1990 Legean ezartzen dira Lurralde-plan Partzialetan, gutxienez, barneratu beharreko zehaztapenak:

1. antolamendurako helburuak;
2. azpiegitura handiak finkatzeko espazioak;
3. baterako interesekoak diren ekipamenduen kokapena;
4. irizpide, printzipio eta arau orokorrak, esate baterako, hirigintza-antolamendua;
5. eraberritu, birsortu edo birgaitzeko espazioak;
6. bizitegi-lurzoruaren eta industria-lurzoruaren zenbaketa;
7. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako zehaztapenak garatzeko irizpide, arau eta printzipioak.

Lurralde-plan Partzialak Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek era ditzakete eta, edozein kasutan, Eusko Jaurlaritzaren Dekretuz onartuko dira Behin betiko.

#### **1.1.4. Lurralde-plan Sektorialak.**

Lurraldean eragina duten Plan sektorialekin osatuko dira Lurralde-plan Sektorialak, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legez arautzen direnak.

Lurralde-plan Sektorialak Eusko Jaurlaritzak (oro har, EAEko lurraldeari buruzkoak direnean) eta foru-aldundiek (horiei dagozkien lurralde historikoei buruzkoak direnean) ere onar ditzakete.

Orobat, 4/1990 Legean ezartzen denez, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen aurkakoak diren Lurralde-plan Sektorialeko zehaztapenak baliogabeak izango dira. Horrela, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak lehenesten dira, ondoren Lurralde-plan Partzialak hartuko dira kontuan eta, azkenik, Lurralde-plan Sektorialak.



### **1.1.5. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea**

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean berretsi egiten da lurralde-antolamendua gailentzen dela hirigintza-antolamenduaren aurrean, eta horrela zehazten da 52. artikuluan. Horren ondorioz, gatazkarik izango balitz, lurralde-antolamendurako tresnetan ezarritako zehaztapenak lehenetsiko dira hirigintza arloko antolamendu eta plangintzarako zehaztapenetan ezarritakoaren aurrean, lurralde-antolamendurako legediaren arabera.

## **1.2. INDARREKO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK ETA HORIEN GARAPENA**

Euskal Autonomi Elkarteko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onartzeko otsailaren 11ko 28/1997 Dekretua onartu zenetik, lurraldea antolatzeko tresna ugari onartu dira orain arte eta horiek osatzen dute “lurraldearen plangintzarako blokea”.

Jarraian ibilbide bat egiten da: hasteko, indarreko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aztertzen dira eta Lurralde-plan Partzialetan nahiz Lurralde-plan Sektorialetan nola garatzen diren; ondoren, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko prozedurak (2010ekoak eta 2014koak) aztertzen dira; azkenik, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko egungo prozedura aztertzen da.

### **1.2.1. 1997ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak eta horien LPP eta LPSak**

Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuz onartutako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek EAEko lurralde-estrategia definitzen dute helburu jakin batzuekin:

- Europar garapena gidatzen duten esparruekin integrazio handiagoa lortzea eta penintsularen iparraldean kokapen estrategikoa izatearekin lotutako garapenerako abaguneak aprobeztatzea.
- EAEko hiriburuak sustatzea, beren hirigintza-profil ezberdinak sendotuz eta hiriburuen sistema polizentriko bat artikulatuz garapen- eta berrikuntza-prozesuak zuzentzeko beharrezkoa den indarrarekin.



- Lurralde osoa hirigintza eta zerbitzu aldetik oinarri egokiz hornitzeko gaitasuna izango duen hiri ertainen sare bat sendotzea.
- Berrerekatze-prozesu bat sustatzea, saturazio gehien dauden eremuetatik presio demografiko gutxiagoko zonaldeetara.
- Hirigintzako ekimenetan nahiz ekimen sektorialetan natura babesteko sistemak eta ingurune fisikoa sendotzeko irizpideak ezartzea.
- Azpiegitura-sistemak eta hornidurak udalerriz gaindiko irizpideekin zehaztea, eta proposatutako lurralde-ereduaren egituraketara bideratuak.
- Plan sektorialak eratzeko lurralde-irizpideak ematea eta tarteko maila duten lurralde-planetako ezaugarriak konfiguratzeko.
- Etxebizitzaren parkea handitzeko eta jarduera ekonomikoko lurzorua garatzeko irizpideak ezartzea, lurralde-ereduarekin koherentzia mantenduz.
- Hondatuta edo gainbeheran dauden espazioak eta eremu berezi batzuk (esate baterako, herrigune historikoak eta landa-nukleoak) berritu eta dinamizatzeko prozesuak aktibatzea.

Indarrean diren Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen egitura lau ataletan antolatzen da: Lehenik eta behin, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen lurralde-eredua garatzeko oinarriak identifikatzen dira. Bigarrenik, lurralde-eredua bera zehazten da. Hirugarrenik, ongizatea eta berrikuntza ahalbidetzeko lurralde-ekimenak identifikatzen dira. Eta laugarrenik, eta azkenik, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aplikatzeko gako eta erreferentzia zenbait ematen dira.

Zehazki, lurralde-ereduaren oinarriekin industria tradizionalen oinarritutako eredua gainditzeko eta lehiakortasun ekonomikoarekin, gizarte-ongizatearekin eta garapen jasangarriarekin lotutako irizpideei erantzuteko premiari erantzun nahi zaio, demografia atzera doala eta biztanleria zahartzen ari dela erakusten duen dinamika batean. Lurralde-antolamendua garatzeko oinarri modura, era berean, EAEko Lurralde-eredua zehaztearekin zerikusia duten gai nagusiei buruzko adostasun zabala lortzeko premia adierazten da eta, baita EAEko hiriburuen sistema polinuklearra Behin betiko garapen ekonomikorako gune garrantzitsuenekin lotzeko premia ere, kulturari, ingurumenari eta hirigintzari dagokienez balio handia duten eta ekonomikoki eta demografikoki atzerantz doazen gune txikiak berreskuratzeko estrategia integratuak planteatzeko premiarekin



batera. Halaber, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak garatzeko oinarrizko elementu modura, arloko politiken koordinazioa eta integrazioa eta udal mailako plangintzen koordinazioa ezinbestekoa dela aitortzen da. Azkenik, gure lurraldeak Europako testuinguruan eta, bereziki, Arku Atlantikoan, duen kokapen estrategikoari balioa ematen zaio.

Oinarri horietatik abiatuz, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (1997) lurraldeko hiru geruza gainjarrien inguruan zehazten dute lurralde-eredua: ingurune fisikoa, lurralde-ereduaren oinarri eta euskarri modura, finkapenen sistema eta azpiegiturak. Hala, ingurune fisikoa elementu eta erabilera nagusietarako jarraibide orokor batzuen arabera antolatzen da, eta zazpi erabilera mota eta erabilera-matrize bat aurreikusten dira. Bederatzi eremu babestu eta aisialdiko, eta lurraldera sartzeko guneak proposatzen dira. Bestalde, finkapenetan bizitegi-lurzoruetarako politikak aurreikusten dira. Bertan hazkuntza nagusiko udalerrri zenbait planteatzen dira, eta udalerrri bakoitzerako biztanleko hazkuntzaren kalkulu-sistema bat, Lurralde-plan Partzialetan zehazten diren arte eta, beste alde batetik, jarduera ekonomikoko lurzoru berriak finkatzeko orientazio eta eremuak iradokitzen dira. Bigarren bizitegia eta aisialdiko eremuak antolatzen dira. Beharrezkoak diren azpiegiturei dagokienez, sistemen hierarkia oso bat planteatzen da, hiriburuak, eremu funtzionaletako gune nagusiak, eta gainerako finkapenak konektatuko dituen errepideen, abiadura handiko, ibilbide luzeko eta aldirietako trenen, aireportuen, portuen, telekomunikazioen eta energiaren bidez. Ura eta hondakin solidoak berezko identitateko azpiegitura modura antolatzen dira.

Bestalde, ongizaterako eta berrikuntzarako aurreikusten diren lurralde-ekimenak hiru motakoak dira: hirigintza-berrikuntzarako estrategiak (gune historikoak eta zaharkitutako industria-paisaia hobetzeko zonaldeak birgaitzea barne), kultura-ondarearen antolaketa eta ekipamenduak lurralde mailako ikuspegian.

Azkenik, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aplikatzeko gako eta erreferentziek lurraldearen plangintza garatzeko eremuak zedarritzen dituzte, udal-plangintzen arteko bateragarritasunak eragindako udalerrriak nahiz eremu funtzionalen osaera identifikatuz. Gainera, bizitegi-lurzoruaren eskaintzari dagokion behin-behineko kalkulua egiteko irizpideak ematen dira eta aisialdi-sistema integratuaren eta lurraldera sartzeko guneen osaera zehazten da. Atal horretan, azkenik, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aplikatzeko arauak aipatzen dira.





Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak agente aktibo izan dira, aipatutako aldaketa horietako asko eragin eta ahalbidetu dituztenak, aro industrialetik industria osteko hiri-eskualderako jauzia ematea ahalbidetzeaz gain. Lurralde-eredu jakin bat zehaztu zen jarraibide horien bidez eta eredu hori udal-plangintzako orientazioen bidez ematen da, baina, batez ere, Lurralde-plan Sektorialen bidez, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako zehaztapenak eta estrategiak garatzekoa.

Lurralde-plan Partzialak (LPP) eratzeak ekarri du Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen garapen nagusia. LPPek udalaz gaindiko planen sistema bat osatzen dute, lurraldean Gidalerroetako funtsezko alderdiak zehazten dituztenak xehetasun osoz, esate baterako, ingurune fisikoa babesteko eremuak, bizitegien garapenerako eremu handiak eta jarduera ekonomikoak hartzeko espazioak, azpiegitura eta ekipamenduen sistemak edota hirigintza berritzeko esku-hartzeak. Sarritan, udal-plangintzako proposamenak eta Lurralde-plan Sektorialekoak bateratzearen ondorioz sortu dira tresna horiek.

LPPak abian jartzeak dinamika berri bat ekarri du. Horren ondorioz, udal eta erakunde arduradun guztiak beren lurraldea ikuspegi konplexu eta elkarlotu baten arabera hautematen hasi dira, tokiko mugak gaindituz. Sarritan, baterako estrategiak eskatzen ditu dinamika horrek, etorkizuneko erronka handiei aurre egin ahal izateko. EAEn hirigintza eta lurralde mailako plangintzaren esparru berrian grabitate-zentroa tarteko eskalara mugitu da pixkanaka lurraldeko eremu funtzionaltako Lurralde-plan Partzialen bidez.

LPPen aktibo nagusia, haiek eratu diren modua kontuan izanik, EAEn esparru orokorrean, eremu funtzional bakoitzaren abantaila eta berezitasun partikularretatik abiatuz lurraldea egiaz dinamizatu ahal izatera bideratutako tresna direla da. Horrela, LPPek osagai erregulatzailerik bat baitaratzen dute, lurralde-prozesuen gaineko nolabaiteko kontrol publikoa mantentzea ahalbidetzen duena eta abaguneak eta ongizatea orokorki galtzea eragiten duten ekintza eta joerak ekiditen dituena. Plan horiek, gainera, ezinbesteko erreferentzia-esparru dira udal-plangintzetako ekimenen eta arloko politiken arteko koherentzia egokia lortzeko, eremu funtzionaleko lurraldeari dagokion estrategia orokor batekin.



Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen bidez identifikatutako eremu funtzional bakoitzerako aurreikusitako 15 LPPetatik, hamaika LPP dagoeneko Behin betiko onartu dira<sup>3</sup>, bi Behin betiko onartze daude<sup>4</sup> eta beste bi izapidetze-fasean dira<sup>5</sup>.

Aldi berean, Lurralde-plan Sektorialak (LPS) garatu dira, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako Lurralde-eredua ezartzeko tresna erabakigarriak izan direnak. Horietako bederatzia Behin betiko onartuta daude dagoeneko<sup>6</sup>, beste hiru aurrerakin-fasean daude<sup>7</sup>

<sup>3</sup> Behin betiko onartutako LPPak honako eremu funtzional hauei dagozkie: 1.- Laguardia (Arabar Errioxa) (271/2004 Dekretua, abenduaren 28koa); 2.- Araba Erdia (277/2004 Dekretua, abenduaren 28koa); 3.- Laudio (19/2005 Dekretua, urtarrilaren 25koa); 4.- Eibar (Deba Behea) (86/2005 Dekretua, apirilaren 2koa); 5.- Arrasate-Bergara (Deba Garaia) (87/2005 Dekretua, apirilaren 12koa); 6.- Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) (32/2006 Dekretua, otsailaren 21koa); 7.- Bilbo Metropolitarra (179/2006 Dekretua, irailaren 26koa); 8.- Beasain-Zumarraga (Goierri) (34/2009 Dekretua, irailaren 29koa); 9.- Igorre (239/2010 Dekretua, irailaren 14koa); 10.- Durango (182/2011 Dekretua, uztailaren 26koa); 11.- Balmaseda-Zalla (Enkarterriak) (226/2011 Dekretua, urriaren 26koa).

<sup>4</sup> Gernika-Markina Eremu Funtzionaleko LPPa eta Mungiako Eremu Funtzionalekoa.

<sup>5</sup> Donostiako (Donostialdea - Bidasoa Behea) Eremu Funtzionaleko LPPa, hasiera batean 2015eko martxoan onartua; eta Tolosako (Tolosaldea) Eremu Funtzionaleko LPPa, hasiera batean 2013ko urrian onartua.

<sup>6</sup> LPS hauek: 1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzea (Kanturiko isurialdea) (415/1998 Dekretua, abenduaren 22koa); 2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzea (Mediterraneoko Isurialdea) (455/1999 Dekretua, abenduaren 28koa); 3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarea (41/2001 Dekretua, otsailaren 27koa); 4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Eolikoa (104/2002 Dekretua, maiatzaren 14koa); 5.- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneak (160/2004 Dekretua, uztailaren 27koa); 6.- Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoak eta Merkataritza Ekipamenduak hartzeko Lurzoru Publikoen Sorrera (262/2004 Dekretua, abenduaren 21koa); 7.- Euskal Autonomia Erkidegoko Kostaldea Babestu eta Antolatzea (43/2007 Dekretua, martxoaren 13koa); 8.- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzakoa (177/2014 Dekretua, irailaren 16koa); 9.- Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideena (1999ko ekaina).

<sup>7</sup> Etxebizitzaren Sustapen Publikorako LPSa (2003ko aurrerakina), Kultura Ondarearen LPSa (2001eko aurrerakina) eta Garraioaren Sare Intermodal eta Logistikaren LPSa (2003ko aurrerakina).



eta indarreko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan aurreikusitako zortziren kasuan izapidea ez da oraindik hasi<sup>8</sup>. Foru-aldundiek ere beren LPSak onartu dituzte<sup>9</sup>.

Horrela, honako eremu hauetako LPSak garatu dira:

- Ingurumena: Ibaiertzak eta Errekaertzak antolatzeko LPSa, Kostaldekoa, Hezeguneena eta Nekazaritza eta Basozaintzakoa onartzearen ondorioz, eremu berezi horietan antolamendu espezifikoa planteatu behar izan da. Gainera, lehenengoaren kasuan, uholdeen arazoarekin lotutako irizpide egoki batzuk ezarri behar izan dira.
- Azpiegiturak: EAEko Trenbide Sare berriaren LPSa eta Errepideen inguruko LPS ezberdinak onartzearen ondorioz, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan proposatutakoa xehetasunaz jaso eta areagotu behar izan da, programazio-elementuak eta konpromiso finantzarioak txertatuz, aipatu planak neurri handiago batean garatzea bermatzen dutenak. Bestalde, Energia Eolikoaren LPSak energia berriztagarrien interes sozioekonomikoaren eta mendietako gailurren babesaren arteko oreka dakar.
- Lurzorua: Jarduera Ekonomikoak eta Merkataritza Ekipamenduak hartzeko Lurzoru Publikoak Sortzeko LPSa, zalantzarik gabe, dimentsioari eta hiri barneko merkataritzaren eta aldirietako merkataritzaren arteko orekari dagokienez aurrerapausoa izan da, baina ondoriorik gabe geratu da partzialki eta Auzitegi Gorenaren azken epaiak aintzat hartuz berrikusi egin beharko<sup>10</sup>

---

<sup>8</sup> LPS hauek: 1.- Euskadiko Baliabide Turistikoen Antolamendua; 2.- Euskadiko Aireportu Sistema; 3.- Kirol Portuak eta Instalazio Nautiko eta Aisialdikoak; 4.- Garraioaren Antolamendua eta Gasaren Banaketa; 5.- Ekipamenduen Antolamendua; 6.- Energia Programak; 7.- Harrobiak egin daitezkeen Eremuak; 8.- Hondakin solido inerteak eta inertizatuak Behin betiko baztertzeko Sistemen Antolamendua

<sup>9</sup> Gipuzkoako Hiru Hondakinen Azpiegiturarako LPSa (24/2009 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa) eta Gipuzkoako Bidegorrien LPSa (2/2013 Foru Araua). Halaber, lurralde izaerako zenbait plan onartu dira, esate baterako, Arabako Errepideen Plan Integrala (30/1998 Foru Araua) eta Bizkaiko Errepideen Plana (8/1999 Foru Araua)

<sup>10</sup> 3687/2013 zenbakidun eta 3408/2014 zenbakidun kasazio-errekurtsoak, biak 2015eko irailaren 3koak.



da. Izan ere, epai horien arabera, indargabetu egiten dira irizpide ekonomikoen ondorioz mugak ezartzen dituzten LPSaren zehaztapenak.

LPP eta LPSak dira Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin lotura zuzenena duten elementuak eta lurralde mailan eragin handienekoak. Dena den, ez dira izan Gidalerroek ezarritako ildoaren barnean lurraldea eraldatzea eragin duten bakarrak.

Hala, Ingurune Fisikoan Naturagune Babestuen sistema garatu da ia osorik. Sistema horretan, gaur egun, eremu eta kategoria ugari barneratzen dira (Parke Naturalak, Biotopo Babestuak, Zuhaitz Bereziak, KBE edo Hegaztientzako BBE Natura Sarea). Gainera, natura eta ingurumena babesteari dagokionez legedi zabala garatu da, eta orotariko esku-hartze zehatzak ere bai, esate baterako, basoko espezieak berreskuratzeko planak, baso-programak, ingurumenaren kudeaketarako programak, etab.

Azkenik, gogorarazi behar da lurraldea antolatzeko tresnak udal mailako hirigintza-plangintzetan islatu eta txertatu behar direla, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean nahiz Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean xedatzen den moduan. Ildo horretatik, eta aipatutako legeekin bat etorritz, Lurralde Antolamendurako Batzordeak lurraldea antolatzeko tresnak udal mailako hirigintza plangintzan txertatzeko eginahalean koordinazio eta ikuskapen lan garrantzitsua betetzen du.

### **1.2.2. 2010eko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko prozedura**

2006an, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berraztertzeke barne-prozesu bat abiatu zen eta; 2010eko urrian<sup>11</sup>, Jaurlaritzako Kontseiluak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko, ez modu funtsezkoan, prozedura abiatzea erabaki zuen. Horren ondorioz, 2012ko otsailean “Euskal Hiria Net, lurralde-estrategia berria. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzea berrazterketaren ondorioz” izeneko proposamena aurkeztu zen. Aldaketak ez nabarmentzat jo ziren proposamenak

---

<sup>11</sup> Jaurlaritzako Kontseiluaren urriaren 26ko Akordioa, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko prozedura abiatu eta hura ez nabarmen modura emateari buruzkoa



indarreko lurralde-eredua aldatzea ez baitzuen eragiten eta hura baliozkotzat ematen baitu.

Euskal Hiria Net izenekoan jasotako proposamenaren arabera, gure lurraldea lurralde bikaintasunezko, lehiakor eta aurreratua da, indarreko lurralde-eredua oinarritzat hartuz ingurune fisikoan eragiten zuena hainbat arlotan, esate baterako, espazio babestuen eta korridore ekologikoen babesean, eraldaketa-ardatzen finkapenerako sisteman, berrikuntza-lurralde berezietan, berrikuntza-nodoetan eta herrigune txikietako sisteman. Halaber, beste hainbat arlo garatzen ziren, esate baterako, paisaia, klima-aldaketa, energia-efizientzia, mugikortasun jasangarria eta hiriaren berrantolaketa eta bizitegi-kuantifikazioan.

Orobat, Euskal Hiria Net proposamenean gure lurralde-ereduaren (Euskal Hiria Plus) eragin-eremua herri eta lurralde mugakideetara irekitzeko premia adierazten zen, aurreikusitako lehiakortasun- eta berrikuntza-mailak lortzeko beharrezkoa den masa kritikoa izate aldera. Hori guztiori, jakina, lankidetzaz-esparru egokiak ezarrita.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak, modu ez funtsezkoan, aldatzeko prozedurak aurrera jarraitu zuen, jendaurreko entzunaldi eta erakusketarako izapideak burutu ziren eta 287 arrazoibide jaso ziren, ikertu eta aztertu egin zirenak.

X. Legedia hasita eta Jaurlaritzaren programa berria onartuta, Eusko Jaurlaritzak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak modu ez funtsezkoan aldatzeaz harago, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesu sakon bat abiatzea erabaki zuen. Gainera, ikuspegi integral parte-hartzaile bat eman nahi izan zion prozesuaren hastapenetik amaierara arte. Noski, Eusko Legebiltzarra ere zentzu berean mintzatu zen 2013ko otsailean, 10/2013 legez besteko proposamena onartuta, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen aldaketa bertan behera uztekoa.

Hala, eta prozedurazko gaiak aintzat hartuz, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesua formalki abiatu aurretik, zera egin behar zen: aurretik zegoen prozeduraren izapidea (ez nabarmena) gauzatu. Aldatzeko, ez modu funtsezkoan, prozeduran barneratzen ziren gai guztiak berrikusteko prozesu berri batera eramane eta bertan txerta zitezkeen, izan ere, eta logikoki, abiatzear zen berrikusteko prozesua ordura arte baitaratutako ezagutza eta esperientzia uneoro kontuan izango zuen prozesu modura planteatzen zen eta, bereziki, izapidetuta zegoen baina Behin betiko onartuta ez



zegoen Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko, ez modu funtsezkoan, prozeduran eskuratutako emaitzak kontuan izanez.

Haatik, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko, modu ez funtsezkoan, prozedurako gaiak LAG horiek berrikusteko prozesu berrira eramateari zegokionez, bazen tratamendu berezia eskatzen zuen gai bat: bizitegi-kuantifikazioa.

Indarrean ziren Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako eta LPPetako bizitegi-kuantifikaziorako irizpideak, lehenbailehen, jasangarritasun-printzipioetara eta lurraldearen erabilera arrazionalerako printzipioetara egokitzeko premia argia ikusi zen. Inguruabar sozioekonomikoak nabarmenki aldatu ziren, eraikuntzaren krisia eta higiezinaren sektorearen boom-a gertatu ziren, LPPetako ereduaren osagaietako zenbait aurreikuspen dagoeneko haiek sortu zireneko testuinguruan aplikatu zirela ikusi zen, edo testuingurua aldatu egin zela eta, horrez gain, aurrez kontuan hartu ez ziren gaiak kontuan hartu behar zirela erabaki zen, esate baterako, etxebizitza hutsaren fenomenoak edo hiri-birgaitzea eta -birsortzea sustatzea.

Horrenbestez, lurraldea antolatzeko ikuspegitik ezinbestekoa zen inguruabar berrietara egokitutako bizitegi-kuantifikaziorako formula bat erabiltzea, baliogarri izango dena lurralde-antolaketari dagokionez koordinazio-organo nagusiar horren berri emateko: EAELAB. Gainera, adierazi behar da udalerriek kalkulatu beharreko etxebizitza berrien kopuruari buruzko datua funtsezkoa dela udal-plangintzak berrikusi eta haiek Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitzeari dagokionez. EAELAB Batzordea, horien izapidean, horri buruz mintzatu behar da eta, horretarako, ezinbestekoa da bere eginkizuna behar bezala burutu ahal izateko tresnak izatea.

Horren ondorioz, 2014ko martxoan Jaurlaritzako Kontseiluak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko izapidearekin jarraitzea adostu zuen, soilik bizitegi-kuantifikazioari dagokiona jasoz eta, 2010eko urrian abiatutako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko, modu ez funtsezkoan, prozesuko gainerako gai guztiak berrikusteko prozesu berantiarago baterako utziz.



### **1.2.3. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aldatzeko prozedura, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez (2014)**

2014ko ekainean, Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailburuordearen aginduz, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen aldaketaren hasierako onarpena eman zen bizitegi-kuantifikazioari zegokionez.

Aldaketa horren helburua udalerrietan etxebizitza berriak sortzeko aurreikuspenak kalkulatzeko formula egokitzea da, herriak azken urteetan izandako bilakaera, familia-tamainaren aldaketa nahiz etxebizitzetan bizi diren pertsona kopurua eta udalerrietan hutsik edo okupatu gabe dauden etxebizitza kopuruan kontuan hartuz, edo aldaera horien arabera. Horrenbestez, lurraldearen gainean erantzukizun- edo jasangarritasun-irizpide zenbait hartu behar dira kontuan, behar dena baino lurzoru gehiago okupatu edo sortu beharrik gabe.

Proposamen horren ondorioz, bi mozio aurkeztu ziren 2015ean: Arabako Batzar Nagusiaren 18/2015 Mozioa eta Eusko Legebiltzarraren 7/2015 Mozioa. Batzar Nagusiaren Mozioan Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio aldaketak bertan behera uzteko, foru eta udal mailako eskumenak urratzen dituelakoan. Gainera, lurralde-antolamendurako legedian egiten den edozein aldaketan Arabako tokiko erakundeek partaidetza erreal, zuzen eta eraginkorra izan dezatela eskatzen zaio. Bestalde, Eusko Legebiltzarraren Mozioan Eusko Jaurlaritzari eskatzen zio Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesua formalki hasteko eta, era berean, erakunde arteko lankidetzeta eta erakundeen arteko eskumenen banaketa errespetatzea dadila bermatzeko lankidetzeta-tresnak ezartzeko, eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesuan bizitegiak zenbatzeko proposamena txertatzeko.

Bi mozio horietako edukia errespetatuz, 2015eko uztailean Eusko Jaurlaritzak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesua abiarazi zuen formalki, bizitegi-kuantifikazioaren gaineko berrikuspena ere barneratzen duena. Prozesu parte-hartzailea da eta erakundeen arteko lankidetzeta sendotzen duena, eskumenen banaketa erabat errespetatzeko esparru batekin.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen aldaketa horrekin onartutako bizitegi-kuantifikazioa, aldi berean, aztertu egingo da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak



berrikusteko prozesuaren barnean, eta dagozkion aldaketa edo egokitzapenak egin ahal izango dira.

#### **1.2.4. 2015eko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozedura abiatzea**

2015eko uztailaren 27an, Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozedura abiatzea adostu zuen, otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuz onartuak<sup>12</sup>.

Akordio horretako hitzaurrean Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesua abiaraztea justifikatzeko arrazoiak jasotzen dira, laburbilduz, bi helburu nagusi dituztenak: alde batetik, lurralde-antolamendurako politika eta tresnak berrikusi nahi dira eta, beste alde batetik, lurraldearen politikaren kudeaketan eta garapenean partaidetzarako kultura eta gobernu ona sustatu nahi dira.

Horrela, ia hogeit hamar urte igaro dira gidalerro horiek onetsi zirenetik, eta, horregatik, egokitzat jotzen da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) berrikusteko prozesua hastea. Prozesu horrek orain arte pilatutako esperientziari esker ikasitakoa kapitalizatuko du, lurralde-antolamenduaren erronka berriei erantzungo die eta, batez ere, prozesu zabal parte-hartzailea oinarri hartuta eraikiko da, erakunde publiko ezberdinen aldetik, eragile sozioekonomiko eta politikoen aldetik eta herritarren aldetik.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko hasiko den prozesua prozesu berria, eta, batez ere, berritzailea izango da. Izan ere, parte hartzeko plan baten inguruan garatuko da. Plan hori diseinatu eta zehaztu eta lehen aldiz abian jarri beharko da. Horrela, lurralde-antolamenduaren arloan lan egiteko beste modu bat ekarriko du; azken finean, gobernantza berri bat.

Aldi berean, berrikusteko prozesu formala partaidetzarako prozesu gisa planteatzeak Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea gobernantzaren inguruko ikuspegi berrietara egokitzea dakar. Horren adibidea da "Oinarrizko Dokumentu" hau, hots, "Gidalerroen Aurrerapena" izeneko agiriaren aurreko dokumentua. Izan ere, oinarrizko dokumentu hori ez dago aurreikusita

<sup>12</sup> 157. zenbakidun EHAA, 2015eko abuztuaren 20koa.





aipatutako legearen nahitaezko izapideen artean, baina beharrezkotzat jotzen da Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak aurkeztea, partaidetzarako prozesuaren hasiera bezala. Horren ondorioz, geroago, "Gidalerroen Aurrerapena" izeneko agiria egingo da, eta agiri hori maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

Jaurlaritzako Kontseiluaren Akordioaren hitzaurrean, sustatu nahi den partaidetza-ikuspegi horrekin bat etorrira, berrikusteko prozesuaren administrazio-izapidetzea eta Euskal Hiria Kongresua aldi berean egiteari buruzko plana aipatzen da. Euskal Hiria Kongresua lurralde-antolamenduaren arloko topaketa-foro irekia da, eta urtero egiten da, azaroaren amaieran. Horregatik, administrazio-izapidetzea sustatzeko kronograma modura ere funtzionatuko duen lan-programa bat proposatzen da. Horrela, proposatzen da "Oinarrizko Dokumentua" 2015eko azaroko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztea; "Gidalerroen Aurrerapena" 2016ko azaroko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztea; Gidalerroen hasierako onespena 2017ko azaroko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztea, eta, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak 2018ko azaroko Euskal Hirian onartzea. Aurretiazko plangintza horrek aldaketak izan ahalko ditu, eta, beraz, behin-behineko plangintza da. Hala ere, komenigarritzat jotzen da gutxi gorabeherako kronograma bat izatea eta kronograma hori etengabe eguneratzea. Horri esker, ahal den neurrian behintzat, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-estrategian garrantzi handia duen gai hori ez da denboran luzatuko.

Parte hartzeari dagokionez, logikoa denez, entzunaldiaren eta informazio publikoaren nahitaezko izapideez gain, parte hartzeko kanal irekiak ezarriko dira, eta partaidetzarako prozesu edo plan bat diseinatuko da. Partaidetzarako prozesu edo plan horrek berrikusteko prozesuari lagunduko dio Oinarrizko Dokumentua aurkezten denetik (2015eko azarotik), eta hori ere etengabe eguneratuko da, aldatuz doan egoerara egokitzeko.

Lurraldearen ikuspegitik, besteak beste, gai hauen inguruko gogoeta-prozesu bat irekitzea, proposatzen da: zeharkako gaiak, hala nola, klima-aldaketa, generoa, osasuna, euskara; ingurune fisikoarekin lotutako gaiak, hala nola, erabilera-matrizea eta antolamendua eguneratzea, naturagune babestuak eta Natura 2000 Sarea, azpiegitura berdeak, ekosistemetako zerbitzuak eta paisaia; mugikortasuna, ura eta energia; landa-ingurunea; eta hiri-ingurunea, honako hauetan arreta berezia jarrita: hiri-berroneratzea,



metropoli-eremuak eta eraldaketa-ardatzak, hiri-hazkundearen perimetroa, bizitegi-kuantifikazioa eta lurralde-jasangarritasuna jarduera ekonomikoen lurzoruan.

Azkenik, 2015eko uztailaren 27ko Jaurlaritzako Kontseiluaren Akordioan xedatzen denez, alde batetik, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozedura abiatzen da eta, beste alde batetik, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari dei egiten zaio 2015eko azaroan Oinarrizko Dokumentua, Gidalerroen Aurrerapenaren aurretiko dokumentua, aurkezteko, eta baita partaidetzarako plana ere, berrikusteko prozesuan txertatuko dena. Halaber, Akordio horretan xedatzen denez, 2016ko azaroan Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteari buruzko Aurrerapena eratzea aurreikusten da, nahiz eta epe hori luzatu egin daitekeen hala justifikatzen duten arrazoiak daudenean.

Oinarrizko Dokumentu honekin, beraz, 2015eko azaroan Eusko Jaurlaritzaren lurralde-estrategia berrikusteko proposamena, partaidetzarako prozesuaren hasiera modura, jasotzen duen dokumentua aurkezteko deiarri erantzuten zaio, hasiera batean, 2016ko azaroan aurkeztuko den Aurrerapena landuz joateko xedez.

### **1.3. INGURUNE SOZIOEKONOMIKOA ETA LURRALDE-INGURUNEA**

EAEk 2.172.877 biztanle ditu, eta 7.229,26 km<sup>2</sup>-ko azalera; beraz, biztanle-dentsitatea 300,33 hab/km<sup>2</sup> da; hau da, Europar Batasunean metropoli ez diren eskualdeen artean dentsitate handienetakoa duen eskualdeetako bat da.

UDALPLAN Eusko Jaurlaritzaren lurralde-plangintza eta hirigintzako informazio grafikoko datu-biltegiko 2015. urteko datuek erakusten dutenez, azalera urbanizatua 488,87 km<sup>2</sup>-koa da (guztizko azaleraren % 6,76) eta hiri-populazioaren dentsitatea 4.444,66 biz./km<sup>2</sup>-koa. Horrenbestez, EAEk hiri-eremu zentralagoen berezko dentsitatea du.

Jatorrian, eginkizunak ongi zehaztuta eta hierarkizatuta eta egitura ekonomikoei oso lotuta zeuden hiri zentralak, industria-guneak eta landa-nukleoak ziren espazio-antolamenduaren oinarria, baina gauzak aldatu eta eskualde-hirirantz bilakatu da, eta zentroen mugak eta eginkizunak eta jarduerak gero eta lurralde zabalagoetara eta askotarikoetara zabaldu dira.



EAE benetako eskualde-hiri bihurtzen ari da, gero eta nabarmenago. Demografian eta geografian antzeko neurria duten beste eskualde-hiri batzuen pareko eskala du, nahiz eta haietako askok biztanleria-dentsitate txikiagoa duten, hiri-eredu estentsiboagoak baitituzte eta, horrenbestez, biztanleria- eta ekonomia-masa kritikoa ez baitute eraginkortasun berdinez baliatzen. Honako hiru lurralde-ezaugarri hauek dira, seguruenik, eskualde-hiriaren ezaugarri bereizgarrienak:

- Hiri-hedapena eta lurraldea okupatzeko modu berriak: landa-espazioak eta metropoli-dinamikak bateragarri egitea, ohiko zentrozen bilakaera, zentralitate berriak sortzea eta abar.
- Garraio-sistema berriak, lehen elkarrengandik urrun zeuden espazioak antolatzen eta gero eta mugikortasun-eskaera handiagoak bideratzen dituztenak.
- Gero eta maila altuagoa duten eta gero eta sofistikuagoak eta konplexuagoak diren zerbitzu- eta ekipamendu-sistema bat izatea.

**BPGd-aren bilakaera (2000-2015) EAEn-  
Eurogunea 19n**



Iturria EUSTAT

**Biztanleria aktiboaren ehunekoaren aldaketa,  
sektoreen arabera, EAEn (1985-2015)**



Iturria EUSTAT

Azken bi hamarkadetako eraldaketa handiak hiri-iraultza sakona ekarri du. Industria-garaitik zetozen eremu hondatuak berritzeko prozesuak izan dira aldaketa horien ikurra eta oinarria. Aldaketa garrantzitsuena ekoizpen-egituran gertatu da: industria nagusi zuen ekonomia batetik zerbitzuetarantz dibertsifikatzeko bidea hartu da, beste ekonomia batzuen antzeko bilakaera-ereduari jarraiki. Baina urte horietan guztietan, eta industrian oinarritutako ekonomiatik zerbitzuetan oinarritutako ekonomiara egindako urratsa aintzat hartu behar bada ere, pentsamendu ekonomikoak kontuan izan du EAEk krisiari beste eskualde batzuek baino hobeto erantzun diela, industria-sektorearen garrantzia



dela-eta, hain zuzen. Eta horrek agerian utzi du zein garrantzitsua den sektore hori ekonomiarako, eta kontuan hartu ez ezik sustatu ere egin behar da. Beste alde batetik, lehen sektoreko jarduerak pisua galdu dute EAEko ekonomian, eta arrantza, basogintza, nekazaritza eta abeltzaintza EA Eren BPGd-aren % 2 inguru dira.

Tertziarizazio-prozesua askoz handiagoa izan da Bizkaian eta Gipuzkoan, iraganean industriak garrantzia handia izan zuten lurraldeetan, hain zuzen; eta Araban izan du, azken urteetan, hazkunde handiena industriak, Vitoria-Gasteizen inguruan eta Arabako Lautadan, A-1 errepideak osatutako ardatzean zegoen lurzoru-erreserben ondorioz.

2011. urteko biztanleria-eroldako datuen arabera, EAEk 2.172.877 biztanle ditu (1.115.422 emakume eta 1.057.455 gizon), eta horietatik, 148.877 atzeritarrak dira. Biztanleriari dagokionez, industria-krisiko urteetan zehar, zenbait faktore ekonomiko eta sozialek bat egin zuten, eta biztanleriak behera egin zuen pixka bat, eta beherakada txikia izan arren izan zuen, bai, garrantzia. Duela gutxira arte ez da aldatu beherazko joera hori, eta orain biztanleria berreskuratzen ari da erkidegoa eta ia laurogeiko hamarkadaren hasierako gehieneko kopuruak lortu dira berriro ere. Dena den, datozen urteetarako populazioak behera egingo duela aurreikusten da, nahiz eta beherakada hori ez den oso homoginoa izango. Araban biztanleriak hazten jarraituko du etengabe, eta Gipuzkoan eta Bizkaian behera egingo duela aurreikusten da.

Metropoli-zentroek izandako eraldatze-prozesuek, industria-eremu handiek garrantzia galtzeak, eta bizimodu berriek eta gero eta mugikortasun handiagoak dakartzaten eskaera berriek urbanizazio-prozesuak zabaltzea eragin dute. Aldiri berriak zabaldu egin dira eta lehen baino konplexuagoak dira: metropoli-espazioen mugak gainditu eta eragin zuzenetik kanpo zeuden eremu funtzionalak eta orain artean landa-eremuak izan direnak ere hartu ditu. Eta prozesu horrek azaltzen du zergatik handitu den azalera urbanizatua biztanleria askorik aldatu ez bada ere.

UDALPLANeko hirigintza-plangintzako 2015eko datuek adierazten dutenez, lurzoru urbanizagarriaren aurreikuspena % 19,75ekoa da hiri-lurzoruarekiko eta lurzoru urbanizagarriarekiko, eta hori ez da hirigintza-hedapen handia. Orobat, udal-plangintzak etxebizitzaren kopuruan aurreikusitako igoera % 20,38koa da, egungo etxebizitza-kopuruarekiko (53,23 etxebizitza 100 biztanleko).


Etxebizitza-dentsitateari dagokionez, EAEko bizitegi-lurzoru hiritarrea dauden etxebizitzaren dentsitatea 59,62koa da hektareako. Balio horretan, ordea, alde handiak



daude lurralde historikoen artean eta Kantauri-isurialdearen eta isurialde mediterraneoaren artean, batez ere: Bizkaian, dentsitatea 73,78 etxebizitzakoa da hektareako; Gipuzkoan, 67,93koa; eta Araban (lurzoru eskuragarri gehien duen lurraldea), 31,17 etxebizitzakoa hektareako.


Lurzoruaren artifizialtzeari dagokionez, bizitegi-lurzoruak, ekonomia-jardueretarakoak eta sistema orokorrek 48.887 hektarea hartzen dituzte guztira, eta, lehen esan bezala, EAEko azaleraren % 6,76 dira. 2005. urtetik 2014. urtera, 306 hektarea lurzoru artifizialtzen dira, batez beste, urtean, eta beheranzko joera nabarmena du azken urteetan.

#### EAEko biztanleriaren bilakaera (1950-2020)



Iturria EUSTAT eta INE

#### EAEko biztanleriaren piramidea (1976-2014)



Iturria EUSTAT



## 2. KAPITULUA

### 2. LURRALDE-EREDUAREN OINARRIAK

1997an onartu ziren eta indarrean diren Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen lurralde-ereduko oinarrietan funtsezko erronka edo gaiak aipatzen dira, esate baterako, lehiakortasun ekonomikoko, gizarte-ongizateko eta garapen jasangarriko irizpide batzuei erantzuteko premia, demografia atzera doala eta biztanleria zahartzen ari dela erakusten duen dinamika batean; industria tradizionalen oinarritako eredia gainditzeko premia; EAEko Lurralde-eredua zehaztearekin zerikusia duten gai nagusiei buruzko adostasun zabala eskuratzeko premia; EAEko hiriburuen sistema polinuklearra garapen ekonomikoko gune garrantzitsuenekin Behin betiko lotzeko premia eta kulturari, ingurumenari eta hirigintzari dagokienez balio handia duten eta ekonomikoki eta demografikoki atzerantz doazen gune txikiak berreskuratzeko estrategia integratuak planteatzeko premia; arloko politika eta udal-plangintzak koordinatzeko premia; eta gure lurraldeak Europako testuinguruan eta, bereziki, Arku Atlantikoan, duen kokapen estrategikoari balioa emateko premia.

Lurralde-ereduko oinarri horien euskarri diren helburu edo erronkak oraindik mantendu egiten direla kontuan hartuta, gure ustez, berrikusitako lurralde-ereduaren oinarrietan mantendu eta txertatu egin behar dira, baina eguneratuta eta egokituz jotzen diren oinarri berriei osatuta.

1997an Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak finkatu zirenetik gaurdaino aldaketa garrantzitsuak izan dira, berrikusitako lurralde-ereduaren oinarrietan islatu behar direnak ezinbestean.

Halaber, 1997an geroztik, orduan berritzaileak ziren gai batzuk sendotuz joan dira eta orain nolabaiteko heldutasuna dutela esan daiteke, besteak beste, klima-aldaketa, paisaia, azpiegitura berdea, ekosistemetako zerbitzuen balioespen eta ebaluaketa, genero-ikuspegia, osasuna, euskara, immigrazioa, partaidetza eta gobernu ona.

Baina, era berean, Europan eta Mundu mailan krisi ekonomiko, finantzario eta fiskal sakona gertatu da eta gure lurraldean ere eragin nabaria izan du. Horren ondorioz, higiezinaren sektorearen boom-aren eta eraikuntzaren krisiak utzitako aztarnak gainditu egin behar ditugu eta gastu publikoaren kontrolari dagokion inpaktu ekonomikoaren ondorioak ere gainditu egin behar ditugu. Testuinguru horretan, berrikuntza egoera



horiek utzitako eragin negatiboei aurre egiteko pieza erabakigarria da oraindik eta baita gure bizi-kalitatea eta gure ingurunekoa hobetzeko ere.

Inguruabar berri horretan, aurretiaz zegoen lurralde-ereduaren oinarriekin batera, ondorio modura, adierazi behar dugu berrikuntza gure gizartearen ardatz eragile nagusi izango duen lurralde bat nahi dugula, bere kudeaketa jasangarria mantendu eta indartuz jarraituko duena, pertsona guztiak integratuko dituen eta gizarte-batasun sendoa izango duena, bere ingurune hurbilarekin nahiz urrunarekin harremanetan izango den eta barnean ere harremanak egituratuko dituen lurralde aktiboa, eta lurralde horretan partaidetza eta gobernu ona politika publikoetan sendotutako elementuak izatea nahi dugu.

Horren guztiaren ondorioz, berrikusitako lurralde-ereduaren oinarriak jarraian adierazten diren 5 ikuspegieng inguruan antolatzea proposatzen dugu, gure lurraldea, finean, halakoa izan dadin:

1. Lurralde adimentsua.
2. Lurralde jasangarria.
3. Lurralde sozial eta integratzailea.
4. Elkarloturiko lurraldea.
5. Lurralde parte-hartzailea.

## **2.1. LURRALDE ADIMENTSUA**

EAEko gizarteak eta bere ekonomiak euskarri industrial historiko eta sendoa dute eta horren isla dira bertako hiri-paisaia industrial eta gure lurraldean zehar finkatutako enpresak. Industria- eta enpresa-eremu hori merkatu ezberdinetako, finantza arlokoak barne, nazioarteko lehiakortasunaren baitan dago.

2007ko finantza-krisiak eta higiezin merkatuko krisiak EAEko gizartean eta ekonomian ere izan dute eragina, higiezin boom-aren hedatze-uhinak ere harrapatu zuelarik.

Mundu mailako krisi horiekin batera, erakundeen gastu publikoaren krisia ere gertatu da gure ingurunean, izan ere, moneta bakarreko kide izatetik eratorritako finantza-



egonkortasunerako irizpideak bete behar izan dituzte eta, horrek azken urteotan gastu publikoari eusteko joera ekarri du eta, horrek bere ondorioak izan ditu zerbitzuetako eta inbertsioetako merkatu hurbilen dinamizazioan, batez ere, azpiegiturei dagokienez.

Horren guztiaren ondorioz, ezinbestekoa da proiektu berritzaileak bilatu eta abian jartzea enpresa-lehiakortasuna hobetzeko xedez, modu horretan, gure ingurunea dinamizatu eta kalitatezko enplegua sortzeko eta, hori guztiori, ingurumena errespetatzeko jardute-irizpide batzuen arabera.

Gainera, badugu lurralde artifizial nahikoa, hobeto erabil eta aprobeatza daitezkeen espazioak dituen. Horrela, dagoeneko urbanizatuta dagoen espazioari errendimendu handiagoa atera ahal zaio, behar baino lurzoru gehiago artifizial bilakatu gabe. Hiri-ingurune kaltetuenak, bizitegi eraakoak nahiz industrialak, mugikortasun jasangarrian, eraikin eta enpresen energia-efizientzian, espazio publikoa balioesteko jarreran, azpiegitura berdean eta herritarren partaidetzan oinarritutako ikuspegi berritzaileekin birsortuz gure eguneroko paisaia eta gure bizi-kalitatea hobetu egingo dira. Lanketa horiek gauzatu ahal izateko irtenbide teknologiko eta sozial garrantzitsuak finkatu beharko dira, gure ingurunea dinamizatze aldera. Finean, lurralde adimentsu batez ari gara.

Lurraldeak kokapen berezia dauka berrikuntzarako beharrezkoak diren faktoreen artean. Berrikuntzarako gainerako faktoreekin (hezkuntza, gizarte-balioak, kapitala eta enpresa- eta administrazio-ingurunea) alderatuta, lurraldearena da deslokalizatu ezin den faktore bakarra. Lurraldea abagune bat da identitateari, berezitasunari eta lehiakortasunari dagokienez. Ekonomia berriari dagozkion aktibo ukigarriak ditu eta bertan funtsezkoak dira berrikuntzarako faktore erabakigarriak, esate baterako, talentua eta enpresa berritzaileak erakarri eta finkatzeko gaitasuna eta beste espazio batzuekin modu aberasgarrian uztartzeko gaitasuna. Horrez gain, ezinbestekoa da garraio-sistema eraginkorrak egotea, kalitatezko paisaia eta naturaguneak izatea eta bizitza- eta jarduera-eremu erakargarri eta jasangarriak izatea.

EAE lurralde adimentsua izan dadin berrikuntza-faktoreak sustatu behar dira eta gure lurraldea eta gure jarduera ekonomikoak egoera berrietara egoki daitezela ahalbidetu behar da. Ekosistema naturalak bezalaxe, lurralde adimentsuak aldaketak eta berrikuntzak gertatzen diren espazioak dira, kasu honetan, gizartea egoera aldakorretara egokitzea ahalbidetzen dutenak.





Ekosistema sozial horietako ahalmen berritzailea baldintzatzen duten ezaugarriak ekosistema naturaleko ezaugarrien antzekoak dira oso. Aniztasuna, konplexutasuna, dentsitatea, kanpora begirako jarrera, konektibitatea eta elkarreraginerako aukerak dira espazio sortzaile eta berritzaileak bultzatzeko funtseko faktoreak. Talentua eta sormena baitaritzen duten ezagutza- eta ikerketa-espazioak prozesu berritzaileen oinarrian dauden eta elkarrekiko lotura nabarmenean diren “espezie erabakigarriek” beregana ditzakete.

Hiri eta lurralde dinamiko eta erakargarriak dira ekosistema berritzaileetako elementu nagusiak, berrikuntza-guneen kokapenerako arauak aldatzen ari diren aro batean. Berrikuntzarako espazio dira, era berean, herrigune historikoak, kostaldeko espazioak, landa- eta nekazaritza-paisaiak edota arkitektura bereziko hiri-eremuak. Hots, identitate eta kalitatezko espazioak, lana, bizitegia eta aisialdia uztartzeko ahalmena dutenak errealitate erakargarri, iradokigarri eta bizi-kalitate handiko baten atal bereizezin modura.

Euskal Autonomia Erkidegoa lurralde adimentsu bilaka dadin, ezaugarri horiek ahalik eta garrantzi handiena izateko baldintzak sortu behar dira. Xedea EAEko lurraldea anitzagoa izan dadila lortzea (bertako ekonomiari dagokionez, biztanleriaren ezaugarriei dagokienez, espazio eta inguruneen eskaintzari dagokionez, etab.), bere elementu ugarien arteko eta kanpoko elementuen arteko elkarreraginak areagotzea, espazio trinko, artikulatu eta konplexuagoak lortzea eta ezagutza, sormen eta berrikuntzarako elementu eta nodo berriak garatzea da.

## 2.2. LURRALDE JASANGARRIA

1997an Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak onartu zirenetik, jasangarritasunak garapen nabaria izan du ingurumenaren ikuspegitik eta funtsezko balioa hartu du. Klima-aldaketa, paisaia, azpiegitura berdea edo ekosistemek ingurune sozial eta naturalari eskaintzen dizkioten zerbitzuen ebaluazioa eta balioespena garrantzi handiko alderdiak dira, berrikusitako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan islatu egin behar direnak.

Jasangarritasun kontzeptuaren esentzia zera da, etorkizuneko belaunaldiei beren beharrianak asetzeko gaitasuna mugatzen ez duen ingurune bat helaraztea. Horrek baliabide naturalak modu arduratsuan kudeatzea eskatzen du, ez berriztagarriak agortzea



ekidinez eta, era berean, baliabide berriztagarriak beren berritze-erritmoa baino erritmo apalagoan aprobetxatzea eskatzen du, horiek mugagabeki manten daitezela bermatzeko.

Halaber, baliabideen kalitatea ziurtatzea eskatzen du, horien erabilera-ahalmena mantentzeko moduan. Horrez gain, ezinbestekoa da hondakin eta kutsatzaileen sorrera mugatzea, ekosistema naturalek horiek asimilatzen duten ahalmenaren gainetik sor ez daitezen.

Jasangarritasuna esparru zabalago batean txertatutako helburu modura planteatuta soilik da bideragarri. Esparru horrek gizarte-batasuna ez ezik, ongizatea nahiz etorkizuneko erronkei aurre egiteko beharrezkoak diren baliabideen erabilgarritasuna ere ziurtatzeko adina aberastasun sortzea eskatzen du. Jasangarritasuna ez da ingurumen arloko politiken emaitza soilik, nahiz eta horiek jasangarritasun arloan duten garrantzia handia izan. Lurralde-eredua eta lurralde nahiz hirigintza mailako ekimenak elementu erabakigarriak dira garapen jasangarria lortzeko, izan ere, horien ekarpenak funtsezkoak dira arloko politikak egiaz bideragarri eta eraginkorrak izan daitezzen.

Epe luzean garapen egiaz jasangarria lortzeko gaintitu beharreko erronka nagusiak lurralde eta hirigintza arloko gaiekin daude hertsiki lotuta. Lurzorua artifizial bilakatzea elementu kritikoa da gure lurraldean. EAEko azaleraren % 6,83a azpiegitura “grisak” eta zonalde urbanizatuek osatzen dute dagoeneko. Hazkuntza azpimarratzearen aurrean, hiri-finkapenen trinkotasuna berreskuratzea proposatzen da, eraikitako zonaldeen hedatze-prozesuak mugatzea eta eraikitako gunek berritu eta berrerabiltzeko ekimenak etorkizuneko ekimenen ardatz bihurtzea.

Ikuspegi hau funtsezkoa da jasangarritasunerako; izan ere, landaretzarako euskarri diren lurzoruak hondatzea ekiditen du, baliabide estrategikoen kudeaketa hobetzea ahalbidetzen du (hondakin eta urarena kasu), joan-etorri motorizatuen beharrezana murrizten du, eta garraio kolektiboko sistemen erabilera lehenesten du. Hiri-forma edo erabilera jakin batzuen kokapena, besteak beste, funtsezkoak dira garraio kolektibo ibilgailu pribatuaren gainean nagusitzeko eta errepide berrien beharra murrizteko.

Lurraldearen jasangarritasun orokorrerako funtsezkoak diren eta aldaketa sakonak izan dituzten nekazaritza-espazioak, naturaguneen arteko elkarlotura eta lurraldean egiten diren esku-hartzeetan paisaia ikuspegia txertatzea ezinbesteko ekimenak dira biodibertsitatea berreskuratzeke eta oinarritzko baliabideak erabilgarri egon daitezela



bermatzeko funtsezkoak diren ziklo naturalak lehengoratzeko, arriskuei aurea hartzeko eta lurraldearen erakargarritasuna eta herritarren bizi-kalitatea sustatzeko.

Garraio, energia, naturagune, gizarte-kohesio, hondakin-kudeaketa edota ur-horniduraren politikak egiaz efizienteak eta bideragarriak dira soilik alde aurretik adostutako eta jasangarritasunaren helburuak lortzera bideratutako lurralde- eta hiri-eredu baten ondorio badira. Jasangarritasunarekin lotutako alderdiak indartzea da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenaren oinarrizko helburuetako bat.

Finean eta laburbilduz, jasangarritasunaren inguruko eztabaidak honako ezaugarri hauek dituen lurralde baten alde lan egitera garamatza:

- Finkapen-sistema trinkoago eta konpaktuago bat.
- Kanpora begirako lotura hobek eta barnean ere elkarlotura gehiago.
- Oreka, aniztasun eta elkarlotura gehiago, Sarean egituratutako Hiri-Eskualde Polizentrikoa konfiguratzuz.
- Biodibertsitate aberatsagoa eta hobeto zaindua, eta paisaia erakargarriagoak.
- Garraio kolektiboaren sistemak ahalik eta gehien erabiltzera bideratutako hiri-espazioak.
- Berrikuntza eta birziklapenaren aldeko jarrera hazkuntzaren aurreko alternatiba modura.
- Energiari dagokionez efizienteagoa, kutsatzaile eta berotegi-efektuko gas gutxiago sortuz.

Lurraldearen jasangarritasuna EAEko lurraldearen abantaila lehiakorretan oinarritzen da eta bat dator gaur egun dagoeneko Europako herrialde guztiok partekatzen ditugun lurralde mailako helburuekin: polizentrismoa, identitatea eta finkapen ezberdinen arteko bateragarritasuna.

Polizentrismoak gune bakoitzari indarra ematen dio haren ahalmenetan oinarrituta, eta aukera gehiago ahalbidetzen ditu; izan ere, eratzen duen egitura konplexuago, anitzago, berritzaileago eta jasangarriagoa da, elementu bakoitza bakarka hartuta baino. Sarean egituratutako lurralde polizentrikoak sinergiak sortzen ditu, eta lurraldeko elementuen aniztasun eta bateragarritasunean oinarritzen da.



Sareko egiturarekin batera, lurralde-elementuen kalitatea da etorkizunera begira beste faktore erabakigarri bat. Jasangarritasunerako eta bizi-kalitaterako baldintzak erakusten dituzten paisaia naturalek (basoetakoeak, nekazaritzakoeak edo kostaldekoek) eta hiri-paisaiek ingurune aldetiko aniztasuna osatzen dute, ezinbestekoa dena gure lurraldea erakargarria izan dadin.

Hiri-garapenerako teknologia berriak, eraikuntza jasangarria, garraiatzeko modu berriak, bioklimatismoa eta energia berriztagarriak, bioteknologia eta ingurumenaren kalitatea, domotika eta telekomunikaziok eta beste zenbait alderdi gure lurraldearen eraikuntzan gero eta gehiago txertatu beharreko alderdiak dira, izan ere, horien ekarpena funtsezkoa da lurraldearen kalitateari eta erakargarritasunari so.

### **2.3. LURRALDE SOZIAL ETA INTEGRATZAILEA**

Indarreko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak finkatu zirenetik badira zenbait alderdi, 1997an berretsitako lurralde-ereduan zuzenean edo zeharka aipatzen baziren ere, gaur egun tratamendu espezifikoak eta arreta berezia eskatzen dutenak eta, gainera, horiek guztiek eragina dute lurralde sozial orekatu baten oinarrian.

Besteak beste, genero-ikuspegiarekin, ingurune osasuntsuekin, euskararen erabilera eta presentzia aintzatestearekin, hondatuen dauden zonaldeetan arreta berezia eskaintzen duen hiri-birsorkuntzarekin, hiri-espazioetarako irisgarritasun unibertsalarekin, etxebizitzaren gizarte-politikak lurraldean islatzearekin, jarraibide demografiko berriekin (esate baterako, jaiotze-tasa baxua, herritarren zahartzea eta immigrazioa), txirotasun energetikoarekin eta zahartze aktibo eta autonomoarekin lotutako alderdiei buruz ari gara.

Politika publiko ezberdinetan alderdi horiek kontuan izateko lege nahiz programetan agindutakoei erantzuna emateaz gain, beharrezkotzat jotzen da gai horien inguruko azterketa bat egitea berrikusitako lurralde-ereduan eta haren ondorengo garapenean (lurralde-antolamenduari eta hiri-antolamenduari dagozkien tresnen bidez) nola jasotzen diren ikuste aldera.

Genero-ikuspegiari dagokionez, beharrezkotzat jotzen da alderdi hori aztertzea eta ikuspegi hori lurralde-antolamenduan txertatzeko eta hura hiri-antolamenduan garatzeko modua aztertzea. Lan-bizitza eta bizitza pertsonala uztartzea eta segurtasun pertsonala pertsona guztiei eragiten dieten alderdiak dira, baina emakumeengan bereziki eragiten



dute. Lurralde-antolamendutik abiatuz genero-ikuspegiaren gaiari heltzea planteatzen da hainbat eremutan, esate baterako, mugikortasunean, irisgarritasunean, ekipamenduetan, baita merkataritzan, etxebizitzaren arloan eta landa- nahiz hiri-ingurunean ere, edota partaidetzan.

Osasunari dagokionez, gaixotasunen arrisku-faktoreak babestu, prebenitu eta murriztera bideratutako osasun publikoko joera tradizionala osasun publiko positibora birbideratu da. Azken horrek osasunerako aktiboetan jartzen du arreta, esate baterako, pertsonak eta populazioek osasuna eta ongizatea mantentzeko duten gaitasuna areagotzen duten faktore edo baliabideetan. Horrek berekin dakar aukera osasuntsuak erraz eta eskuragarriak izatea eragiten duten ingurune eta abaguneak garatzea. Ikuspegi positibo hori da 2003ko ekainaren 11ko Ingurumenaren eta Osasunaren Europako Estrategiak nahiz Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko Osasun Planak (2013-2020) sustatzen dutena. Bi estrategien abiapuntua da osasun-arazoak ezin direla modu isolatuan jorratu eta, ildo horretatik, lurralde-antolamenduak eta hiri-garapenak eginkizun garrantzitsua betetzen dute, izan ere, eragin nabaria dute hiri-plangintzan, garraioan eta komunikazioetan, etxebizitza arloan, ingurumenean, aisialdirako guneetan, gizarte-zerbitzuetan edota kulturarekin, kirolarekin, lanarekin, langabeziarekin eta tokiko ekonomiarekin lotutako zerbitzuetan. Horiek denak faktore zinez erabakigarriak dira komunitateetako osasunean eta gizarte-desberdintasunetan. Halaber, aipagarria da gizarte-ekitatea osasunaren ikerketan nahitaez gaineratzeko faktore modura, izan ere, ikusi denez, adibide batera, eremu hondatuenean bertan bizi diren pertsonen osasunaren kalitatean ere eragina dute. Horren ondorioz, berrikusatiko lurralde-ereduan ingurune osasuntsuen ikuspegia ere barneratzea proposatzen da.

Gure lurraldeko hizkuntza ofizialkideen hizkuntza-ikuspegiari dagokionez, lurraldearen ikuspegitik euskararen presentziaren gaineko tratamendua alderdi berritzailea da, ikergai bilakatzen ari dena. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesu horretan egokitzen jotzen da lurralde antolamenduak eta hiri-antolamenduak euskararen erabilerarekin eta lurralde mailako proposamenak egiteko aukerarekin zer-nolako harremana duen aztertzea.

Hiri-birsorkuntza eta zaharkitutako edo erabileraz kanpoko espazio eraikien berreskurapena, irisgarritasun unibertsala, herritarren zahartzea, immigrazioa eta norberaren etxean garatzen den zahartze aktibo eta autonomia indarreko LAGetan lurralde-oinarrietan agertzen diren alderdiak dira. Haatik, denbora honetan zehar,



alderdi horiek garrantzia berezia hartu dute eta, era berean, arreta berezia eskaini behar zaie esku-hartze horiek duten efektu biderkatzailea dela medio, hirien alferrikako hedapena eta lurzorua beharrik gabe artifizial bilakatzeko joera mugatzen saiatzen den testuinguru batean. Horrenbestez, helburua berrikusitako lurralde-ereduan hainbat neurri sustatzea da, lurralde-eredu horretan bertan indarreko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan ongizaterako eta berrikuntzako lurralde-ekimen modura lantzen dena txertatzeko.

Halaber, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legea indarrean sartu ostean etxebizitzaren gizarte-politikak lurraldean izango duen isla ere aztergai izan beharko da eta horren inguruko proposamenak luzatu beharko dira Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesuaren barnean.

## 2.4. ELKARLOTUTAKO LURRALDEA

EAE Europako espazio handien testuinguruan kokatzea da indarreko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako lurralde-ereduaren oinarrietako bat eta oinarri hori mantendu egiten da oraindik.

Haatik, oinarri hori birmoldatzea proposatzen da, maila guztietan elkarlotuta dagoen lurralde baten premiei erantzungo dien oinarri bilakaturik.

Ildo horretatik, Europako belaunburu izaten jarraitzeko premia azpimarratzen da, bereziki Europako ardatz atlantikoan, Europaz gaindiko sareen barnean funtsezko pieza izaten jarraituz, besteak beste, garraio eta logistikari dagokienez, tren-autopistei dagokienez eta Europako Natura 2000 Sare ekologikoari nahiz korridore ekologikoei dagokienez.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen gainean egindako berrazterketaren ondorioz planteatutakoaren ildotik, lurralde-ikuspegi batetik EAEko mugakide diren lurraldeekin ere harremanak izateko aukera jasotzen da, hala Euskadi-Akitania Euroeskualdearen esparruan, nola Nafarroarekin eta Pirinioetako dimentsioarekin, nahiz Kantabria, Errioxa edo Gaztela Leonekin finka daitezkeen lankidetzaren esparruetan.

Halaber, barnetik elkarlotutako lurraldea izan behar du Euskadik, egiazko sare polinuklearra eratuz. Horrela, besteak beste, Lurralde Historiko ezberdinen artean eta horietako eskualdeen artean mugikortasuna ahalbidetuz eta, gainera, garraio publikoaren



mugikortasun jasangarria sustatuz hainbat neurriekin, esate baterako, lurralde osorako txartel bakarra ezartzekoarekin. Barneko elkarlotura hori funtsezko elementua da ereduaren barnean eta gure lurralde zehaztua antolatzeko lurralde-estrategiaren barnean ere. Estrategia horrek erakundeen arteko lankidetzeta eta errespetua nahiz gizartearen partaidetzeta izan behar ditu oinarritzat derrigorrez.

## 2.5. LURRALDE PARTE-HARTZAILEA

Berrikusitako lurralde-ereduaren oinarrietako bat edo lurralde-estrategia berriak erantzun beharreko erronketako bat Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesua hasieratik amaierara arte prozesu parte-hartzaile modura gauzatzearena da.

Partaidetzaren erronka hori ez litzateke mugatu behar berrikusteko prozesu horretara; aitzitik, lurralde-estrategiaren garapenean partaidetzeta modu egonkorrean ahalbidetzeko beharrezkoak diren mekanismoak bilatu beharko lirateke.

Euskadiko Demokraziaren eta Herritarren Partaidetzarako Liburu Zurian (2014ko abendua) agerian geratzen da gobernu onari begira prozesu parte-hartzaileak kontuan hartzeak duen esanahia eta garrantzi handia. Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesu hori zehazterakoan partaidetzeta azpimarratu du prozesu horretako funtsezko pieza modura. Horrela, prozesua ikaskuntza-esperientzia bat izan dadin, partaidetzeta modu eraginkorrean txertatzeko, gure politika publikoak eratu eta garatzeko pieza irmo modura. Horrenbestez, entzunaldi- eta informazio-izapide publikoak gainditu eta partaidetzeta gure kudeaketa publikoan txertatu nahi da.

Horrek, era berean, gogoeta bat eskatzen du, azken hogeitun urteotan baitaratu dugun esperientziari buruzkoa, bai lurralde-antolamendurako politikaren lorpenei dagokienez eta baita hobekuntza-eremuei dagokienez ere.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin lurralde-antolamenduari begira funtsezkoak diren alderdiak sendotu dira, esate baterako, udalerriz gaindiko eremu funtzionaletan lanketa abiatzearena, hain zuzen, udalerriz gaindiko ikuspegi horren ondorioz, lurralde-ikuspegi integrala ematen duena; edo lurzoru urbanizaezinetan soilik jasangarritasun-irizpideen araberrako erabilerak baimentzea bermatzearena; landa-nukleoetan



etxebizitzaren eraikuntza mugatzearena, izaera naturala lehenetsiz eta ingurune horiek urbanizatzea ekidinez; ibai edo erreka gunetan uholde arriskua dagoen inguruetan, hezeguneetan, kostaldean edo nekazaritzako edo basozaintzako erabilera duten lurzoru urbanizaezinetan lurzoruaren erabilera erregulatzearena; jarduera ekonomikoak eta merkataritza-ekipamenduak ezartzera bideratutako eremuak mugatzearena; eta udalerrietan etxebizitzari nahi lurraldeari begira, arrazionaltasun- eta jasangarritasun-irizpideak aplikatuta, dauden premiak kalkulatzeko formula bat izateko premiarena.

Baina, jakina, badira hobetu daitezkeen alderdiak ere eta, edozein kasutan, prozesu parte-hartzaile hau baliagarri izan beharko litzateke aztertu beharreko hainbat gai plazaratzeko. Horrela, besteak beste, lurralde-antolamendurako tresnen izapideak denboran gehiegi ez luzatzearen premia planteatzen da, edo LPPen arteko koherentzia izatearena, edo lurralde-antolamendurako tresnetan jasotzen diren zehaztapenen izaera argitzearena, udal-plangintzetan modu errazean txerta daitezen.

Finean, lurralde-antolamendurako politika gobernu onean oinarritutako politika izatea lortu nahi da.





## 3. KAPITULUA

### 3. LURRALDE-EREDUA (LE)

Lurralde zuhurra, jasangarria, integratua eta kohesionatua, elkarrekin lotua eta parte-hartzailea lortzea da azken asmoa, eta horri erantzun nahi dio proposatzen den lurralde-ereduak.

Honako zortzi multzo hauetan dago banatuta proposatzen den lurralde-eredua:

- Zeharkako Gaiak;
- Paisaia (berez, zeharkako gaia da, baina bereizita lantzea iritzi da egokiena);
- Ingurune Fisikoa eta Azpiegitura Berdea;
- Landa-ingurunea;
- Hiri-ingurunea;
- Mugikortasun Jasangarria;
- Ura;
- Energia.

Goian adierazitako multzoak modu homogeen lantzen dira dokumentuan, eta multzo bakoitzean lantzen den alderdi bakoitza hiru ataletan egituratuta dago. Lehendabizi, egoera zein den azaltzen da. Ondoren, gai horri dagokionez zer helburu lortu nahi diren adierazten da. Eta, azkenik, helburu horiek lortzeko lurralde-orientabide batzuk planteatzen dira.

Oinarrizko Dokumentua oso luzea denez, ereduan proposatutako multzo bakoitza kapitulu batean lantzea iritzi da egokiena, dokumentuaren egitura argiagoa eta arinagoa izan dadin. Horregatik, jarraian lantzen diren lurralde-ereduko multzoei buruzko kapituluaren epigrafe guztiak lurralde-ereduaren LE erreferentziarekin hasten dira.



## 4. KAPITULUA

### 4. ZEHARKAKO ALDERDIAK

Honako zeharkako alderdi hauek aztertu dira eta sartuko dira berrikusitako lurralde-ereduan:

1. Genero-ikuspegia.
2. Klima-aldaketa.
3. Osasun publikoa.
4. Euskara.
5. Lurralde-integrazioa.

#### 4.1. GENERO-IKUSPEGIA

##### ***Egoera***

Genero-ikuspegia hirigintzan sartzea ez da oraingo kontua eta azken urteotan hiriak eta auzoak aztertzeko ikuspegia aberastu du. Horrenbestez, aitortutako bidea eginda dauka hirigintzan.

Horrez gain, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak honako hau ezartzen du 18.1. artikuluan: “arauak garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, EAEko herri-agintariek modu aktiboan izango dute kontuan emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua”. Eta LAGen berrikusketa-prozedurari artikulua horretan ezarritakoa betetzea dagokio.

Leku batzuetan, oraindik orain zaila da egunerokotasuneko jarduerak egitea, zenbait alderdiren eraginez; esaterako: mugikortasun urria, ekipamendurik eza eta segurtasun txikia. Horrexegatik, emakumeek diziplina honetan gero eta parte-hartze handiagoa izateak hiriak eta lurraldeak diseinu gero eta funtzionalagoa eta seguruagoa izaten laguntzen du.



Lurralde-antolamenduan genero-ikuspegia sartzeak biztanleen bizi-kalitatean eragin beharko luke.

Helburuak

Genero-ikuspegia lurralde-eragina duten arloetan sartzea da kontua. Besteak beste, honako hauetan:

- Garraioa eta mugikortasuna.
- Ekipamenduak eta irisgarritasuna.
- Merkataritzaguneak eta merkataritza-ekipamenduak.
- Etxebizitza
- Landa-ingurunea.
- Segurtasuna.
- Partaidetza.
- Udal-plangintzatik heldu beharreko beste zenbait gai.

### ***Lurralde-orientabideak***

Honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira, lurralde-antolamenduan eta haren hirigintza-garapenean genero-ikuspegia sartzeko:

1. Auzoek erabilera bat baino gehiago izatea, bizitza sortzen duten ekipamenduak eta dendak edukitzea, segurtasun handiagoa eta bizi-kalitate hobea izatea, topaguneak egotea eta espazio publikoak eta pribatuak bereizita ez egotea, pertsona guztien autonomia sustatzea, eta egoera ahulenean dauden taldeen beharrei erantzutea: hori guztia lortzeko neurriak sustatu behar dira.
2. Hiri hurbila sustatu nahi da, distantzia handirik ez duena, garraio publiko ona duena, auzoetan oinez iristeko distantziara dauden ekipamenduak eta dendak izango dituen, eta ekipamendu handietara garraio publikoa erabiliz iristeko aukera emango duena. Ildo horretatik, periferiei hirigunearekiko mendeko ez izateko adinako azpiegiturak eman beharko litzaizkieke, zentraltasun-ezaugarriak izan ditzaten.



3. Lurraldearen plangintza irizpide multidimentsionalez egin behar da, lurralde berean erabilera bat baino gehiago izateko, lekuetara eta instalazioetara iristea erraza izateko moduan, baina, aldi berean, bidaiatzeko beharra murriztuz. Horren haritik, hiriguneetan espazio interstizialen erabilera eta zaharrituta dauden espazioen birmoldaketa sustatu beharko litzateke erabilera mistoetarako, hiriguneetan bizitegi-erabilerarekin bateragarriak diren ekonomia-jarduerak eta zuzkidurak jarri ahal izan daitezten.
4. Lurzoru berrien sailkapena eta kalifikazioa egitean, zaintzea garraio publikoa erabiliz, oinez edo bizikletaz iristeko aukera dagoela, irisgarritasun modu hori bermatzeko.
5. Hirietako espazio publikoetan segurtasuna funtsezko eskubide moduan txertatzea. Hirigintza-plangintza berrikusteko prozesuetan, herritarren parte-hartzearen laguntzaz, “gune arriskutsuak” hautemango dira, plangintza berriak konponbidea eman diezaien.

## 4.2. KLIMA-ALDAKETA

### **Egoera**

Gizakiak eragindako klima-aldaketa, atmosferara berotegi-efektuko gasak isurtzeak eragindakoa, erronka handia da, lurralde-arloan ere eragina duena, atmosfera berotzen baitu, itsasoaren maila igotzea baitakar eta zenbait fenomenoren eragina handiagoa izatea eragingo baitu (uholdeak eta lehorreak, esate baterako).

Klima-aldaketaren arazoa giltzarria da jasangarritasunaren arloan eta funtsezko honako hiru alderditan eragiten du: ingurumenean, gizartean eta ekonomian. Berotegi-efektuko gas-isurketa globalen eta biosferak gas horiek xurgatzeko ahalmenaren arteko oreka da jasangarritasunaren gakoa; hots, gaur egungo beharrak etorkizuneko belaunaldikoen beharrak asetzeko ahalmena kolokan jarri gabe asetzeko modua. Horrenbestez, esan daiteke klima-aldaketa gizateriaren erronka handienetako bat dela, eta modu koordinatuan egin behar dio aurre horri.

Klima-aldaketaren aurkako 2050erako EAEko Estrategiak, 2015eko ekainean onartutakoak, bi helburu nagusi ditu: batetik, EAEn berotegi-efektuko gasen isurketak % 40 murriztea, gutxienez, 2030an, eta % 80, 2050. urtean, 2005eko isurketetikiko, eta 2050. urtean energia berriztagarrien kontsumoa azken kontsumoaren % 40 izatea; eta,



bestetik, EAEk klima-aldaketaren aurrean erresilientzia izan dezan bermatzea, eta helburu hori, jakina, kontuan izan behar da lurralde-ereduaren berrikuspenean.

Klima-aldaketa kontu globala da, eta, beraz, nazioarteko erakunde bat arduratzen da arlo horretan erabakiak hartzeaz eta jarduteko irizpideak ezartzeaz: Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa (United Nations Framework Convention on Climate Change-UNFCC ingelesez). Nazioarteko esparru horretan, oso aintzat hartu da eskualdeek eta hiriek egiten duten ekarpena, eta horren adierazle, 2015eko abenduan, berebiziko protagonismoa izango dute lurralde-maila horiek UNFCCk Parisen egingo duen gailurrean. Bada garrantzi horren beste adierazle bat ere: Eusko Jaurlaritzak bat egin du Under 2 MoU and the compact of States and Regions ekimenarekin, eta autonomia-erkidegoko udalerri askok, Compact of Mayors ekimenarekin. Bi ekimen horiek mundu-mailakoak dira, eta tokiko agintariak eta eskualdeetako agintariak berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten eta klima-aldaketaren eraginak arintzen egiten duten lanaren balioa kontuan hartu eta nabarmendu nahi dute. Besteak beste, haien datuak eta konpromisoak UNFCCen NAZCA datu-basera igortzen dituzte.

Hiriei dagokienez, lurralde-sistemaren funtsezko elementua direnez, energia, elikadura eta ura eskatzen duten guneak eta emisioak eta beroa sortzen dituzten espazioak baitira, ez da nahikoa ikuspegi sektoriala, ekoizpena sustatu eta azpiegiturak hornitzea helburu duena, batez ere. Aitzitik, hiri-plangintzak, bere tresnen bidez bete egiten ditu adierazitako betebeharrak, eta badu ahalmena erantzun egokiak koordinatzeko epe labur, ertain eta luzera. Eta, horrenbestez, hiriak gero eta efizienteagoak izango dira eta biztanleen kalteberatasuna txikituko da.

Gero eta kezka handiagoa sortzen dute hiriek klima-aldaketarekiko dituzten eginkizunek, emisioak murriztearen, karbono-kredituen transakzioen eta tokiko eta eskualdeko inpaktuei egokitzeko moduaren gainean. Funtsezkoa da aldaketak aurreikusi eta horiek kontuan hartuta planifikatzea azpiegiturak, ekoizpena, etxebizitza, nekazaritza eta baliabide berriztagarriak, besteak beste.

Klima-aldaketak ondorio asko eta askotarikoak izan ditzake hiri-ingurunean, haren kokapenaren arabera. Dena den, probabilitate handiena dutenak izaki, honako hiru ondorio hauek funtsezkoak dira biztanleen segurtasunean zuzenean eragiten baitute: a) bero-uhartea efektuaren eraginpean egotea; b) Itsasoaren mailaren igoeraren eta olatuen



aldaketaren eraginpean egotea; eta c) uholdeen eraginpean egotea, uraldi handiak direla eta.

Azpimarratu behar da, gainera, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ezartzen duela udal-ordenantzetan jasoko direla energia-efizientziari, isurpen kutsatzaileak murrizteari, arkitektura bioklimatikoari, eraikinen altuerari, isolamendu termikoari edo aireztapen-baldintzei buruzko irizpideak. Alderdi horiek guztiek eragina dute klima-aldaketan eta arlo horretan jarduteko tresna eraginkorrak izan daitezke.

### **Helburuak**

Klima-aldaketaren arloan lurralde-estrategiaren berrikusketaren helburuak Klima-aldaketaren aurkako 2050erako EAEko Estrategiak dituenak dira, funtsean, eta, bereziki, lurralde-eragin handiena dutenak:

1. Lurraldearen efizientzia eta erresilientzia handitzea.
2. Karbono gutxi erabiltzen duen energia-eredua sustatzea.
3. Mugikortasun jasangarria bultzatzea.
4. Natura-ingurunearen erresilientzia handitzea.
5. Lehen sektorearen erresilientzia handitzea eta haren emisioak murriztea.
6. Ur-hornidura bermatzea eta eraikitako ingurunearen eta azpiegitura kritikoen (energia, ura, elikadura, osasuna eta IKTak) erresilientzia handitzea muturreko egoerekiko.
7. Hondakinen sorrera gutxitzea eta kontsumo jasangarriagoa sustatzea.
8. Plangintza-dokumentuek lurralde-jasangarritasunaren balioetan sentsibilizatzea gizartea.

### **Lurralde-orientabideak**

Honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira, klima-aldaketaren arloan:

1. Klima-aldaketaren gaia lurralde- eta hiri-plangintzan txertatzeko moduetan lan egitea. Klima-aldaketaren aurkako estrategian jasotzen den bezala, udalerriz gaindiko plangintzan frogapen-proiektu bat gauzatzea, klima-



aldaketarekiko urrakortasun-ikerketa bat eta egokitzapen-neurriak sartzeko mekanismoak txertatuko dituen.

2. Azpiegitura berdea eta naturan oinarritutako konponbideak sustatzea, klima-aldaketara egokitzeko eta hiri-jasangarritasuna bermatzeko.
3. Klima-aldaketara egokitzea txertatzea, inpaktuen eta klima-aldaketaren inpaktuen eta harekiko urrakortasunaren kartografia tematikoaren bitartez.
4. Ekosistemak leheneratu eta naturalizatzea, lurraldearen erresilientziari eusteko.
5. Espezieen migrazioa ahalbidetuko duten ekosistemen arteko konexioak sustatzea eta horien konektibitatea erraztea.
6. Itsasoaren maila igozteak eta muturreko olatuek eragiten dieten kostaldeko eremuak identifikatzea.
7. Degradatutako eremuak basotzea eta baso naturalaren azalera handitzea, karbono-hobiak baitira.
8. Baso-kudeaketa hobetzea, ziurtatutako azalera handituz eta suteei aurrea hartzeko programak hobetuz.
9. Intermodalitatea eta BEG emisio txikiagoak dituzten garraiobideak bultzatzea.
10. Energia-eraginkortasuneko irizpideak eta energia-berriztagarriak sustatzea.

### 4.3. OSASUNA

#### **Egoera**

Badira lurralde-antolamenduan eta hirigintzan osasunaren ikuspegia sartzeko arrazoiak: agerikoa da plangintzan hartzen diren erabakiek ingurunea aldatzeko ahalmena dutela, bizileku eta lantoki ditugun eremuei eragiten dietela, bai eta lekualdatzeko moduari ere, eta aisiarako denbora erabiltzeko moduari ere bai. Eta horiek guztiak biztanleen osasunean eragiten duten alderdiak dira.

Historian zehar, lurraldearen plangintzak eta hirigintzak osasun-erronka handiak gainditzen lagundu duten neurriak proposatu eta diseinatu dituzte. Adibidez, XIX. mendean European triskantza handia eragin zuten kolera-epidemiak gainditzen, edo



tuberkulosia gainditzen, XX. mendean. Eta nola lortu zen hori? Besteak beste, biztanleria-dentsitatea murriztuz, giza pilaketarik egon zedin, estolderia-sareak eginez, espazio berdeak sortuz, eta etxebizitzaren bizigarritasun-ezaugarriak hobetuz (argia, aireztatzea, komunak).

XXI. mendearen hasieran, osasun publikoak dituen erronkak beste batzuk dira, transmititzen ez diren gaixotasun kronikoak ditugu eta: minbizia, gaixotasun kardiobaskularrak, 2 motako diabetesa, asma, estresa eta gizarte-isolamendua, esate baterako.

Gaur egun badakigu lurralde-antolamendua eta hirigintza-plangintza, osasuna eta ingurumena dimentsio konplexuak direla eta elkarri oso lotuta daudela zenbait aldagaien bidez, batzuk zuzenak, beste batzuk zeharkakoagoak. Hirien eta haietan bizi diren biztanleen egungo arazoak (airearen kutsadura eta zarata, jarduera fisiko gutxiago egitea, elikadura-ohiturak aldatzea, gizarte-loturak galtzea, eta hiria garatzea landa/natura garatu beharrean, adibidez) osasunaren oso alderdi garrantzitsuak dira eta elkarri oso lotuta daude. Mugikortasun moduen aldaketek enpleguari, elikadura osasungarriari, jarduera fisikoari eta gizarte-harremanak izateko aukerari eragiten diete, besteak beste.

Hirigintzako erabakiak oso eragile garrantzitsuak dira biztanleen osasuna sustatzeko, eta lurralde-antolamenduak eta hirigintzak funtsezko eginkizuna dute osasunari, ongizateari eta bizi-kalitate onari lagunduko dioten bizi-baldintzak bermatzen. Kontua da bermatzea aukera errazena osasungarriena izatea beti.

Pertsonen osasun-egoeran eta bizi-kalitatean zenbait faktorek eragiten dute: gizarte-, politika-, ekonomia-, ingurumen- eta kultura-faktoreek. OMEk “osasunaren gizarte-faktore erabakigarriak” deritze, hau da, pertsonen osasun-egoeran eragiten duten faktoreak, izan bakarka, izan beste faktore batzuekin lotuta. Faktore erabakigarri horiek, “banakako” osasun-faktore erabakigarriekin batera jarduten dute: adinarekin, sexuarekin, ondare genetikoarekin eta bizimoduarekin batera.


EAEn jaiotzeko unean dagoen bizi-itxaropena aztertzen badugu eremu geografiko txikiagotan (oinarrizko osasun-eremuetan), hau ikus daiteke 2006-2010 aldirako (1. irudia. 1. taula. 2. irudia):





- EAEn jaiotzeko unean dagoen bizi-itzaropenak eredu geografiko argia du: balio handiagoak hegoaldean eta ekialdean gizonen kasuan, eta hego-ekialdean, emakumeen kasuan.
- Bai gizonengan, bai emakumeengan, bizi-itzaropenak behera egiten zuen bizilekuaren gabezia sozioekonomikoak gora egiten zuen heinean.
- Emaitza onena eta txarrenea dituzten oinarrizko osasun-eremuen arteko bizi-itzaropeneko arraila 10,5 urtekoa da gizonengan eta 7,0 urtekoa, emakumeengan.
- Bizi-itzaropen baxuena duten oinarrizko osasun-eremuak gabezia sozioekonomiko handiena dutenak dira.

#### 1. irudia. Jaiotzako bizi-itzaropena EAEko oinarrizko osasun-eremuetan. 2006-2010



Iturria: Calvo M, Esnaola S. EAEko oinarrizko osasun eremuetan bizi-itzaropenean dauden desberdintasunak, 2006-2010

**1. taula. Jaiotzako bizi-itzaropen handiena eta txikiena duten oinarrizko 10 osasun-eremuen rankinga, EAE; 2006-2010**

Gizonezkoak			Emakumezkoak		
EAE	B.I 78,1	% 95eko KT (78,0-78,2)	EAE	B.I 85,1	% 95eko KT (85,0-85,2)
<b>Osasun oinarrizko eskualdea</b>			<b>Osasun oinarrizko eskualdea</b>		
Hego Gasteiz (Araba)	82,0*	(79,4-84,6)	Santa Lucia (Araba)	88,0*	(85,9-90,2)
Arabako Mendialdea (Araba)	81,9*	(79,0-84,9)	Lakua-Arriaga (Araba)	87,1	(83,9-90,2)
Algorta (Uribe)	81,2*	(80,1-82,3)	Gasteiz-hiri erdia (Araba)	87,0*	(86,1-88,0)
Lakua-Arriaga (Araba)	80,9*	(78,4-83,3)	Arabako Mendialdea (Araba)	86,7	(82,7-90,8)
Legazpi (Goierrri-Urola)	80,8*	(79,2-82,5)	Zorrotza (Bilbao-Basurto)	86,7	(85,2-88,1)
Aranbizkarra I (Araba)	80,6*	(79,4-81,8)	Legazpi (Goierrri-Urola)	86,6	(84,5-88,7)
El Pilar (Araba)	80,3*	(78,9-81,7)	Portugalete-Castaños (Ezkerra-Enkarterri-Gurutzeta)	86,6*	(85,5-87,7)
Arabako Lautada (Araba)	80,2*	(78,6-81,9)	Lakuabizkarra (Araba)	86,5	(83,6-89,5)
Ipar Araba (Araba)	80,1*	(78,5-81,6)	Gazalvide-Txagorritxu (Araba)	86,5*	(85,3-87,7)
Arabako haranak (Araba)	79,9	(78,0-81,9)	Aranbizkarra I (Araba)	86,5*	(85,3-87,7)
....			....		
Alde Zaharra (Araba)	76,1*	(74,7-77,4)	Abetxuko (Araba)	83,7	(79,5-87,9)
Intxaurren (Donostialdea)	75,9*	(74,3-77,5)	Abanto-Muskiz (Ezkerra-Enkarterri-Gurutzeta)	83,7*	(82,6-84,7)
Abetxuko (Araba)	75,7	(72,6-78,8)	Alde Zaharra (Bilbao-Basurto)	83,4	(81,8-85,1)
La Peña-Zamakola (Bilbao-Basurto)	75,7*	(74,0-77,4)	Leioa-hiri erdia (Uribe)	83,0*	(81,9-84,2)
Sestao-Markozanga-Kueto (Barkaldo-Sestao)	75,6*	(74,6-76,6)	Intxaurren (Donostialdea)	82,5*	(80,8-84,2)
Ortuella (Ezkerra-Enkarterri-Gurutzeta)	75,1*	(73,1-77,1)	Erandio-Basamortuta (Uribe)	82,3*	(80,8-83,7)
Pasaia-San Pedro (Donostialdea)	75,0*	(73,3-76,7)	Aranbizkarra II (Araba)	82,1*	(80,1-84,0)
Alde Zaharra (Bilbao-Basurto)	74,2*	(72,6-75,8)	Otxarkoaga (Bilbao-Basurto)	82,1*	(80,3-83,8)
Otxarkoaga (Bilbao-Basurto)	73,7*	(72,1-75,3)	Ibarra (Tolosaldea)	81,3*	(78,9-83,7)
Bilbo Zaharra (Bilbao-Basurto)	71,5*	(69,4-73,5)	Bilbo Zaharra (Bilbao-Basurto)	81,0*	(78,8-83,3)
	10,5			7,0	

\*EAErekiko ezberdintasun nabarmenak

\*KT= Konfiantza-tarte

Iturria: Calvo M, Esnaola S. EAEko oinarrizko osasun eremuetan bizi-itzaropenean dauden desberdintasunak, 2006-2010

## Helburuak

Osasunaren arloan, honako helburu hauek proposatzen dira lurralde-ereduaren berrikusketan:

1. Lurraldeak osasunean dituen inpaktuen azterketa sistematikoa bultzatu eta laguntzea.
2. Ekitatearen alde egitea; hots biztanle orok, haren generoa, adina, etnia, estatus sozioekonomikoa eta dibertsitate funtzionala edozein izanda ere, aukera berdinak izatea komunitatearen zerbitzu guztiak eskuratu, lortu eta erabili ahal izateko. Horretarako, desberdintasunak plangintza-prozesuaren hasieratik aztertuko dira.
3. Herritarren parte-hartzea sustatzea lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan, gardentasuna, demokrazia eta berdintasuna printzipioetan oinarrituta.



## **Lurralde-orientabideak**

Osasunaren arloan, honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira lurralde-ereduaren berrikusketan:

1. Espazio atseginak, seguruak eta herritarren ongizatea eta gizarte-kohesioa laguntzen dutenak sortzea.
2. Osasuneko gizarte-desberdintasunak murriztea, bizi-kalitatea hobetzen duten giroak eta inguruneak eskuragarri izanda.
3. Bizi-ohitura edo bizimodu osasungarriak sustatzea, elikaduraren, ariketaren eta mugikortasun aktiboaren bidez.
4. Sareen eta ekipamenduen eskuragarritasuna sustatzea, oinarrizko ekipamenduen sarearen plangintza egitean eskuragarritasun-berdintasuna kontuan izanda.
5. Tokiko enplegua sustatzea, lekualdatze-denbora murrizten baitu eta bizitza pertsonalaren eta profesionalaren arteko orekari laguntzen baitio.
6. Zoruaren erabilera mistoa duten hiri-garapen konpaktuak sustatzea, enplegu-aukera zabalagoak sustatzen baititu.
7. Espazio publiko irekiak eta kalitatezko ingurunea eta etxebizitza sustatzea.
8. Kutsatzaileen kontzentrazioa murriztea, kutsadura-iturria murrizten saiatuz, eta biztanleria haren eraginpean ahalik gutxien egon dadin ahaleginduz.

## **4.4. EUSKARA**

### **Egoera**

Gaur egun indarrean dauden Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onartzen dituen otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuak honako hau ezartzen du: “euskararen presentziak heterogeneotasun handia azaltzen du lurraldean zehar: inguru batzuetan ia ez da azaltzen eta beste batzuetan hizkuntza nagusia da. Inolako zalantzarik gabe, lurraldearen antolamenduko elementu batzuek, telekomunikazioen edo garraio-sareen garapenak esate baterako, funtsezko garrantzia izango dute hizkuntzaren eta ezagutzen transmisio-prozesuetan, inguru desberdinetako pertsonen artean sortzen dituzten erlazioen ondorioz. Lurraldearen antolamenduak (...) ezaugarri hauek kontuan



hartuta jardun beharko du, proposatzen diren jarduketek horien gainean izan ditzaketen eragina aintzat hartuz beti”.

Euskal Autonomia Erkidegoa urrats handiak ematen ari da euskararen erabilera normalizatzeko, eta euskaraz dakitenen kopuruak etengabe egin du gora azken 30 urteetan. Horrela bada, “Euskara 21. Itun berritu baterantz” gogoeta irekiaren ondorengo txostenean (Euskararen Aholku Batzordeak 2009. urtean onartu zuen eta Eusko Jaurlaritzak urtebete geroago) jasotzen denez, funtsezkoa da ezagutza-indizeak handitzea eta euskararen arnasmuneak zaintzea, hizkuntza-politika orekatu baten oinarrizko elementuak dira eta.

EAEko V. inkesta soziolinguistikoak eta V. mapa soziolinguistikoak (Eusko Jaurlaritza, 2011) adierazten dutenez, 5 urteko biztanleen %36,4 euskaldunak dira, % 19,3 euskaldun hartzaileak dira eta % 44,3 erdaldunak dira. Gaur egun, euskaldunak 749.182 dira, 1981. urtean baino 318.000 gehiago. Horrek esan nahi du euskaldunen ehunekoak 14,5 puntu egin duela gora azken 30 urteotan. Jatorriz elebidunak diren pertsonen eta euskaldunberrien artean, gero eta gehiago dira etxean beti edo ia beti euskara erabiltzen dutenak.

**1 taula. Biztanleriaren banaketaren bilakaera gune soziolinguistikoaren arabera. EAE, 1981-2011**


Guneak	Biztanleak (≥ 5 urte)		Euskaldunak (≥ 5 urte)		Udaljerri-kopurua	
	1981	2011	1981	2011	1981	2011
1. (<% 20)	1.263.529	178.591	75278	31.403	82	22
2. (% 20-50)	485.305	1.365.969	146.986	384.243	37	80
3. (% 50-80)	249.083	448.083	156.440	280.008	52	87
4. (% >80)	78.531	63.493	69.072	53.528	79	62
EAE	2.076.448	2.056.136	447.776	749.182	250	251*



Gune soziolinguistikoen bilakaera. EAE, 1981-2011 (%)

1981

2011



**Iturria:** Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak.

Bilakaerari erreparatuz gero, ikus daiteke EAEn euskaldundu egin diren guneen artean, bigarren gunea (1. taula) hazi dela gehien azken hogeita hamar urteetan, eta, batez ere, azken hamarkadan. Azken urteotan, biztanle gehien zituzten hiriak lehen gunetik bigarreneira pasatu dira (Bilbao, Vitoria-Gasteiz, Getxo, Irun eta Errenteria), baita haien eragin-eremuaren barruan dauden hainbat udalerrri ere. Hirugarren eremuan ere egin du gora euskaldunen kopuruak eta udalerrri-kopuruak, eta, bereziki, Donostialdea, Tolosaldea, Debagoiena eta Durangaldeako herri batzuetan. Laugarren gunean, gutxiago dira udalerrriak, baita euskaldunak ere, eta hirugarren gunera pasatu dira. Gune euskaldunetara hiri erdaldunenetatik bizitzera etorri diren biztanleen ezaugarri linguistikoek eragin dute, batez ere, beherakada hori. Duela hogeita hamar urte 79 udalerrri zeuden laugarren gunean, orain baino 17 gehiago, eta haiek hirugarren guneko udalerrri bihurtu dira. Honako eskualde hauetan gertatu da, batez ere, hori: Mungialdean, Arratian eta Busturialdea-Artibain. Dena den, euskararen gizarte-bilakaera aztertzeke, kontuan hartu behar da ikuspegi global eta diakroniko hau. Izan ere, ikusten da, bigarren gunek lehen gunearen kaltetan egin duela gora —eta ez hirugarren gunearen kaltetan— eta hirugarren gunek bigarren gunearen kontura egin duela gora eta pixka bat laugarren gunearen kaltetan. Horrekin guztiarekin ondoriozta daiteke Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen gizarte-bilakaera positiboa dela eta euskarak gora egin duela.

Euskararen lurralde-presentzia eta arnagunetzat edo euskara bizi eta modu aktiboan erabiltzen den lekutzat jotzea lurralde-antolamenduan eta hirigintza-plangintzan ere kontuan hartu beharreko faktorea da, estu lotuta baitago hizkuntza-koofizialtasuneko



politika eraginkor bat egiteko. Arnasguneak euskararen bizi-espazioak dira, egoera soziolinguistiko eta psikolinguistiko berezia dutenak, eta espazio funtzionalak zein geografikoak izan daitezke; esate baterako, eskola, administrazioa, eta haurren aisialdia.

Arnasgune geografikoen ezaugarri nagusia da han bizi diren eta han lan egiten duten pertsona asko elebidunak direla, eta pertsonen eta erakundeen arteko harreman gehienak euskaraz egiten direla. Horregatik, egokitzat jotzen da gune horietan euskararen erabilera funtzionala eta naturala sustatu eta sendotzea, euskaraz bizitzeko aukera errazten du eta.

### **Helburuak**

Euskararen arloan, honako helburu hauek proposatzen dira lurralde-ereduaren berrikusketan:

1. Euskarak lurraldean duen presentzia kontuan izatea lurralde-antolamenduko eta hirigintza-plangintzako tresnak egin eta garatzean, hizkuntza-politikari eta koofizialtasunari laguntzeko tresna moduan.
2. Egokiak diren neurriak sustatzea euskararen erabilera normalizatua egiteko, pertsonen arteko ohiko erabilerako hizkuntza izan dadin administrazioan, gizarte-zerbitzuetan (osasunean eta hezkuntzan, esaterako), merkataritza- eta enpresa-arloan eta aisiako espazioetan.

### **Lurralde-orientabideak**

Euskararen arloan, honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira lurralde-ereduaren berrikusketan.

1. Euskarak lurraldean duen presentzia aztertu eta behatzea, eta alderdi hori kontuan izatea dagozkion lurralde-plangintzako tresnak egitean.
2. Euskara kontuan izatea lurraldeko hizkuntza-paisaian.
3. Euskararen arnasguneak edo bizi-espazioak zehazteko eta mugatzeko irizpideak garatzea, eta lurralde- eta hirigintza-plangintzako tresnetan erabiltzea.
4. Auzoen, industrialdeen, osasun-zentroen, ikastetxeen eta abarren izen berrietan euskarazko toponimoak edo terminoak erabiltzea, eta, bereziki,



arnasguneetan eta hiru hiriburuetan, euskaldun gehien dituzten eremuak dira eta.

## 5.5. LURRALDE-ERLAZIOA

### *Egoera*

EAEk kokapen estrategikoa da: errotula modukoa da bat egiten baitu Paris-Madril korridore europarrak zeharkako bi korridorerekin (Ebro ardatza eta Kantauri itsasoko ertzeko ardatza). Bi euroeskualderen (Arku Atlantikoa eta Hegoaldearen Iparraldea) arteko giltzadura garrantzitsua da. Horrez gain, Arku Atlantikoa Europako zentraltasun-nodo baten grabitate-zentroan dago. Hartan, EAEko lurraldeaz gain, Nafarroa, Kantabria, Errioxa eta Akitania daude. Gainera, EAEko hiriburuen sistema polinuklearra ingurune hiri-sistemen erdian eta haietatik hurbil egoteak eta haien berezko hiri-garrantziak leku garrantzitsu batean jartzen dute EAE Europako hiri-sisteman.

Europako lurraldearen ikuspegi konbentzionalarekin (Dortsalak, Hegoaldearen Iparraldeak, Arku Atlantikoak eta Periferiek osatzen dute) batera, Europako Diagonala sortu da, kontinenteak azken hamarkadan bizitako transformazioaren ondorioz. Lisboa, Madril,artzelona, Marseilla eta Milano hiriak buru dituen espazio bat da. Hiri horiek espazio ekonomiko zabalen buru dira eta mugakide dituzten hiri-sistemekin elkarreragiteko izugarritzko ahalmena dute. Testuinguru horretan, EAE Europako garapeneko ipar-hego ardatz nagusietako batean egoteak aukera berriak ekartzen dizkio, eta zeregin garrantzitsuak izan ditzake eremu horien arteko loturan.

Horrez gain, inguruko lurraldeekin lankidetzan jarduteko aukera dago, eta, bereziki, Iparraldearekin eta Nafarroarekin. Izan ere, mugaren inguruan antzeko ezaugarriak dituzten kostaldeko bi hiri-eremu daude: Donostiako eremu funtzionala eta Baionako hiri-eremua. Bi eremu horiek hiri-continuum bat osatzen dute mugaren inguruan: Baiona-Donostia Euskal Hiria osatzen dute elkarri lotuta dauden bi eremu horiek. Elkarrekin 700.000 biztanle inguru dituzte, eta zenbait lankidetzako prozesu dituzte abian.

Aquitaine-Euskadi Euroeskualdea Lurralde Lankidetzako Europa Talde (LLET) moduan sortu zen, eta erakunde berria bada ere, erronka handiak ditu. Horien artean, Baiona-Donostia ardatzean pertsonen mugaz haraindiko mugikortasuna aztertzen duen



proiektua azpimarratu behar da. Proiektuaren helburua da garraio publikoa errealitate horri egokitzea, eta, horren bidez, Europar Batasunak ezarritako jasangarritasun-konpromisoak betetzea. Euroeskualdeko 2014-2020 aldirako proiektu estrategikoaren helburua da Akitania-Euskadiren helburuak Europak ekonomia-berrikuntzarekin, mugikortasun jasangarriarekin eta mugaz haraindiko herritartasunarekin emandako jarraibideak betetzea.

EAEren inguruko hiri- eta ekoizpen-eremu nagusia Iruñea da. Horrez gain, Nafarroaren iparreko eta mendebaldeko eremu askok lotura funtzionala dute EAerekin. Bi lurraldeek gero eta elkarreragin handiagoa dute, loturako azpiegiturak egin baitira. Alderdi horretan, nabarmentzekoak dira Iruñea-Donostia autobidea eta Iruñea-Altsatu autobidea, EAEko errepede-sareekin lotzen du eta Iruñea. Bidasoa Behearen Nafarroako eremua guztiz integratuta dago, funtzionalki, Irunekin eta, oro har, Donostia Eremu Funtzionalarekin.

Horrez guztiaz gain, mugakide dituen beste lurralde batzuei dagokienez, Kantabriako kostaldearen ekialdean biltzen da Kantabriako hirigintza-garapen handiena, eta, izatez, Bilbao Metropolitarraren zati moduan funtzionatzen du. Logroñoren garapen funtzionalaren eraginez, hiri hori erriberako lurraldeen zentralitate bihurtzen ari da, eta, bereziki, Arabako Errioxako herriena. Eta Burgosko probintzian, Miranda de Ebrok hiri-harreman estua du Arabako hegoaldearekin eta Vitoria-Gasteizek polarizatzen du.

Beste alde batetik, EAEko hirien eta inguruko lurraldeen kokapenak eta egitura polizentrikoak funtsezko eremu bat osatzen dute, EAEko lurraldea Europako mendebaldeko hiri-espazio handien artean sartzeko eta iparraldearen eta hegoaldearen arteko komunikazioen erdigunea izateko. EAEren inguruko lurralde-sistemako lurraldeekin eta hiriekin sinergiak eta lankidetzak aukerak daude, eta horiek garatu egin beharko dira dagokien lankidetzak-esparruen bidez.

## **Helburuak**

Kanpo- eta barne-erlazioaren arloan, honako helburu hauek proposatzen dira lurralde-ereduaren berrikusketan:

1. EAEk Europako errotula moduan duen ahalmena garatzea.
2. Euskadiren eta Akitaniaren arteko harremana garatzea, euroeskualdearen baitan.





3. Lankidetzeta eta lurralde-erlazioa handitzea Nafarroarekin, bereziki, eta Errioxarekin, Kantabriarekin eta Gaztela eta Leonekin.
4. Barneko lurralde-erlazioa handitzea.

### **Lurralde-orientabideak**

Lurralde-erlazioaren arloan, honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira lurralde-ereduaren berrikusketan:

1. Garraiobideen, multimodalitatearen eta EAEn zentralitate logistikoaren potentzialitate guztia garatzea, lurralde osorako lurralde-antolamendu egokia eta arrazoizkoa eginda.
2. Euroeskualdearen baitan, ingurumeneko eta mugikortasuneko lurralde-ekintzak proposatzea.
3. Lurralde-antolamenduko tresnak zehaztu eta garatzean, kontuan izatea kanpoko lurralde mugakideekiko erlazioa.
4. Lurralde-antolamenduko tresnak zehaztu eta garatzean, kontuan izatea kanpoko eremu funtzional mugakideekiko erlazioa.



## 5. KAPITULUA

### 5. PAISAIA

#### *Egungo egoera*

EAEko paisaia oso aberatsa eta askotarikoa da, eta ingurumenaren, kulturaren, gizartearen, historiaren eta ekonomiaren ikuspegitik begiratuta, guztion intereseko ondare eta baliabidetzat hartzen da.

Giza esku-hartzeak asko baldintzatzen du paisaia; izan ere, giza jardueren bitartez edertasun paregabeko paisaiak ez ezik, paisaia narriatuak ere sor baitaitezke. Paisaia bizi-kalitate eta ongizate indibidual eta kolektiborako funtsezko elementua da, eta aldi berean, lurraldearen nortasuna eratzen ere laguntzen du. EAEn indarrean dauden Lurraldearen Antolamenduaren Gidalerroetan, lurraldea antolatze bitarteko irizpideak eta helburuak finkatu zirenean paisaia-balioak kontserbatu behar zirela zehaztu zen. Hori horrela izanik, paisaiaren aldetik tratamendu berezia izan behar duten ikuspen-eremuak katalogatzeko beharra eta paisaiak une horretan duen moldea hausten duen edozein obra edo jardun egin ahal izateko paisaiaren azterlana aurkezteko betebeharra jasotzen da. Halaber, hirigintza- eta lurralde-plangintzan espazio marjinalen tratamendua, jabari publikoa, mugaketak eta zortasunak aztertuko direla ere zehazten da.

2000. urteko urrian, Florentzian Paisaiaren Europako Hitzarmena onartu zen, eta hitzarmen horren arabera, hirigintza- eta lurralde-plangintzan paisaiaren aldagaia txertatu behar da, pertsonen bizi-kalitatea hobetzea eragiten duen faktore den aldetik.

2009. urtean, Eusko Jaurlaritzak Paisaiaren Europako Hitzarmenarekin bat egin zuen, eta 2014an 90/2014 Dekretua onartu zuen; hain zuzen ere, 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa. 90/2014 Dekretuaren xedea da lurralde-antolamenduaren esparruan paisaiaren gaia lantzeko bitartekoak ezartzea. Hona hemen bitarteko horiek: Paisaiaren Katalogoak, Paisaiaren Zehaztapenak, Paisaiaren Ekintza Planak, Paisaian Integratzearen Azterlanak, baita sentsibilizazioa, trebakuntza, ikerkuntza eta laguntza jorratzeko neurriak ere.



## **Helburuak**

Lurralde-eredua berrikustearen helburuak –paisaiari dagokionez– honako hauek dira:

1. Lurralde- eta hirigintza-plangintzako bitartekoak landu eta garatzeko prozesuetan paisaia txertatzea.
2. Paisaia ikuspegi integraletik begiratuta balioestea, landa- eta hiri-paisaiak aintzat hartuta, baita kalitate handikoak nahiz narriatuak ere.
3. Paisaia balioesteko prozesuan herritarren parte-hartzea sustatzea, norberaren pertzepzioari dagokion gaia baita eta pertsonen bizi-kalitaterako eta osasunerako garrantzi handia baitu.
4. Paisaia-inpaktuak saihestea eta lurraldean garatzen diren elementu eta jarduerak bisualki integratzea, batik bat azpiegiturak eta jarduera ekonomikoko eremuak.
5. Paisaiari balioa ematea, kalitatezko faktore den aldetik, gizartearen, kulturaren, ekonomiaren eta ongizatearen ikuspegitik begiratuta.

## **Lurralde-orientabideak**

Lurralde-ereduaren berrikuspenean honako lurralde-orientabide hauek proposatu dira paisaiari dagokionez:

1. Paisaia irizpide baldintzatzailatzat hartuta jardutea antolamenduaren maila guztietan.
2. Natura-, kultura-, landa- eta hiri-paisaiak berreskuratzeko, hobetzeko eta zaintzeko jardunak eta kudeaketa-sistemak proposatzea.
3. Elementu eta azpiegiturak, hiri-hazkundeak, erauzketa-ustiategiak eta zabortegeiak paisaian integratzeko oinarrizko baldintza jakin batzuk betetzea.
4. Lurraldearen gaineko jardunak topografiaren arabera egokitzea, paisaia tradizionalaren landarediari eta zuhaitzei eutsita. Horretaz gain, elementu gailenetan edo mendi-gailurretan eraiki dadin saihestea.
5. Itsasertzeko paisaia eta hondartzen ingurunea babestea; horretarako, urbanizazioa eta azpiegiturak saihestu behar dira, eta portuen irudia hobetu.



6. Ibai-paisaiak leheneratu eta kontserba daitezen sustatzea, eraikuntza narriatzaileak desagerrarazita, eta ur-bazterreko landaredia zaintzea, oinezkoentzako eta txirrindularientzako bide-sarea indartuta.
7. Paisaia aztertu eta balioestea Paisaiaren Katalogoen eta Zehaztapenen bitartez; bitarteko horietan paisaia-kalitatearen helburuak zehaztuko dira, baita helburu horiek betetzeko egin behar diren ekintza zehatzak ere.
8. Kultura-bideei balioa ematea eta ibilbideen, bideen eta begiratokien – kostaldeko ibilbideak ere barnean hartuta– sarea sortzea, herritarrek paisaiarako sarbidea izan dezaten.
9. Landa- eta hiri-paisaia babestea, herriguneeen hazkundera trinkoa izan dadin ahalbidetuta, eta baserriak birgaitzeko politika bat finkatzea.
10. Herriguneeak inguruko ingurune fisikoan integratzea, ertzak, espazio libreak eta sarbideak zehaztuta landa-hiria trantsizioa behar bezala antolatzeko.
11. Industrialde finkatuen irudia hobetzea eta hiri-berrikuntzako programak garatzeko eremuak zehaztea.
12. Ahal dela, multzo hiritar historikoen eskaintzen dituzten ikuspegiari eustea, betiere elementu bereziak izan dezaketenean garrantzi bisuala galdu gabe.



## 6. KAPITULUA

### 6. INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA

EAEko inguruneak eta ekosistema naturalek nabarmen egin dute hobera azken urteotan, eta LAGek ezarritako babesek ere lagundu dute horretan.

Gaur egun indarrean dauden EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek arreta berezia ematen diete ingurumen fisikoaren arazoei eta aukerei. Gidalerroetan, antolamenduko zazpi kategoria daude ezarrita, eta gainjarritako lau baldintza, eta horiek oinarria izan dira lurralde osorako erabilera-araubide homoginoa izateko eta zenbait espazio osatzeko. Gero Lurralde-plan Partzialek (LPP) zehaztu egin dituzte dagozkien arloetan, eta balio handieneko ondarea babesteko sare sendoa eratu da horrela. Lurralde-plan partzialek ingurune fisikoari buruzko jarraibideak gauzaten egindako lan garrantzitsuaz gain, ekarpen handia egin dute ingurumen-balio handiko zenbait arlo eta prozesu antolatzeke lurralde-plan sektorial (LPS) batzuek ere.

Funtsean, plangintzak heldutasun hori izanda, une egokia da jauzi kualitatibo bat egin eta jarraitutasun hori eskualde-mailan zabaldu ez ezik, eskala guztietan ere zabaltzeko. Horrekin guztiarekin honako hau lortu nahi da: natura-ondarearen kontserbazioaren eta kudeaketaren arteko ohiko dikotomia gainditu eta eredu integral berri bat proposatzea “azpiegitura berdea” deritzona, naturak eta haren ekosistemek ematen dituzten zerbitzuak sendotzeko.

Horrenbestez, lurralde-ereduko ingurune fisikoa ingurune fisikoaren antolamenduaren inguruan berrikusi nahi da, eta naturagune babestuak eta korridore ekologikoak bilduko dituen azpiegitura berde integratu bat lortu.

#### 6.1. INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA

##### *Egoera*

LAGek ingurune fisikoaren antolamenduari eta lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari dagokionez ezarritako xedapenek asko lagundu dute lurraldearen ingurumen-kalitatea hobetzen. Horrez gain, azpimarratu behar da LAGek jasagarritasunaren ildoan egindako lana, ibaiak eta errekek antolatzeke, itsas ertza



antolatzeko, hezeguneak antolatzeko eta nekazaritza eta basozaintza antolatzeko lurralde-plan sektorialak onartzean.

Antolamendu-kategoriak eta haien arautzea erreferentzia dira, gaur egun, EAEko hirigintza- eta lurralde-tresna guztiek lurzoru urbanizaezinaren antolamendua egiteko, xedapenak eremu bakoitzeko egoeretara egokituz. Honako hauek dira kategoriak: babes berezia; ingurumen-hobekuntza; basoa; nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala; mendiko larreak; azaleko uren babesa; eta, erabilera-bokaziorik gabea. Aipatu behar da azken kategoria horren interpretazio okerra egin dela maiz, eta ingurumen-baliorik gabeko espazio baztergarritzat jo izan dela. Horregatik, kategoria hori kentzea proposatzen da. Kategoria horiez gain, gainjarritako lau baldintzak mugatu egiten dute lurraldean zenbait jarduera egiteko modua. Honako hauek dira: akuiferoak kutsatzeko arriskua duten areak; area higagarriak edo higadura-arriskua dutenak; urpean gera daitezkeen areak eta naturagune babestuak; eta, Urdaibaiko Biosferaren Erreserba. Gainjarritako baldintzak zehazteko teknika asko garatu da lurralde- eta hirigintza-plangintzan, sektoreko zenbait alderdi adierazteko erabili dira eta.

Erabileraren arautzeari dagokionez, esan behar da LAGen baitako xedapenen artean eragin handiena izan duenetako bat nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenari lotuta ez dagoen familia bakarreko edo bi familiako etxebizitza debekatzea izan dela. LAGak onartu zirenetik hogeit hamar urte igaro diren honetan, esan dezakegu xedapen hori giltzarria izan dela landa-inguruneari arrotza zaion bizitegi-mota estentsibo bat eragozteko. Izan ere, baliabide asko behar ditu eta arriskuan jartzen du kokatuta dagoen lurzoruaren berezko erabilera.

Azkenik, indarrean dauden LAGek ezartzen dute udal-plangintzak mugatu egin behar dituela erauzketa-jarduerak egiten diren eremuak, baina horretarako erabil daitezkeenak ere. Xedapen horrek asko lagundu du berez oso konplexua den gai bat arautzen, baina zehaztu egin behar da, lurpeko erauzketa-jarduerari dagokienez.

## **Helburuak**

Ingurune fisikoaren arloan, lurralde-eredua berrikusteko, honako helburu hauek proposatzen dira:

1. Espazio bakoitzerako lurralde-xede bat zehaztea, erabilera egokienak arautzeko.



2. Lurraldearen erabilera jasangarria bermatzea, datozen belaunaldiek ere baliabideak eskuragarri izateko eta desberdintasunak desagerrarazten laguntzeko.
3. Erabileren eta sortutako inpaktuen konplexutasunari jarraipena egitea, metodologia homogeenak erabiliz.

### **Lurralde-orientabideak**

Honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira, ingurune fisikoari dagokionez lurralde-eredua berrikusteko:

1. “Lurzoru urbanizaezina” kalifikazioa duen espazio oro LAGen kategoriaren batean sartzea. Erabilerek bateragarriak izan behar dute gidalerroen erabilera-matrizearekin.
2. Lurzoru urbanizaezinean etxebizitzarako eraikin berriak egitea debekatzea, salbu eta nekazaritza- eta abeltzaintza-baliabideak ustiatzeari zuzenen lotuta dagoela frogatzen bada argi eta garbi.
3. Lurzoruaren erabilera eta plangintza-agiriekin proposatutako lurralde-xedea benetan bat datozela egiaztatzeko jarraipena eta kontrola egitea.
4. “Erabilera-bokaziorik gabea” kategoria kentzea LAGetatik.
5. LPP eta LPSetan ingurune fisikoa mugatzea, agiri honetako kategoriekin bat, nahiz eta gehiago zehaztu daitekeen. Plan horietan, baso-lurzoruen eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta landazabaleko lurzoruen, eta mendi-larreen irizpideak eta ezaugarriak zehaztea.
6. Udal-planetan, LAGetako erabilera-kategoriak sartzea, baita dagozkien LPP eta LPSetako irizpideak ere, eta erabilerak arautzea.
7. Udal-plangintzan, erauzte-jarduerek eragindako guneak edo horietarako erabil daitezkeenak mugatzea. Lurpeko erauzketa-jarduerei dagokienez, mugaketak aire zabalean daudenei dagokien eremua jasoko du.



## 6.2. AZPIEGITURA BERDEA

“Azpiegitura berdea” epigrafearen barruan, kontzeptu horren asmoa biltzea eta integratzea denez, naturagune babestuek eta korridore ekologikoak ere sartzea proposatzen da.

### 6.2.1 Azpiegitura berde integratua eta ekosistemen zerbitzuak

#### *Egoera*

Azken hamarkadetan, eremu urbanizatuak hedatu egin dira lurraldean eta, horrekin batera, eremu horiei zerbitzu emateko azpiegitura “grisak” eraiki dira. Dinamika hori geldiarazteko mugak jarri diren arren, 2005. eta 2013. urteen artean 2.601,32 hektarea lurzoru artifizialdu dira. Haietatik, 815,28 hektarea ekonomia-jardueretarako ziren; 535,82 hektarea, bizitegi-lurzorua; 602 hektarea, bide-azpiegituretarako; eta 305,55 hektarea abiadura handiko trenerako. Dinamika horrek lurraldea zatitzea eragin du, argi eta garbi, eta EAEn ezaugarriek ageriagoa egin dute zatiketa hori, dentsitate handia baitu eta baldintzatzaile asko eta asko, kokapenaren eta morfologiaren eraginez.

EAEn izandako zatiketa horrek lurraldean biodibertsitatea eta natura-ondarea galtzea ekarri du. Europako animalia-espezieen ia %25 galtzeko arriskuan daude, eta aztertutako habitaten eta espezieen %17k soilik dute kontserbazio-egoera ona. Europako ekosistema gehienak hondatuta daudela jotzen da, eta 27 herrialdeko EBren lurraldearen ia %30 oso zatituta edo nahikoa zatituta dagoela jotzen da. Zatiketa horrek EAEn eragiten dio, EAE funtsezko gunea baita Kantauriar mendikatea Pirinioekin lotzeko eta Ekialdea-Mendebaldea korridore ekologiko handiaren barruan baitago.

Horrez gain, ingurumen-arriskuen aurrean azpiegitura “grisak” eraiki izan dira konponbide naturalak eman beharrean, eta ez da aintzat hartu zer ondorio izan ditzaketen ekosistemak hornitzen dituzten zerbitzuetan.

#### ***a- Azpiegitura berdea: kontzeptua.***

Azpiegitura berde batean eskualdeko natura-ondarea modu integratuan eta koherentean aintzat hartzea aukera paregabea da Euskadik eta Europako beste eskualde batzuekin batera dituen zenbait erronkari irtenbidea emateko. Azpiegitura berde bat planifikatzen bada, posible da natura-ingurunea babestea eta garapena uztartzen dituen lurralde-eredua eratzea.





2013ko maiatzean, Europako Batzordeak “Azpiegitura berdea: Europako natura-ondarea hobetzea” lana argitaratu zuen. Lan horretan, kontzeptua zehazteaz gain, eskualdeetan ezartzeko oinarriak ere adierazi ziren, eta “Azpiegitura berdeari buruzko EBren estrategia” jarri zen abian. Lan horrek honela definitzen du kontzeptua: “gune naturalen eta erdinaturalen eta beste ingurumen-elementu batzuen sarea, modu estrategikoan planifikatutakoa eta hainbat ekosistema-zerbitzu emateko diseinatu eta kudeatutakoa. Hartan sartzen dira espazio berdeak (edo urdinak ekosistema urtarrak badira) eta lurreko (kostaldea barne) eta itsasoko beste elementu fisiko batzuk. Lurreko espazioetan, azpiegitura berdea landa- eta hiri-inguruneetan dago”.

Definizio horrek funtsezkoak diren alderdiak sartzen ditu kontzeptuan: sare planifikatua eta estrategikoa izatea; haren ondorioak ekosistema-zerbitzuetan gauzatzea; landa- zein hiri-eremuetan egotea eta zenbait eskalatan; azpiegitura berdeak zenbait gaitan izan dezakeen balioa, eta abar.

Azpiegitura berdearen oinarria da natura eta prozesu naturalak babestearen eta balioestearen printzipioa modu kontzientean txertatzen direla lurraldearen plangintzan eta haren garapenean. Azpiegitura berdeak onura eta aukera handiak ditu azpiegitura grisaren, helburu bakarrekoaren, aldean.

EAErako azpiegitura berde integratu batek eskualde osorako helburuekin bat datozen beste ondorio batzuk lortzeko aukera emango luke. Esate baterako: klima-aldaketaren aurkako borroka; hondamendi-arriskuen kudeaketa; ondorio onak, natura-ondarean eta pertsonen osasunean eta ongizatean; nekazaritza- eta basogintza-jarduerari eustea; eta landa-ingurunean lan egiten duten eta bizi diren pertsonak gizarte-, paisaia- eta ingurumen-errealitateko elementu dinamikotzat jotzea.

Horren haritik, EAErako azpiegitura berdea estrategikoa eta konpartitua da: irekia eta malgua da, eta jendearen atxikipena lortu nahi du, uste osoa baitago eraginak biztanleria osoak hautemango dituela. Plangintzaren arloko kontzeptu bat da; hau da, ez ditu azpiegitura berdearen helburu berarekin orain artean gauzatutako ekimenak ordeztu nahi, eta administrazioek, partikularrek eta enpresek abian jar ditzaketen ekimenak arriskuan jarri. Kontzeptu horrek ekimen guztiak biltzeko esparrua izan nahi du, eta haiek guztiak lotzeko baldintza egokiak jarri nahi ditu, eraginak askoz handiagoak izan daitezzen baliabide berak erabiliz. Bestalde, EAEko plangintzak, mailaz mailakoak, eta arautze- eta kontrol-mekanismoak dituenak, lortu duen heldutasunak eta



fidagarritasunak aukera ematen du EAEko lurralde- eta hirigintza-plangintzan azpiegitura berdea kontzeptua barneratzeko.

Agiri honek arlo horretan duen helburua da eskualde-mailako azpiegitura berde bat zehaztea, EAEn hari buruzko kontzeptuzko esparru bat zehaztea, eta lurralde-plangintzak zein hirigintza-plangintzak hura garatzeko lurralde-orientabideak adieraztea.

### **b- Ekosistemen zerbitzuak: kontzeptua.**

Honako hauei esaten zaie ekosistema-zerbitzuak: pertsonok zuzenean edo zeharka ekosistemetatik jasotzen ditugun zerbitzuak. Zerbitzu horiek eragin zuzena dute, gehiago edo gutxiago, bizi-kalitatearen funtsezko elementuetan:



Iturria: [www.ingurumena.eus](http://www.ingurumena.eus), Millenium Ecosystem Assessment, 2013

Natura-ondarearen azterketako ikuspegi metodologiko berriek lurraldearen zati bakoitzak ematen dituen ekosistema-zerbitzuen berri izateko eta balioesteko aukera ematen dute. Horregatik, orain erabakiak hartzeko prozesuetan sar daitezke, eta zerbitzu horiek modu garrantzitsuan ematen dituen ekosistema bat desagerrarazi edo eraldatzen denerako neurri zuzentzaileak ezarri; lurralde multifuntzionalak zehatz-mehatz identifikatu; eredu alternatiboek buruzko etorkizuneko egoerak identifikatu; haien bilakaera ebaluatu; azpiegitura berdeari lotutako ekintza guztiei koherentzia eman eta



egituratu; proposatzen diren ekintzen arteko sinergiak hauteman, eta bitarteko berak erabiliz, lortu nahi diren helburuak askoz irismen handiagoarekin lortu; edo erabaki batek lurraldean izan ditzakeen inpaktuak aurretik jakin. Edonola ere, metodologia berriak duen potentzial guztia erabili ahal izateko, zerbitzuak mapatu egin beharko lirateke, eskala egokian.

## **Helburuak**

Azpiegitura berdearen arloan, lurralde-eredua berrikusteko honako helburu hauek proposatzen dira:

1. EAEn azpiegitura berde planifikatua egitea, lurraldearen lotura ekologikoa bermatzeko, biodibertsitatearen galera geldiarazteko eta giza asentamenduek eta azpiegitura “grisek” sortutako lurralde-zatiketaren ondorioak arintzeko.
2. EAEko natura-ondareari eutsi eta hura aberastea eta ekosistemek ematen dituzten zerbitzuak babestea.
3. Ekosistema-zerbitzuen benetako balioa agerian jartzea, hazkunde zuhur, jasangarri eta integratzaile baten baitan.
4. Ekosistemek EAEn ematen dituzten zerbitzuen galera murriztea eta zerbitzuak sustatzea, eta, bereziki, honako hauek:
  - a. Biodibertsitatea: biodibertsitatearen galera geldiaraztea.
  - b. Arautzea: lurralde erresilientea eratzen laguntzea.
  - c. Nekazaritza eta abeltzaintza: nekazaritza eta abeltzaintza ekologikorako espazioak aurkitzea.
  - d. Osasuna eta ongizatea: berdeguneak orekatzea biztanledun inguruneetan eta bizimodu osasungarriak sustatzea.
  - e. Elikadura: elikadura-ziklo laburrak eta elikadura-ohitura osasungarriak sustatzea.
  - f. Ekonomia: azpiegitura berdeari eta haren helburuei lotutako lanpostuak sortzea.
  - g. Mugikortasuna: ibilbide bigunak proposatzea, eta bizikletaren erabilera eta oinez ibiltzea sustatzea.



- h. Turismoa: azpiegitura berdearen inguruan zirkuituak, ibilbideak, turismo-packak eta abar sortzea.
- i. Kultura: ondasunetatik harago, “testuinguruak” edo “ezaugarriak” babestea.
- j. Paisaia: paisaia-elementu bereziak babestea eta hondatutako inguruneak berreskura daitezzen laguntzea.
- k. Lurralde-antolamendua: lurraren erabileraren ikuspegi integratuagoa, eta azpiegitura “grisek” eragiten duten lurralde-zatiketa arintzea.
- l. Partaidetza: partaidetzazko topagune bat sortzea.

### **Lurralde-orientabideak**

Honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira, azpiegitura berdeari dagokionez lurralde-eredua berrikusteko:

1. Eskualdeko azpiegitura berdea zehaztea. Parke naturalek, Biosferaren erreserbak, Natura 2000 sareak, korridore ekologikoen sareak, ibai-ibilguk eta ur-masa guztiek osatzen dute.
2. Azpiegitura berdeen zenbait eskalatako espazioak elkarri lotzeko baldintzak zehaztea.
3. Datu koherenteak eta fidagarriak edukitzea, ekosistemen hedaturari eta egoerari buruz, eta ematen dituzten zerbitzuei eta zerbitzu horien balioari buruz. Eta ekosistema-zerbitzuen metodologia EAEko lurraldeari eragiten zaizkion inpaktuak neurtzeko erabiltzea.
4. Tokiko azpiegitura berdearen plangintza egitea eta hiri-azpiegitura berde konektatua eta orekatua izaten laguntzea.
5. Nekazaritza-lurzorua babestea, ingurune fisikoa kudeatzeko tresna moduan, nukleo txikien egiturari eusteko.

### **6.2.2. Naturagune babestuak**

#### **Egoera**

LAGek zorrotz mugatzen eta zehazten dituzte babes berezia behar duten areak edo eremuak, haien balioak gal ez daitezzen.




Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintza Dekretuak naturagune babestuen figura berean jasotzen ditu babesaren duten figurak; alegia, parke naturalak, biotopo babestuak, aparteko zuhaitzak eta Europako Natura 2000 Sarea, barne hartuta Batasunaren Garrantzizko Lekuak (BGL), Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (Hegaztientzako BBE).

Gaur egun, lurraldearen %23 gutxi gorabehera natura babesteko figuraren batean jasota dago, eta 1997. urtean %9,7 besterik ez zen. Espazio horiek guztiak EAEko ekosistema eta ingurumen-intereseko areen lagin bat dira. Figura horiek eta EAEko natura babesteko legedian baliabideak eta espezieak babesteko ezarritako babesak naturaren esparru nahiko zabala eta osoa ematen dute.

NATURAGUNE BABESTUEN EAE-KO SAREA			
	Leku-kopurua	Azalera (Ha)	EAEren azaleraren %
<b>Naturagune babestuak</b>	41	81.753,2	% 11,3
Zuhaitz apartekoak	25	0,0	% 0,0
Biotopo babestuak	7	5.892,23	% 0,82
Parke naturalak	9	76.559,27	% 10,6
<b>RAMSAR hezeguneak</b>	6	1.685,2	% 0,23
<b>Babes-plan bereziak</b>	1	160,8	% 0,02
<b>Hezeguneen LPSak</b>	1.237	5.247,4	% 0,7
I. multzoa	369	738,2	% 0,1
II. multzoa	19	1.771,8	% 0,3
III. multzoa	849	2.847,0	% 0,4
<b>Natura 2000 Sarea</b>	58	162.828,6	% 22,5
BGL	20	101.021,15	% 13,99
KBE	32	22.511,49	% 3,12
Hegaztientzako BBE	6	39.296,07	% 5,44
<b>Biosferaren erreserba</b>	1	22.042,2	% 3,05
<b>EAE GUZTIRA</b>	1.344		

**NATURAGUNE BABESTUEN EAE-KO SAREA**



Naturagune babestuak	41		
RAMSAR hezeguneak	6		
Babes-plan bereziak	1		
Hezeguneen LPSak	1.237		
Natura 2000 Sarea	58		
Biosferaren erreserba	1		
<i>Iturria: guk eginikoa</i>			

1997-2015 aldian, nabarmen aurreratu da naturaguneen babesaren arloan: lau parke natural izendatu dira eta lau biotopo babestu; zuhaitz apartekoen babesa aitortu da, baita hezeguneak eta Natura 2000 Sareak dakarren babes-bloke osoa ere. Dena den, naturagune garrantzitsu gehienak babestuta egonda, babes horien esparru integratu bat edukitzea jotzen da egokien. LAGen irismenetik kanpo dauden eremuetan ari da garatzen jada, gune bakoitzaren gainean eragiten duten babes-figurak agiri bakarretan



biltzeko. Baina lurralde-antolamenduaren ikuspegitik ere ikuspegi integratzaile eta globala eman beharko litzateke, natura-ondarea bateratzeko lurraldeetan eta eskaletan.

### **Helburuak**

Naturagune babestuen arloan, lurralde-eredua berrikusteko honako helburu hauek proposatzen dira:

1. Ingurumenaren aldetik EAEn garrantzitsuenak diren espazioek ematen dituzten zerbitzuak finkatzea.
2. Espazio babestu bakoitza ingurumen-babeseko figura bakarrean sartzeko lana amaitzea.
3. Naturagune babestuen EAEko sarea eremu funtzionaleko eta tokiko eremuko garrantziko naturaguneetan txertatzea, azpiegitura berde integratu batean (bai EAEn integratua, bai eta mugakide dituen eskualdeetan integratua).

### **Lurralde-orientabideak**

Honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira naturagune babestuei dagokienez lurralde-eredua berrikusteko:

1. Natura babesteko figurak bateratzen saiatzea, espazio bakoitzak arloko babes-tresna bakarra izan dezan.
2. Lurralde horien xedea babestea, haien bilakaera aztertuz, adierazleak ezarriz eta hartan eragiten duen edozein plan, programa edo proiekturen inpaktua neurtuz. Azterketa hori aurrez ezarritako metodologia bat erabiliz egingo da, ekosistema-zerbitzuen ebaluazioa erabiliz, lehentasunez.
3. EAEko naturagune babestuen arteko jarraitutasun ekologikoa bermatzea.

### **6.2.3. Korridore ekologikoak**

#### **Egoera**

Espazio babestuak biodibertsitatea berreskuratzeko eta lurraldearen jasangarritasun orokorraren oinarria izateko finkatzeak espazio horien arteko lotura hobea eskatzen du. Eta, hain zuzen ere, korridore ekologikoen bidez lortu nahi da hori EAEn, eskualde-



mailan elkarri lotutako sare berde bat osatuz. Horren emaitza ingurumen- eta paisaia-intereseko espazioen etenik gabeko sistema bat izango da. Azken urteotan, zenbait lan egin dira arlo horretan, eta haietan azpimarratzen da espazio horiek oso garrantzitsuak direla jarraitutasun ekologikoa bermatzeko eta ingurune urbanizatuak eragiten duten lurralde-zatiketa eragotzi eta murrizteko.

Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarea garatzeko proiektuak, 2005. urtean Eusko Jaurlaritzak abian jarritakoak, premia bati erantzun nahi zion: populazio murrizta zuten espezie basatiak zituzten naturaguneen arteko lotura funtzionala babestu eta leheneratzea, espezie horiek isolatzeko arriskua dago eta. Horrenbestez, korridore ekologikoen sarea LAGek adierazitako ibai-sistemek, gailurren banalerroek eta azterketa hartan identifikatutako elementu berde linealek osatzen dute.

Azterketak, besteak beste, honako hau lortu nahi zuen: arazo hori zuten espezieak eta biotopoak identifikatzea, baita lotura bidez konpon daitekeen zatiketa duten habitatak ere; korridore ekologikoen sarea eta bide-azpiegituren sareak zein puntutan ebakitzen zuten elkar jakitea, puntu kritikoak identifikatu eta hesiak iragazkor egiteko neurriak proposatzeko; eta, azkenik, korridore ekologikoen sarea eta hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarria elkarri eragiten ari diren eremu kritikoak hautematea.

Lurralde-antolamenduaren arloan, oso garrantzitsuak dira azken bi puntuei buruz egindako azterketak. Izan ere, lanak EAerako korridore ekologikoen sarearen diseinua egiteaz gain, eremu kritikoak identifikatzen ditu, loturen funtzionalitatea oso arriskuan duten lekuak, alegia. Eta, hain zuzen ere, adierazten da non eragiten dioten elkarri korridore ekologikoen sareak, batetik, eta ahalmen handiko errepideak, hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarriak eta 2001. urtean abiadura handiko trenerako aurreikusitako bideak, bestetik. Haranek eta banalerroek eratutako korridore-multzoak naturaguneei jarraipena emango dien azpiegitura berde bat eratzen lagunduko dute, eta lurraldearen aniztasun eta aberastasun ekologikoa handituko dute, bai eta haren erakargarritasuna eta paisaia-aberastasuna ere.

### **Helburuak**

Korridore ekologikoen arloan, lurralde-eredua berrikusteko honako helburu hauek proposatzen dira:

1. EAEn zatiketa ekologikoa eragozte eta biodibertsitatearen galerari aurre egitea.





2. Korridore ekologikoen sarea eskualdeko azpiegitura berdean txertatzea.

### **Lurralde-orientabideak**

Honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira, ingurune fisikoari dagokionez korridore ekologikoen arloan lurralde-eredua berrikusteko:

1. Azpiegitura “gris” bat egoteak ingurumen-balio handiko espazioen arteko jarraitutasun ekologikoa arriskuan jartzen dituen lekuak identifikatzea.
2. Espazioen arteko jarraitutasuna finkatzeko irizpideak, neurriak eta ekintzak proposatzea.
3. Sare horretan sartutako espazioetan egiten den edozein erabilera edo jarduerak lehen adierazitako eginkizun nagusia betetzearen mende egon beharko du. Erabilera horiek aurrezarriz baldintza moduan arautuko dira.



## 7. KAPITULUA

### 7. LANDA-INGURUNEA

#### **Egoera**

EAE, oro har, hiri-lurraldetzat jotzen da, eta biztanleriaren % 8 soilik bizi da dentsitatea 150 biz/km<sup>2</sup> baino txikiagoa duten udalerrietan. Dena den, alde handia dago lurralde historiko batzuetatik besteetara.

Hiri-sare horren barruan ez dago ia distantziarik eta leku askotan landa hirian sartzen da edo hiria landan, eta horrek mehatxu eta aukera asko dakartza: batetik, landa-ingurunea asko erabiltzen da aisiarako, eta, bestetik, eremu berean landa-erabilera desberdinak eta dedikazio-maila desberdinekoak eta industria- eta zerbitzu-jarduerak uztartzen dira.

EAEko landa-eremuetan, garrantzi handia du nekazaritza-sektoreak, eta nekazaritzako elikagaien sektoreak gero eta indar handiagoa du, baina industria- eta zerbitzu-sektoreek ere badute presentzia. Enplegua da, hain zuzen ere, bizitzeko eta lan egiteko leku den landa-eremuaren eta bizitzeko soilik den landa-eremuaren arteko aldean funtsezko alderdietako bat.

Euskadiko landa-espazioaren arazoa, gehien-gehienetan, ez da despopulazioa, landa-eremu batzuen hauskortasun sozioekonomikoa baizik, egitura sozioekonomiko urbanoak egiten dion erakartze-indarraren eta eraginaren ondorioz: berrurbanizazio-prozesuak, hiper-mugikortasuna, lurzoruaren prezioaren inflazioa eta abar. Hori guztia dela eta, enplegua sustatzea oso garrantzitsua da landa-eremuak garatzeko.

Landa-eremuetan gero eta indar handiagoa duen jardueretako bat turismoa da, nekazaritza-turismoa, hain zuzen. Horri dagokionez, EAEn turismoak bilakaera positiboa izan du, eta 2008. eta 2011. urteen artean, % 10 egin zuen gora, bai establezimendu-kopuruak, bai eta eskainitako plaza-kopuruak ere.

Landa-ingurunearen azterketan bi arlo bereizi dira: batetik, landa-eremuaren garapen ekonomikorako politikak, eta, bestetik, landa-espazioaren eta espazio naturalaren antolamendu-politikak.

Landa-eremuaren garapen ekonomikorako politikei dagokienez, nekazaritzako elikagaien industria funtsezkotzat jotzen da orain ere. EAEko Nekazaritza eta



Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legeak nekazaritza-jardueraren gizarte-funtzioa eta multifuntzionaltasuna aitortzen zuen, elikagaiak ekoizten dituelako eta lurraldearen kudeaketa orekatua eta ingurumenaren kontserbazioa bermatzen baitu. Gizarte-funtzio hori paisaiari ere badagokio, nortasun-elementua ez ezik, garrantzi handia baitu ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren aldetik. Horrez gain, lurlandaketak eta larreak izateak animalia- eta landare-biodibertsitateari eusten laguntzen du, bai eta landare-gainazalari eusten ere.

Landa- eta natura-espazioaren antolamendu fisikoari dagokionez, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak funtsezko tresnatzat hartzen dira landa-ingurunearen antolamenduan zuzen-zuzenean eragiten duten plangintza-agiriak egiteko. 1997an Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak onartu ondoren, behin betiko onartu dira ibaiak eta errekek antolatzeke, itsasertza antolatzeke, hezeguneak antolatzeke eta nekazaritza eta basozaintza antolatzeke lurraldearen arloko planak. Azken plan horrek Nekazaritza eta Abeltzaintza nahiz Landazabala - Balio Estrategiko Handia kategoriaren mugaketa eta arauketaren lotura ezartzen du udal-plangintzarentzat, bai eta Onura Publikoko Mendiak eta Mendi Babesleak baldintza ere.

Landa-inguruneari estu-estu lotuta daude landa-nukleoak. Euskal Autonomia Erkidegoan landa-nukleoak oso ondare baliotsua dira, eta modu uniformearen kokatuta daude lurraldean. Horrenbestez, funtsezko eginkizuna dute landa-espazioa antolatzeke estrategietan. Lehendabizi LAGek eta gero Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak landa-nukleoak babesteko neurriak ezarri dituzte, haien izaerari eta irudiari eusteko, lurraldearen erakargarritasuna gordetzeko funtsezko elementua baitira. Baina errealitatean kasuak oso konplexuak direnez, zailtasunak izan dira horretarako ezarritako xedapenak interpretatzean, eta, horregatik, LAGak berrikusteko prozesuan, landa-nukleoen gaiari heldzea egokia izan daiteke beharrezkoak diren interpretazio-irizpideak argitzeko.

### **Helburuak**

Landa-ingurunean lurralde-eredua berrikusteko proposatu diren helburuak EAEko Landa Garapeneko Programak (2015-2020) ezarritakoen ildo beretik doaz, eta honako hauek dira:



1. Landa-nukleoen izaera eta irudia zaintzea, lurraldearen funtsezko elementuak dira eta.
2. Ezagutzaren transferentzia eta berrikuntza sustatzea nekazaritza- eta basogintza-sektoreetan eta landa-eremuetan, eta ahalegin berezia egitea jakintza-multzoaren garapena, berrikuntza eta lankidetzat sustatzeko.
3. Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera eta arrantza-jarduera sustatzea, oinarrizkoak baitira elikagaiak hornitzeko eta lurralde baten elikagai-subiranotasunerako, hark biztanleei bizi-kalitate egokia eta osasuntsua eman diezaien.
4. Landa-lurzorua babestea, ingurune fisikoa kudeatzeko tresna gisa, nukleo txikien egitura eta haien paisaia-eremuak kontserbatu eta sustatzeko.
5. Nekazaritza-ustiategien bideragarritasuna eta lehiakortasuna sustatzea, eta pertsona gazte eta prestatuek lana lor dezaten erraztea.
6. Nekazaritzarekin eta basogintzarekin lotutako ekosistemak leheneratu, babestu eta hobetzea, biodibertsitatea, natura-balio handiko nekazaritza-sistemak eta paisaia leheneratuz, babestuz eta hobetuz.
7. Baliabideen efizientzia sustatzea, bai eta karbono gutxiko eta klima-aldaketara egokitzeko gai den ekonomia sustatzea ere, nekazaritza-, elikadura- eta basogintza-sektoreetan. Ura eta energia efizientzia handiagoz erabil dadin ahaleginduko da. Horretarako, energia-iturri berriztagarriak erabiltzea erraztu eta bioekonomia gara dadin sustatuko da.
8. Landa-eremuetan gizarteratzea sustatzea, pobrezia murriztea eta garapen ekonomikoa sustatzea, dibertsifikazioa erraztuz, enpresa txikiak sortzea eta garatzea eta enplegua sustatzea erraztuz, landa-eremuetan tokiko garapena sustatuz, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien eskuragarritasuna eta erabilera eta kalitatea hobetuz.

### ***Lurralde-orientabideak***

Honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira landa-eremuan, lurralde-eredua berrikusteko:

1. Xehetasunez aztertzea landa-nukleoak babesteko lurralde-ikuspegia.



2. Landa-inguruneari ekipamendu eta komunikazio egokiak ematea, hiri-inguruneak duen maila bera izan dezan alderdi horretan.
3. Elektronikaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien eskuragarritasuna eta erabilera sustatzea, landa-eremuetan bizi diren bizi-kalitatea eta lan-kalitatea hobetzeko.
4. Gaur egungo landa-lurzoruari eustea, eta gutxiegi erabiltzen diren lurak aktibatzea, nekazaritza-elikagaien industria sustatzeko, lurraldearen kudeaketa orekatua bermatzen du eta.
5. Paisaia bere horretan eduki eta zaintzea, nortasuna babesteko gizarte-baliabidea baita, bai eta baliabide ekonomikoa eta ingurumen-baliabidea ere. Horri dagokionez, landa-nukleoaren eta haien ingurunearen irudia zainduko da, bereziki.
6. Landa-gizarteari eustea, hark gordetzen baititu gure kultura-ondarea, ondare artistikoa, historikoa eta etnografikoa, eta gure errituak eta ohiturak; hau da, gure idiosinkrasiaren atal diren balioak eta bizimoduak.



## 8. KAPITULUA

### 8. HIRIGUNEA

Azken hamarkadetan, herrialde garatuetako hiri eta hiriguneetan espazio urbanizatuak areagotu egin dira. Ingurumen-alderdien artetik, lurzorua artifizializatzeko prozesuari bereziki erreparatu behar diogu EAEko lurralde-garapenaren prozesuaren barruan. 2015. urtean, EAEn artifizializatutako azalera 48.887 hektarea inguru da, hau da, EAEko guztizko hedaduraren % 6,83, betiere hiri-lurzoruak eta urbanizagarriak aintzat hartuta.

Gidalerroetan gai hori ez da esanbidez landu. Bere garaian, planteamendu nagusia lurraldea berrerekatzea zen eta, horretarako, hiri-hazkundera pilaketa handirik gabeko eremuetan egiten zen, dentsitate handiko espazioetan presioa arintzearen. Gidalerroetan, udalerrri bakoitzeko etxebizitza kopurua kuantifikatzeko sistema bat ezarri da, honako helburu hauekin: a) garapen-prozesuetarako lurzoru nahikoa egongo dela bermatzea; b) lurralde-ereduaren arabera hazkunde handienak izan behar dituzten udalerriei lehentasuna ematea; c) lurzoruaren neurrigabeko kalifikazioak saihestea, etxebizitza-eskariari dagokionez. Gidalerro horiek garatzeko garaian, lurzoru ondasun urritzat administratzeko kulturari jarraitu zaio eta, horren ondorioz, hirigintza-plangintzaren ahalmena baldintza egokitu eta jasangarrien araberakoa da.

Hazkundera nabarmendu beharrean, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspenean zera proposatu da, kokalekuen dentsitatea berreskuratzea, eraikitako eremuak hedatzeko prozesuak mugatzea eta eraikitako espazioak berritzeko eta berrerabiltzeko ekimenak etorkizuneko jardueren erdigune bihurtzea. Ikuspegi hori funtsezkoa da jasangarritasunerako; izan ere, landaretzarako euskarri diren lurzoruak hondatzea ekiditen du, hondakinen eta ura bezalako baliabide estrategikoen kudeaketa hobetzea ahalbidetzen du, joan-etorri motorizatuen beharrezko murrizten du, eta garraio kolektiboko sistemen erabilera lehenesten du. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek, gainera, hiri-berrikuntzako estrategiak planteatzen dituzte, lurraldea birziklatzeko eta birkokatze prozesu garrantzitsua ahalbidetzen duen ekimen gisa, jadanik hirigintzak okupatuta dauzkan espazioetan erabilera berriak gauzatu. EAEn, ekimen horiek modu ez oso sistematikoan garatu izan dira, eta botere publikoek esku-hartze handiagoa egitea beharrezkoa izango da.

Prozesu horiek guztiak herrialde garatu guztietako azkenaldiko hiri-garapenaren bereizgarri dira. Prozesu horien arrazoiak askotarikoak dira, baina eredu berrien



sorrerarekin lotuta daude guztiak ere; eredu berri horien ezaugarriak dira egitura ekonomikoan gertatutako aldaketak, hirietako erdiguneen eraldaketa, merkataritza-arloko eta aisialdiko eskari berriak, industria-espazioen lekualdaketa, azpiegituren hedapena eta, batik bat, bizitegi-eredu berriak, dentsitate txikia nagusi dela. Bizitegi-eredu berri horien ondorioz, metropolialdeak landa-eremuen gainean zabaltzen ari dira, nahiz eta erdigune tradizionaletatik gero eta urrunago egon. Hedapenari eusteko politika orotan, aukera nagusia eraikitako lurzoruak birziklatu eta berrerabiltzea izaten da, baita zaharkituta geratu diren edo jada erabiltzen ez diren espazioak berritzeko lanak egitea ere. Beste ekimen batzuk ere behar-beharrezkoak dira: plangintzak malguagoa izan behar du garapen berrien erabilerak, tipologia eta dentsitateak nahasteari dagokionez; eta hirigintza-hazkundeak garraio kolektiboko sistemekin lotu behar dira.

Europako eta Ipar Amerikako zenbait hiri-eskualdetan, azken urteotan askotariko esperientziak gauzatu dituzte, kokalekuetarako gehieneko hazkunde-perimetroak finkatuta. Ikuspegi horretatik begiratuta, hiri-hedapenaren mugei buruzko erabakiak har daitezke; horretarako, lurzoru libreak eraldatzeko prozesuak murrizteaz gain, hirigintzak jada okupatuta dituen eremuak hobeto aprobeztatzea bideratutako dentsifikazioko eta berrikuntzako ekintzak sustatzen dira. Joera horiei emandako lehen erantzuna Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea izan zen; lege horretan, lurzoruaren intentsitate handiagoko erabilera xede duten gutxieneko eraikigarritasunak finkatu ziren. Espazio berritzaile eta jasangarrien gakoetako bat hiri-garapenen dentsitatea da. Dentsitateak paisaia babesten du eta baliabide naturalen kudeaketa eraginkorrago bihurtzen du; garraio-arloko sistema, zerbitzu eta zuzkiduren funtzionaltasuna hobetzen du; eguneroko joan-etorrien premiak murrizten ditu, eta elkarren arteko harremanak egiteko, gizarte-sareak sortzeko eta desberdinak elkartzeko aukerak areagotzen ditu.

Hiri-garapen jasangarriaren testuinguru horretan, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesuan honako gai hauen balioespen berria egin beharko litzateke:

1. Hiri-birgaitzea eta -berroneratzea.
2. Jarduera ekonomikoak eta merkataritza-ekipamenduak.
3. Hiri-hazkundearen perimetroa.
4. Metropolialdeak eta Eraldaketa-ardatzak.



5. Bizitegi-kuantifikazioa.
6. Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak.
7. Plangintzen bateragarritasuna.

## 8.1. HIRI BIRGAITZEA ETA BERRONERATZEA

### Egoera

EAEn urbanizazio-prozesua oso azkar garatu da, batik bat, XX. mendearen bigarren erdialdean; prozesu horren ondorioz, bizitegi-eremu askotan eraikin-dentsitate oso handiak sortu ziren, hirigintza-kalitatearen maila txikia da eta zuzkidura nahiz azpiegituretan gabeziak daude.

Hiriaren eta industriaren hazkundera ingurumenaren narriadura eragin zuen, kutsadura-arazo garrantzitsuak ekarri zituen, eta paisaia eta baliabide naturalak suntsitu. Eraikitako eremuetan, abandonatutako industrien hondakinek okupatzen zituzten espazio zabalak agertu ziren. Lurralde osoa eta, bereziki, biztanleen gehiengoa metatzen zen eremuak narriadura-maila handiko hiri-espazio bihurtu ziren, irudi negatiboa zutela. Hiri-hazkunderaren prozesuen artean ez zegoen inolako koherentziarik; gainera, azpiegiturak ere eskasak izaki, gatazka funtzional larriak sortu ziren. Hirigintzaren bultzatzaile nagusia industria zenez, krisialdia iritsi zelarik, hazkunde handiena izan zuten espazioetan gertatu ziren atzeraldi garrantzitsuenak.

Eraikin-garapen bizkorraren ondorioz sortutako gabezia garrantzitsu horiei erantzutearren, hirigintza-arloko legeei eta plangintzei esker, denboraren poderioz, gabezia horien eraginpeko hiri-eremuak berriro egin dira hainbat tresna erabilita: Barne Eraberritzeko Plan Bereziak, Eremu Degradatuetako Planak edo hirigune historikoetako hiri-birgaitzeko eremuetan garatutakoak. Eraikin-parkea pixkanaka zahartu egin da, eta eraikuntzak nahiz hiri-ingurunea egokitu egin behar dira gaur egun sortzen diren ingurumen-arloko eta jasangarritasuneko erronka berrietara; hortaz, hiri-berroneratzeko edo -berrikuntzako eragiketak egin behar diren jardun-eremuetan eskala aldatzea proposatu da. Hartara, jarduketa-unitate mugatu batean eskala txikiko tokiko esku-hartze bat egin nahi bada, zenbait kasutan, auzo osoa edo hirigune zabalak eta hiri-inguruko ingurunea hartu behar dira eraginpean.

Horrela, bada, hiri-berrikuntzako ekimenak proposatzeko garaian, lurraldea –orokorrean hartuta– berrerabiltzeko eta birziklatzeko aukera emango duen estrategia bat pentsatu





behar da, jadanik hirigintzak okupatuta dauzkan espazioetan erabilera berriak garatu ahal izateko eta hazkunde-premiak betetzean hiri-bilbean txertatu gabeko lurzoru berriak okupatu behar izan gabe. Hala, hiri-birgaitzeak eta -berroneratzeak protagonismo handiagoa izan behar dutela proposatu da, eta datozen urteotako eraikuntza-jardueraren oinarri garrantzitsuena izango dira. Horrela, bada, hedapenari eusteko politika orotan, aukera nagusia eraikitako lurzoruak birziklatu eta berrerabiltzea izaten da, baita zaharkituta geratu diren edo jada erabiltzen ez diren espazioak berritzeko lanak egitea ere. Horrekin batera, beste ekimen batzuk ere behar-beharrezkoak dira: plangintzak malguagoa izan behar du garapen berrien erabilerak, tipologiak eta dentsitateak nahasteari dagokionez; eta hirigintza-hazkundeak garraio kolektiboko sistemekin lotu behar dira.

Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016ko Etxebizitza Plan Zuzendarian, era berean, lehendik dagoen bizitegi-parkea eta urbanizatutako parkea birgaitzea sustatzeko jardun-ildoak finkatu dira, birgaitze-eredu jasangarri, sozial, ekonomiko berri baten bitartez eta Europako indarreko jarraibideei jarraiki.

Horretaz gain, alde batetik, hiri-bilbe batzuk gainezka daude, eraikin-dentsitate handiarekin eta ekipamendu eta zerbitzu publikoen zuzkidura nahikoa dutela; eta, bestetik, zuzkiduren aldetik edo espazio libreen aldetik gabezia nabarmenak dituzten beste eremu batzuk ere badira, nahiz eta hutsik eta eskaerarik ez duten lurzoruen poltsak izan badiren; edo bestela, gerta daiteke garai batean eraikin bat jarduera ekonomikoetara bideratuta egon izana, baina gaur egun zaharkituta, jarduerarik gabe eta abandonatutako espazioz inguratuta egotea. EAEko zenbait eremutan adierazle soziodemografikoen gainbehera gertatu da, eta horrek agerian uzten du hiriguneak berroneratzeko jardun zehatzak adostu eta abiarazi behar direla, eremu horietako gizartearen eta hirigintzaren arloetako desorekak gainditzearen.

Halaber, egokitzat jotzen da eskualdekako hausnarketa estrategikoa egitea, betiere berroneratzeko esku-hartzeak udalaz gaindiko ikuspegi batetik begiratuta bidera daitezen eta, hartara, tokiko edo sektoreko ikuspuntuan soilik oinarritzen diren ikuspegiak gaindituko dira. Finkatutako hiri-bilbean txertatuta dauden baina eskala txikiagokoak diren beste zenbait eremutan, berroneratzeko esku-hartzeen bitartez irisgarritasun-baldintzak eta eremuaren barruko mugikortasunarekin lotutako baldintzak hobetu beharko lirarteke; espazio libre, parke eta lorategi berriak sortu; zuzkidura eta



ekipamenduak hobetu, aparkaleku gutxi dagoen tokian aparkatzeko leku gehiago sortu eta abar.

Era berean, lehengo mendeko berrogeita hamarreko hamarkadatik hirurogeita hamarreko hamarkadara bitarte eraikitako bizitegi-eraikinak birgaitzeko esku-hartze orokorra egitea behar-beharrezkoa da, irisgarritasun-baldintzei eta energia-eraginkortasunari dagokienez. Zuzkidura-aldetik gabezia handirik ez duten eremu finkatuetan esku hartzea oso zaila da, eta are gehiago finantzaketa publiko garrantzitsurik ezean; horren guztiaren ondorioz, inbertsio ekonomiko pribatua ezinbestekoa da eta inbertsio hori konpentsatzeko tresnak aplikatu behar dira. Bestalde, finkatutako bilbeetan esku hartu beharko da ingurumena hobetzeko eragiketen bitartez, batik bat, finkatutako hiria iragazkortzeko eragiketetan, dela etxadietako patioetan jardunak eginez, dela bide publikoan jardunak eginez.

Azken batean, smart city eredua sustatzea da kontua, hiri adimenduna, jasangarria, lagunartekoa eta integratzailea izan dezagun.

### **Helburuak**

Hiri-birgaitzearen eta -berroneratzearen eremuan, lurralde-eredua berrikusteko helburu hauek proposatzen dira:

1. Hiri-berroneratzea eta urbanizatutako espazioaren aprobetxamendu onena sustatzea.
2. Hiri adimendunak sustatzea, garapen teknologikoaren euskarri izan daitezen, zerbitzu eta komunikazioen prestazio aurreratua eskaintzen dutela, eta jasangarritasunaren eredu izango direla.
3. Udalerrietan mugikortasuna eta garraio jasangarria sustatzea.
4. Bizikidetzarako, gizarteratzeko, merkataritzako eta kulturako jardueretarako eta hirigintzako, arkitekturako eta kultura-arloko ondareaz gozatzeko espazio publikoak sustatzea.
5. Birgaitzea eta irisgarritasuna, bizigarritasuna, energia-eraginkortasuna eta kalitate-baldintzak sustatzea etxebizitzetan, eraikinetan oro har, eta hiri-ingurunean.



## **Lurralde-orientabideak**

Hiri-birgaitzearen eta -berroneratzearen eremuan, lurralde-eredua berrikusteko honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira:

1. Urbanizatutako espazioen dentsifikazioari eta zaharkitutako edo narriatutako espazioak birziklatzeari lehentasuna ematea hazkunde berrien aurrean.
2. Lurralde-plan Partzialei dagokienez, hiri-birgaitzeko eta -berroneratzeko lehentasunezko eremuak zehaztea lurralde-ereduan, betiere eremu horietan dentsifikazioko eta espazio libreak edo zuzkidurako espazioak sortzeko esku-hartzeak egitea aurreikusten bada.
3. Hiri-berroneratzeari eta lehendik urbanizatutako edo integratutako espazioa erabiltzeari lehentasuna ematea lurzoru berrien urbanizazioaren aurrean, etxebizitza-premiak edo jarduera ekonomikoen premiak betetzeko.
4. Dentsitate handiagoko hiri-espazioak sortzea, hirigintza-intentsitate handiagoa dutela, eta erabileren aniztasuna eta nahasketa bereizgarri dituztela, honako hauen bitartez: gutxiegi erabilitako hiri-espazioak aprobeztatuta eta dauden hiri-hutsuneak beteta; eraikin-intentsitate txikiko eremuetan dentsitatea areagotuta; eta espazioak berrerabilita hiri-berroneratzeko eta berreraikitzeke ekintzen bitartez.
5. Espazio libreei eta ekipamendu publikoei lehentasuna ematea, baldin eta defizitarioak badira, eraikinik gabeko hiri-hutsuneetan edo eraitsi egin nahi diren zaharkitutako eraikinak dituzten eremuetan.
6. Mugikortasuna eta garraio jasangarria sustatzea honako hauen bitartez: garraioko azpiegiturak eta zerbitzuak hobetuta eta intermodalitatea sustatuta; irisgarritasuna hobetuta; oinezkoen eta txirrindularien sareen konexioetan dauden gabeziak konponduta; erabiltzen ez diren azpiegiturak berreskuratuta; eta informazioaren teknologiak eta garraio adimenduneko sistemak erabilia, energiari dagokionez garraibide eraginkorragoak eta garbiagoak lortzearen.
7. Honako hauek sustatzea: hirigintzako, arkitekturako eta kultura-arloko ondarea berreskuratzea; aisiarako eremu, parke eta lorategiak areagotzea; harremanetarako eta erabilera publikorako espazio berriak sortzea;



ekipamendu komunitarioak areagotzea; eta jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzea erabiltzen ez den ondarea berreskuratuta.

8. Eraikinetan honako hauek sustatzea: etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzak hobetzea; eraikinen eta hiri-ingurunearen barne-irisgarritasuneko baldintzak hobetzea; eraikinen segurtasuneko, estankotasuneko eta osasungarritasuneko baldintzak egokitzea; hutsik dauden etxebizitzaren parkea berreskuratzea; eraikinen inguratzailea egokitzea energia-eraginkortasuna optimizatzearen; eta energia berriztagarrien ekarpena areagotzea, berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak murriztuta.

## 8.2. LURRALDEAREN JASANGARRITASUNA JARDUERA EKONOMIKOEN ERABILERAN

### *Egoera*

Euskal Autonomia Erkidegoak eraldaketarekin, lehiakortasunarekin eta hazkunde ekonomikoarekin lotutako erronkak izango ditu datozen urteotan; erronka horiek gainditzeko, prestakuntza-maila handiko herritarrak eta maila hori sustatzeko erakunde-egitura egokia lortu beharko ditu. Informazioa, jakintza eta berrikuntza-ahalmena dira ekonomia berriaren oinarritzko osagaiak.

Autonomia Erkidegoko 2011. urteko estatistika-informazioaren arabera, sektoreen dedikazioa honako hau da, BPGari dagokionez: Nekazaritza (% 0,8), Zerbitzuak (% 66,90), Industria (% 24,5) eta Eraikuntza (% 7,80). Industria-sektorearen indarrari esker, azken urteotako krisialdi ekonomikoari erantzun hobea eman ahal izan zaio; krisialdiak eragin txikiagoa izan du eraikuntzaren sektorean. Sektorearen araberrako dedikazio ekonomikoari buruzko banaketa estatistikoko hori lurralde-eremura ekarriz gero, UDALPLAN 2014 dokumentuan jasotako informazioaren arabera, gure lurraldearen hiri-azalera 48.738,40 hektarea da; hortik, 19.057,08 hektarea bizitegi-lurzoruari dagokio, 13.935,24 hektarea jarduera ekonomikoetarako lurzoruari, 10.467,46 hektarea azpiegituretarako azalerari, eta 5.278,62 hektarea ekipamenduetarako azalerari. Datu horietan ongi ikusten da jarduera ekonomikorako lurzorua garrantzia handia dela; beraz, tratamendu egokia eman behar zaio.

Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoan parke teknologikoen sare bat ere badago, dela hiru hiriburuetakoko bakoitzaren ingurunean, dela beste lurralde-eremu batzuetan (Debagoiena, Debabarrena...). Arkitektura bereziko espazioak dira, eta teknologia



berritzaileekin eta produktu nahiz zerbitzu aurreratuak egiten jarduten duten enpresak, batik bat, biltzen dira horietan. Alabaina, zenbait kasutan, hiri inguruko inguruneetan eraiki dira eta, horren ondorioz, isolatuta geratu dira; hortaz, parke horien erakargarritasuna eta potentzial berritzailea areagotu egin behar dira, hiriekin eta ingurunea ezagutzeko espazioekin lotuta. Hiri askotan, hirigune historikoak, hiri-espazio tradizionalak eta arkitektura bereziak dituzten espazioak erakargarri bihurtzen ari dira artearekin, sormenarekin eta diseinuarekin lotutako pertsona eta jarduerentzat.

Sormena eta berrikuntza nortasun propioa duten tokietan, bereziki, sortzen dira. EAEn, 69 hirigune historiko ditugu, hirigintza- eta arkitektura-balio handiko hiri-espazioak (Bilboko eta Donostiako zabalgunekak, esaterako), baita kostaldeko eta landa-eremuko nukleo ugari eta eremu erakargarri eta bereziak ere; horiek guztiek egiteko garrantzitsua izan dezakete etapa ekonomiko berrian. Nortasuna duten espazioek eskalako ezaugarri bereziak izaten dituzte, hiri-erakargarritasuna, arkitektura, izaera, lokalizazioa eta zerbitzu eta ekipamenduekiko berehalako sarbidea izateko eta elkarreragiteko aukera, hiri-inguruko garapen berriek ez bezala; eta kalitatezko bizitegi-aukera izaten dira, bizilagun berriak erakartzeko eta kohesionatutako komunitateak eratzeko gaitasun handia dutela, ongizatea eta garapena bermatuta. Bikaintasun-eremuak dira ekonomia berriarentzat eta gizarte berriarentzat, eta azken belaunaldiko azpiegitura digitalarekin bateragarriak dira. Beraz, artea eta teknologia berriak uztartzeak aukera-esparru ezin hobea eskaintzen du.

Azkenik, Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana tresna oso baliagarria izan da merkataritzako eta ekonomiako xedetarako erabiltzen den lurzorua jasangarritasun-irizpideen arabera antolatzeko, baina azkenaldian, Auzitegi Gorenak irizpide ekonomikoen ondoriozko mugak baliogabetzeko epaiak eman dituzenez, Lurralde-plan Sektoriala egoera berri horietara egokitu beharko da, baita azkenaldiko joeretara ere, hala nola, hiri-lurzoru industrialetan merkataritza-azalera txikiak jartzeko joerara, irizpide egokiei jarraiki.

### **Helburuak**

Jarduera ekonomikoen eta merkataritza-ekipamenduen eremuan, eredia berrikusteko helburu hauek proposatzen dira:

1. Lehendik dagoen lurzoru industrialari balioa ematea, hutsik dauden industria-pabilioiak birgaitu eta berrerabiltzea, eta lankidetzaz publiko-pribatuko estrategiak diseinatzea lurzoru industrialen urbanizazioaren kontserbazioa sustatzearen.
2. Lurzoru industrialak dentsifikatzea eta erabilera mistoak sustatzea, jarduera ekonomikoak eta hiri-bizimodua uztartzearen; horrekin batera, lurzoru industrialen dentsifikazioaren alde ere egitea.
3. Goi-mailako teknologekin eta hiri-berrikuntzako eta -berroneratzeko eragiketekin lotutako espazio berriak lotzea, landa-ingurunean sakabanatuta gera daitezen saihesteko, eta jarduera berritzaileen parkeak sortzea, kanpoko konektibitate-nodoekin edo unibertsitate-zentroekin lotuta.
4. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru berrien bereizgarritzat hartuta, hiri-paisaia eta paisaia naturala uztar daitezen defendatzea, garraio publikoaren bidezko konektibitate handia eskaintzea eta mugikortasun-sistema jasangarriak txertatzea.
5. Gure herritarren hiri-bizimodua sustatzea, hiriko merkataritza eta aldirietako merkataritza orekatuta.

### **Lurralde-orientabideak**

Jarduera ekonomikoen eta merkataritza-ekipamenduen eremuan, eredu berrikusteko honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira:

1. Gutxiegiz erabilitako jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren aprobetxamenduari lehentasuna ematea landa-lurralde berrien kolonizazioaren aurrean.
2. Hiria erabileren arabera segmenta dadin saihestea, baita bizitegi-erabilerarekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak kanpoaldeko poligonoetara kanpora daitezen ere.
3. Hainbat solairutako eraikinak egiteko aukera ematen duten jarduera ekonomikoetarako lurzoruak sustatzea.
4. Parke teknologikoetarako espazio berriak hirien barnealdean edo mugaren inguruan kokatutako eremuekin lotzea, proposamen berriak hiri-berrikuntzako eragiketen ondorio direla.



5. Berrikuntzaren espazio berriak sustatzea hirigune historikoetan, aspaldiko industrializazio-eremuetan, landa-eremuko eta nekazaritzako paisaietan eta arkitektura bereziko hiriguneetan.
6. Lurraldearen bikaintasun-osagaiekin eta kanpoko konektibitate-nodo handiekin lotutako eremuak espazio kritikotzat hartzea, jarduera berritzaileak eta talentu eta sormen handiko pertsonak hartzeko potentziala duten aldetik.
7. “Parke Zientifikoak” sor daitezen sustatzea, Euskal Herriko unibertsitate-campusekin lotuta, hezkuntza-arloa enpresa-arloarekin uztartuta, eta espazio multifuntzional eta zainduak izanik.
8. Jarduera ekonomikoetarako lurzoru berriei dagokienez, honako hauek sustatzea: kokagune berezi edo berezietan koka daitezen, inguruko hiri-paisaian eta paisaia naturalean txerta daitezen, garraio kolektiboaren bitartez edo errepidez konektibitate handia izan dezaten, mugikortasun-sistema jasangarriak izan ditzaten, azken belaunaldiko azpiegitura digitala eta telekomunikazioetako zerbitzueta azpiegitura izan dezaten; hirigintza eta arkitektura bioklimatikoko irizpideak txerta ditzaten, energia berriztagarrien erabilera, energia-eraginkortasuneko sistemak, zero emisio kutsatzaile izan ditzaten, eta uraren eta hondakinen kudeaketa eraginkorra; eta espazio publikoen kalitatea susta dezaten eta abar.
9. Hiriko merkataritzaren eta azalera handiekin lotutako aldirietako merkataritzaren arteko oreka bilatzea.

### **8.3. HIRI HAZKUNDEAREN PERIMETROA**

#### ***Egoera***

Indarreko Gidalerroetan finkatutako bizitegi-kuantifikazioari edo Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean zehaztutako dimentsionamendu-irizpideei esker, herrietako hiri-hazkundearen dimentsionamendu-prozesua arrazionalizatu ahal izan da. Alabaina, lurzoruaren dimentsionamenduaren kuantifikazioa egokitu zenez geroztik, prozesua ebatzi gabe dago eta hiri-hazkundearen perimetroaren kontzeptua txertatu behar da. Garapen berrietarako finkatutako muga izan dadin sortu da, eta muga hori zehazteko, udal-garapen egokirako aintzat hartu beharreko zirkunstantzia guzti-guztiak izan behar



dira kontuan. Hiri-hedapeneko prozesuak ahalik eta gehien mugatzea da asmoa, muga fisikoak ezarrita eta lehendik urbanizatuta dauden eremuen birdentsifikazioa eta berrikuntza bultzatuta.

Perimetro horrek garapen berrietarako muga zehatza izan nahi du. Plangintzan zehaztutako lurralde-ereduak baldintzatuko du haren muga, dela xede-aldiko premiei dagokienez, dela lurraldeak dituen harrera-ahalmenari eta mugei dagokienez. Hiri-hedapeneko prozesuak geldiaraztea da asmoa, muga fisikoak ezarrita eta lehendik urbanizatuta dauden eremuak birdentsifikatzeko eta berritzeko ekimenei lehentasuna emanda.

Horretarako, udalerrri bakoitzak, dagozkion Lurralde-plan Partzialen esparruan, lehendik dauden urbanizatutako guneei dagozkien kokalekuak identifikatu behar ditu. Hala, horietako bakoitza inguratzen duen perimetroa ezartzea proposatzen da Ingurune Fisikoaren Antolamenduaren Kategorien arabera, guneei bakoitzeko eremu urbanizatuaren etorkizuneko gehieneko hedadura zehaztuz. Soilik perimetro horren barruan gauzatuko lirateke hiri-bilbea osatzeko eta trinkotzeko programak.

Ildo berari jarraiki, dentsitatea eta zentraltasuna dira eremu berritzaile eta jasangarrietako kontzeptu giltzarriak. Paisaia babesten dute eta baliabide naturalen kudeaketa eraginkorragoa da. Gainera, zuzkiduren, zerbitzuen eta garraio-sistemen funtzionaltasuna hobetzen dute. Horiei esker, eguneroko joan-etorri gutxiago egin behar dira eta aukera gehiago dago elkarreraginerako, gizarte-sareak sortzeko eta biztanleria-talde batzuek eta besteek topo egin dezaten.

### **Helburuak**

Hiri-hazkundearen eremuan, lurralde-eredua berrikusteko honako helburu hauek proposatzen dira:

1. Hiri-hazkundeari mugak jartzea Eremu Funtzionalaren Hiri Hazkundearen Perimetroa (HHP) ezarrita, Lurralde-plan Partzialaren indarraldirako aurreikusitako edo lehendik dagoen hiri-orbana hartu behar duen lurralde-eskalaren zehaztapentzat hartuta.
2. Hiri Hazkundearen Perimetroa epe ertaineko zehaztapentzat finkatzea, hiri-berrikuntzako eta dentsifikazioko estrategietan eragitearren.
3. Hiri Hazkundearen Perimetroa udal-plangintzan zehaztu eta mugatzea.





## **Lurralde-orientabideak**

Hiri-hazkundearen eremuan, lurralde-eredua berrikusteko honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira:

1. Udalerri bakoitzeko gunek identifikatzea Lurralde-plan Partzialetan; horretarako, ezartzen den Hiri Hazkunderako Perimetroa udal-plangintzen bitartez aldatu ahal izango da, eta udal guztien bizitegitarako, jarduera ekonomikorako eta zuzkiduretarako eskariak aintzat hartu beharko dira, baita inplikaturako udal-plangintzek orokorrean egin beharreko lurzoru-eskaintza ere.
2. Hiri Hazkunderako Perimetroa zehaztea egungo hiri-orbanaren morfologia, inguruko lursailen ezaugarri fisikoak eta ekologikoak, eta gunearen hazkunde-itxaropenak aintzat hartuta.
3. Hiri Hazkundearen Perimetrotik kanpo uztea hirigintza-eraldaketa debekatuta duten lursailak.
4. Hiri Hazkundearen Perimetroa finkatzea soilik hiri-lurzoria duten eremuen inguruan.
5. Hiri Hazkundearen Perimetroaren barruan, hirigintza-ekimen berrien xedea izatea garapen berriak alde aurretik dagoen hiri-bilbean txertatzea, hiri-bilbe hori osatuta, lurzoruaren erabilera intentsitate txikiko eremuak dentsifikatuta, eta, hiri-berrikuntzako ekintzen bitartez, okupaziorik gabeko edo erabilera berriak izan ditzaketen espazioak berrerabilita.
6. Garraio-sistema intermodaletarako sarbideen inguruan kokatuta dauden dentsifikazioko, berrikuntzako edo hazkunderako jardunei lehentasuna ematea.

## **8.4. METROPOLIALDEAK ETA ERALDAKETA ARDATZAK**

### **Egoera**

#### **A) Metropolialdeak**

Hiru hiriburuetan eta haien metropoli-inguruneetan EAE osoko biztanleriaren % 72 bizi da. Garrantzi demografiko handia dutenez eta eginkizun garrantzitsuak betetzen dituztenez, hiri-sistemaren elementu erabakigarriak dira. Zerbitzu aurreratuen zentroak



dira, garraio-sistemen kanpo-konexioko eta zentraltasuneko nodo dagozkien eremuetan, eta enpleguaren, berrikuntza-zentroetan eta enpresa-jardueren gehiengoa metatzen dute. Hiru hirigune horietan biltzen da Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren % 71 eta enpleguen % 72. Ildo horri jarraiki, metropoli-espazio horiek izan duten eraldaketa azken hamarkadetako lurralde-fenomeno garrantzitsuenetako bat izan da. Eraldaketa horren ondorioz, espazio nagusien eginkizunak aldatu egin dira, metropolialdeen azalera handitu egin da eta zentraltasun berriak agertu dira.

Hiru hiri horietan, espazio nagusiak berritzeko eta birkualifikatzeko prozesuak eragin erabakigarria izan du hiri-profilen indartzean eta irudiaren hobekuntzan, eta horri esker, eginkizun berriak eta goi-mailako jarduerak hartzeko potentzialaren zati handi bat garatu ahal izan da, azken urteotan EAEko ekonomia indartzeko funtsezko izanik. Berrikuntza-prozesu horiekin, erdiguneetan ez da hirugarren sektorea gailendu; aitzitik, lurzorua eta espazio erakargarriak sortzeko aukerak eragin dituzte, eta aukera horiei esker, batik bat Bilbon, erdiguneen dinamismo demografikoa berreskuratzeaz gain, hirigune biziagoa eta askotarikoa eratu ahal izan da irudiari eta eginkizunei dagokienez.

EAEko hiriburuetako erdiguneen egiteko berri horrekin batera, metropolialdeak asko zabaldu dira, lurraldea okupatzeko eta aldiriak berrantolatzeke modu berriak sortu baitira.

Deszentralizatzeko eta aldiriak berregituratzeko prozesua hiri-garapenaren eragile nagusia izan da. Metropolialdeetan bizi diren EAEko herritarren ehunekoa ez da askorik aldatu azken hamarkadan. Deszentralizazio-prozesu hori bat dator Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan lurraldea berrerekatzeke proposamenekin; horrela, bada, aldiri berriak zabaldu egin dira eta lehen baino konplexuagoak dira: metropoli-espazioen mugak gaintu eta eragin zuzenetik kanpo zeuden eremu funtzionalak eta orain artean landa-eremuak izan direnak ere hartu ditu. Metropoli-inguruneetan bizitegi-hazkunde berriak agertu dira, industria-garapenak, ekipamendu bereziak, enpresa-parkeak eta hirugarren sektoreko konplexuak, merkataritzako eta aisialdiko azalera handiak eta abar. Hori horrela izanik, lurraldea askoz ere zabalagoa eta sortzaileagoa da, lurralde-arloko zentraltasun eta dinamika berriak dituela.

Hiru hiriburuetan hobekuntza garrantzitsuak gertatu dira zuzkiduren aldetik eta funtzionalki; horren ondorioz, lurralde historikoaren barruan zentraltasun handiagoa dute eta metropoli-espazio bakoitzaren hiri-profila indartu da.



## B) Eraldaketa-ardatzak

Bestalde, eremu funtzionaletako hiri garrantzitsuenek, bigarren garrantzitsuenek eta 5.000 biztanletik gorako nukleoan multzoak hiri ertainen multzoa osatzen dute, eta EAEko lurraldean elementu biziki garrantzitsua dira. Hiri horietatik gehienak isurialde atlantikoan kokatzen dira, eta lurralde-antolamenduan funtsezko eginkizuna betetzeaz gain, kokalekuen askotariko eskaintza erakargarria osatzen dute. Udalerri horietan, EAEko biztanleriaren ia % 25 bizi da. Haien dimentsioa, hiri-eginkizunak eta produkzio-espezializazioak direla-eta, lurraldearen orekan eta dinamismoan funtsezko faktore dira.

Hiri horien hazkundera tokiko eremutik aurrera egin zuten industria-ekimenen garapenarekin lotuta dago, eta biztanle asko erakarri zituen garapen-dinamika bat eragin zuten. Hiri-garapenerako lurzoru egoki nahikorik ez dagoen testuinguruan, batik bat, Gipuzkoako haranetan, hiri horiek haran-hondoak okupatzen hasi ziren, hiri-dentsitate handiko hazkunderekin. Haranetako baldintza fisikoek ahalbidetu izan dutenean, hiri-sareek jarraitu egin dute, udal-mugak gaindituta. Baina haranetako gune estuenak ez direnez oso egokiak hirigintzarako, kokalekuen hazkunde linealaren muga izan dira. Hartara, isurialde atlantikoko haranetan eremu koherenteak eratu dira naturaren, paisaiaren eta eginkizunen ikuspegitik begiratuta, baina hirigintza-presio handiaren eraginpean daude. Horrela, bada, eremu askotan haran-hondoek gainezka egiteko gero eta arrisku handiagoa dago, eraikitako jarraitutasunak direla-eta.

Hiri horietan, industria-jarduerak garrantzi handia izan zuten, baina lehengo mendeko 70eko eta 80ko hamarkadetan krisialdia eta birmoldaketa-prozesua iritsi zirelarik, garrantzi hori ahulezia handia izan zen. Hiri horietan guztietan gainbehera-prozesuak izan ziren industria-krisiarekin lotuta, eta biztanleria ere murrizten hasi zen; 90eko hamarkadaren amaierara bitarte iraun zuten joera horrek.

Hiri ertainen protagonismoa berreskuratzea funtsezkoa da. Haien eskalak, lurralde-banaketak eta dinamika ekonomikoek nortasun handiko guneen hiri-eskaintza askotarikoa eskaintzen dute, eta hiri horiek indartuz gero, biztanleria zentro handi gutxi batzuetan metatzearekin lotutako arriskueta asko saihesta daitezke, horrek dakartzan kostu funtzional, sozial eta ekonomikoak aintzat hartuta. Hiri horiek gako-elementuak dira lurralde-oreka lortzeko, askotariko hiri-eskaintzari eusteko eta hiri-garapeneko prozesuak jasangarriak izateko. Hiriburuen Gune Anitzeko Sistemako hirien arteko



funtsezko konexio-elementuak dira, eta hiru probintzietako hiriburuen arteko antolamendurako ere oso lagungarriak dira, zentraltasun-eremu berriak sortzeko aukera eskaintzen dutela. EAEko hiri ertainak lurralde-erreferente dira eta haien inguruan antolatzen dira bizitegi-hazkundeak eta jarduera-espazioak.

Hiri ertainak eta euren lurralde-ingurunea indartzeko, antolatzeko eta garapen jasangarria izateko helburu horiek betetze aldera, Eraldaketa Ardatzak proposatu dira. Eraldaketa-ardatzak lurralde-ardatzak dira, garraio kolektiboaren euskarria dutela, eta hiri ertainen garapen-prozesuak antolatuko dituzte, haien protagonismoa areagotuta jasangarrigtasun-irizpideei jarraiki eta hiriek gainezka egiteko prozesuak saihestuta haran-hondoetako eremu berezietan.

Eraldaketa Ardatzei esker, hiri-garapeneko prozesuak bidera daitezke egitura linealak eratuta, garraio kolektiboaren erabilera ahalbidetzearren, lehendik eraikitako espazioak dentsifikatuta eta eremu berrietan hiri-okupazioa saihestuta. Hiri-pieza guztiei koherentzia eman eta errematatzeko aukera ematen dute, baita hirigintza lausoa mugatzeko, ingurumenaren eta paisaiaren kalitatea hobetzeko, eta dentsitatea, hiri-berrikuntza eta berrikuntza-espazioak sortzea ahalbidetzeko aukera ere. Eremu funtzionalak eta eremu naturalak elkarri lotzeko elementuak dira, eta hiri ertainek metropolialdeen garapen-dinamiketan parte hartzeko duten gaitasuna hobetzen dute.

Eraldaketa Ardatz horiek funtsezkoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Sarean eratutako Zentro anitzeko Eskualde Hiria egituratzeko, hiri-garapeneko prozesu jasangarriak eratzeko, lurraldearen konpartimentazioa saihesteko, eta gure jarduera ekonomikoen dinamizazioko eta berrikuntzako prozesuetarako lurralde-euskarri egokia eskaintzeko.

Eraldaketa Ardatzak lurralde-proiektu integralak dira; eremu naturalak, hiri-espazioak eta azpiegitura-elementuak modu koherentean lantzeko aukera ematen duten proiektu integralak. Eremu libreez osatuta daude; eremu libre horiek eraikitako espazioen mugak finkatzen dituzte eta hirigintzatik babestutako ingurumen-korridore handi moduan eratu dira. Eremu libreez gain, lehendik eraikitako eremuetan eremu urbanizatuak ere badira, eta eremu urbanizatu horietan berrikuntzako eta dentsifikazioko ekimenak garatu behar dira. Bestalde, mugikortasun-korridoreak ere hortxe daude, garraio kolektiboko sistemen eta inpaktu txikieneko joan-etorrietarako (bidegorriak eta oinezkoentzako bideak) sistemen euskarri dira, betiere lehendik dauden azpiegiturak erabilia.



Bakoitzaren ezaugarrien arabera, Eraldaketa Ardatzetan honako gai hauek garatzen dira:

- a) Ardatz Berdeak
- b) Ekobulebarrak
- c) Hiria egituratzeko ardatzak
- d) Garraio kolektiboaren ardatzak
- e) Oinezkoentzako eta txirrindularientzako espazioak
- f) Errepidea zeharkatzeko aukera
- g) Hiri-intentsitatea eta erabilera-nahasketa
- h) Sormen-ardatzak
- i) Hiri-berrikuntzaren ardatzak
- j) Arkitektura eta hirigintza bioklimatikoak

### **Helburuak**

Metropolialdeen eta eraldaketa-ardatzen eremuan, lurralde-eredua berrikusteko honako helburu hauek proposatzen dira:

1. Eraldaketa Ardatzen bitartez hiri-garapenerako prozesuak egituratzea, betiere egitura linealtzat hartuta, garraio kolektiboaren erabilera ahalbidetzarren, lehendik eraikitako espazioak dentsifikatuta eta eremu berrietan hiri-okupazioa saihestuta.
2. Hirigintza lausoa mugatzea, ingurumenaren eta paisaiaren kalitatea hobetzea, eta dentsitatea, hiri-berrikuntza eta berrikuntza-espazioak sortzeko aukera ahalbidetzea lurralde-elementuen arteko antolaketa ahalbidetuko duten Eraldaketa Ardatzen bitartez.
3. Eraldaketa Ardatz horien bitartez hiri-garapenerako egitura jasangarriak eratzea, lurraldearen konpartimentazioa saihestuta eta gure jarduera ekonomikoen dinamizazioko eta berrikuntzako prozesuetarako lurralde-euskarri egokia eskainita.



4. Hiri-intentsitate geroz eta handiagoko espazioak sortzeko aukera ematea, dela bizitegi-dentsitateari dagokionez, dela zerbitzu, erabilera eta jardueren dentsitateari dagokionez.

### **Lurralde-orientabideak**

Metropolialdeen eta eraldaketa-ardatzen eremuan, lurralde-eredua berrikusteko honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira:

1. Eraldaketa Ardatzak eratzeko beharrezkoak diren ekintzak eta antolamendu-irizpideak txertatzea Lurralde-plan Partzialetan, betiere Eraldaketa Ardatzak egitura linealtzat hartuta, garraio kolektiboaren euskarria dutela, espazio libreak zainduta eta hiri-berrikuntzako prozesuak modu eraginkorren antolatuta.
2. Eraldaketa Ardatzetan honako hauek biltzea: hirigintza-erabilerarik gabe izan behar diren espazio libreak, lehendik eraikitako espazioetan dauden hiri-berrikuntzako eremuak, eta garraio kolektiboko sistemetarako euskarri diren elementu linealak.
3. Saihesbideak edo edukiera handiko errepide berriak eraiki direlako edo, hala badagokio, eginkizun berdina bete dezaketen bestelako errepide edo trenbide bidezko azpiegiturak eraiki direlako funtzionaltasuna galdu duten errepide-tarteak berriz diseinatzea; horretarako, tarte horiek ekobulebar bihur daitezke, Eraldaketa Ardatzen hiri-eremuetako bide-euskarri izateko. Hori lortzeko, honako proposamen hauek egin dira: oztopoak ezabatzea, trafikoaren inpaktua murriztea, errepidea zeharkatzeko aukerak areagotzea, eta tarte horien inguruko espazio libreetan eta eraikitako espazioetan ingurumena eta paisaia hobetzea.
4. Eraldaketa Ardatzetako hiri-tarteei lehentasuna ematea hiri-garapen berrietan, betiere garapen horiek eraikitako espazioen berrikuntzan eta dentsifikazioan oinarritzen badira, baita hiri inguruko eremuetan sakabanatutako sareen antolaketan ere; hartara, nukleo tradizionalen hiri-irudia hobetu eta nortasun-ezaugarriak indartuko dira, hazkunde berrien aurrean –urbanizatutako espazioak areagotzea eragingo bailukete–.
5. Eraldaketa Ardatzetan txertatzen diren ibai-ibilguak eta urbazterreko espazioak korridore ekologiko bihurtzea.



6. Soilik garraio kolektiboko sistemetarako izango diren plataformak txertatzea Eraldaketa Ardatzetan, hiri-zentraltasuneko nodotzat joko diren geltokiak dituztela, eta inguruan etxebizitzak, lantokiak, merkataritza-espazioak eta eskari-maila handiko zerbitzuak kokatuta. Erabiltzaileentzako aparkalekuak eta tren-autobus elkartruke-sistemak ere jartzea proposatu da, eta oinezkoentzako eta txirrindularientzako bide garrantzitsuenekin lotuta egotea.
7. Oinezkoentzako eta txirrindularientzako bide bereziak txertatzea Ardatzetan, haien joan-etorriak ahalbidetzearen, eta hiriaz eta paisaiatzat gozatzeko eta mugikortasuneko elementu eroso eta erakargarriak izan daitezkeen; hartara, gure hiri-espazioetako interesgune bihurtuko dira, baita erakartzeko eta kalitatezko elementu ere gure lurralderako.
8. Hirigintzako eta arkitekturako diseinu bioklimatikoaren printzipioak sustatzea, Eraldaketa Ardatzen ingurumen-jasangarritasuneko elementutzat hartuta.

## 8.5. BIZITEGI-KUANTIFIKAZIOA

### **Egoera**

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan udalerrietako plangintzaren bizitegi-kuantifikazioari buruzko irizpideak eskaintzen dira, eta dagozkien eremu funtzionaletan aplikatu beharreko Lurralde-plan Partzialetarako erreferentzia-esparru izan daitezke. Lurralde-plan Partzialen bidez garatu beharreko eta udal-plangintzan zehaztu beharreko bizitegi-kuantifikazioari buruzko irizpideak finkatuta egotearen ondorioz, urte hauetan guztietan onartu diren hirigintza-plangintzetan bizitegiarako lurzoruen ahalmena egokia izan da. Alabaina, bizitegi-kuantifikazio hori aldatzeko garaia iritsi da, gaur egungo egoerara egokitzearen. Gorabeherak izan dira demografian, familien tamaina aldatu egin da, etxebizitza-parkea eta etxebizitzaren erabilera ere aldatu egin dira, eta lurzoruen artifizializazioa ere gertatu da; faktore horien guztien ondorioz jazotako aldaketak direla-eta, Gidalerroak egoera berrira egokitu behar dira bizitegi-kuantifikazioari dagokionez.

Horretaz gain, lurralde-jasangarritasunaren egungo egoeran, eraikitako hirian egindako jarduna gero eta garrantzitsuagoa da birgaitzeko, berronertzeko, berrikuntzako edo



birdentsifikatzeko eragiketei esker; horrela, bada, hutsik dauden etxebizitzak ere aintzat hartu behar dira bizitegi-kuantifikazioan, kargan jartzearen eta hirigintza-plangintzan balioestearren. Aldi berean, indarrean dauden Lurralde Antolamendurako Gidalerroetan proposatutako harrotze-koefizienteak –etxebizitza-premia lurzoruaren eskaintza bihurtzen zuten koefizienteak– gutxitu egin behar dira. Ildo beretik, gai horretan erantzun eguneratua emateko irizpideak xedatzea premiazkoa izaki, berrikuspenarekin batera Gidalerroen aldaketa puntual bat izapidetu da, gai zehatz horri buruz. Nolanahi ere, Lurralde Antolamendurako Gidalerroak berrikusteko prozesu honetan ere aztertuko dugu.

### **Helburuak**

Bizitegi-kuantifikazioaren eremuan, lurralde-eredua berrikusteko honako helburu hauek proposatzen dira:

1. Lurzoruaren artifizializazioa mugatzea bizitegi-erabilerarako baldin bada, zentzuz erabiltzeko eta jasangarritasuneko irizpideei jarraiki.
2. Hirigintza-plangintza berrikustean bizitegi-ahalmena eta bizitegi-premiak kalkulatzeko aukera ematea udalerriei.

### **Lurralde-orientabideak**

Bizitegi-kuantifikazioaren eremuan, lurralde-eredua berrikusteko honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira:

1. Udalerriaren bizitegi-ahalmena finkatzea lehendik dagoen etxebizitza-premiaren osagaiak batuta, eta emaitzari harrotzeko edo maiorazioko koefizientea aplikatuta.
2. Plangintzak bete behar dituen etxebizitza-premiak zehaztea honako hauek aintzat hartuta: bilakaera demografiko gorakorra, familia-tasaren bilakaera edo bigarren etxebizitza; eta premia horiei maiorazio edo harrotze bat aplikatzea.
3. Bizitegi-kuantifikazioari udalerrian hutsik dauden etxebizitzak gehitzea, plangintzak sustatu beharreko bizitegi-ahalmenerako funtsezko faktore diren aldetik.





4. Gehieneko eta gutxieneko bizitegi-ahalmenaren tartea ezartzea, udal-plangintzak aurreikuspena egin ahal izateko.
5. Finkatutako hiriari edo garapen berriei tratamendu desberdina ematea bizitegi-kuantifikazioari dagokionez; hau da, hiri-lurzorua birgaitzeko, berroneratzeko edo birdentsifikatzeko eragiketak onartzea kuantifikazio-irizpideen ondoriozko bizitegi-ahalmena gaindituta.

## 8.6. BIGARREN ETXEBIZITZA ETA BALIABIDE TURISTIKOAK

### *Egoera*

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan aurreikusten zenez, turismoak eta bigarren etxebizitzak gero eta garrantzi handiagoa izango zuten EAEko ekonomiaren eta lurraldearen etorkizunean. EAEko lurralde-elementuak, paisaia naturalak eta hiri-paisaiak askotarikoak izaki, ingurune erakargarrien aukera handia dago. Gure lurraldean ingurumena eta paisaia hobetu dira, eta erakargarri naturalei eta hiri-erakargarriei balioa eman zaie; hartara, baliabide turistiko bihurtu dira. Helburua zera da, lurralde-bikaintasuna Euskal Autonomia Erkidegoaren nortasun-ezaugarrietako bat izatea, bizikaltatearen funtsezko faktore eta jasangarritasun-estrategiaren oinarritzko osagai, lurralde erakargarri eta askotarikoa eratzeko askotariko zerbitzuen eskaintza duela, kalitatezko ingurumen-ingurunea duela eta hiri-espazio bereziak ere badituela.

Bigarren etxebizitzari dagokionez, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan bigarren etxebizitza eta etxebizitza horrekin lotutako jarduera turistikoa aztertu ziren; azterketa horretan ateratako ondorioen arabera, EAEn bi motako eskaintza turistikoa eta bigarren etxebizitzaren eskaintza bereiz daitezke, eta lurraldearen eremu banatan kokatzen dira: alde batetik, batik bat udaldiarekin lotutako turismoa eta bigarren etxebizitza, Autonomia Erkidegoaren barruko eta kanpoko eskariaren nahasketa aldakorra duela eta kalitate-maila garrantzitsua duela, funtsean kostaldearekin lotuta; eta, bestetik, Autonomia Erkidegoaren barruko eskariak garrantzi handia duen turismoa eta bigarren etxebizitza, batik bat Bizkaiko kostaldean eta Arabako Errioxako hainbat udalerritan kokatuta.

Datuen arabera, bigarren etxebizitzaren kopurua jaisten ari da hiru lurralde historikoetan eta, bereziki, Araban. Bigarren etxebizitzaren fenomeno hiri-hazkundearekin lotuta dago, eta kasu askotan, bigarren etxebizitza hori ohiko etxebizitza bihurtzen da



azkenean. Hori gertatu ohi da garraio-azpiegitura hobetzen denean, edo ekipamenduen maila hobetzen denean, edo besterik gabe, eremu horretan enpleguak gora egiten duenean. Horretaz gain, bigarren etxebizitzak askotariko ezaugarriak ditu: Bizkaiko kostaldean dentsitate txikiko urbanizazioak izaten dira, edo Arabako Errioxaren kasuan, hiri-berrikuntzako prozesu batekin lotuta dago. Kasu horietan, eraikin berriak baino gehiago, giro erakargarria duten herriguneetan kokatutako eta berritu behar diren etxebizitza zaharrak dira nagusi eskarian.

Turismo-sektorearen azpiegiturari dagokionez, honako ostatu mota hauetan oinarritzen da: hotelak, landa-ostatuak eta kanpinak. Azkenaldiko datuen arabera, EAEn 970 turismo-ostatu daude; horrek esan nahi du % 17ko igoera izan dela 2009ko datuekin alderatuz gero. Ostatu moten arabera banaketan, % 56,3 hotelak dira, % 41,3 landa-ostatuak eta gainerako % 2,4a kanpinak. Eskaintzan biltzen diren plaza guztien % 87 hotelei dagokie, eta gainerakoa landa-ostatuei (% 13,1).

Lurraldeka, Gipuzkoan dago hotel gehien (% 45,6), baina Bizkaiak biltzen du plazen gehiengoa (% 47,8). 2009-2012 aldian hiru lurralde historikoetan igo da nabarmenki hotel-eskaintza. Badira, hala ere, zenbait desberdintasun lurraldeon jokoerari dagokionez. Bizkaiak, adibidez, plaza sortu-berrien % 53,6 biltzen du, baina Gipuzkoak hotel-establezimendu berrien % 57,8. 2009-2012 aldian asko igo da hotel-establezimenduen kopurua kostaldean eta hiriburuetan (% 55,6 eta % 45,8, hurrenez hurren).

EAEko landa-turismoko ostatuei dagokienez, 2012. urtean 401 dira. 2009tik, kopuru horiek % 8,4 igo dira establezimendu kopuruari dagokionez eta % 12,1 plaza kopuruari dagokionez. Lurraldeen arabera, Gipuzkoan daude establezimendu gehienak (% 44,1). Gainera, lurralde horrek izan du bilakaerarik onena 2009-2012 aldian, plaza berrien ia erdia Gipuzkoan sortu baitira.

Azkenik, kanpinei dagokienez, 2012. urtean 23 kanpin daude. Lurraldeka, Bizkaian daude kanpinen eta eskaintako plazen % 61 eta % 62, hurrenez hurren. Nabarmendu behar da onerako bilakaera arin bat gertatu dela EAEn 2009-2012 aldian establezimendu mota horretan.

Oro har, EAEko baliabide turistikoak askotarikoak eta elkarren osagarri dira. Beste zenbait helmuga turistikok produktu bakarra eskaintzen dute, baina EAEk baliabide erakargarri ugari ditu lurralde mugatu samar batean. Bestalde, ohitura turistikoak aldatu



egin dira eta eskari turistikoaren joera berriak agertu dira merkatuan; hala nola, turismo berdea eta hiri-turismoa, negozio-aukera berriak izanik.

Ildo berari jarraiki, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan zenbait herrigune txiki "Lurraldean Sartzeko Gune" izendatu dira eta, Gidalerroetako beste zenbait eremutan, hainbat neurri finkatu dira gune horietarako; hala nola, hirigune historikoak birgaitzea, bigarren etxebizitza edo zuzkidura espezifikokoak garatzea. "Lurraldean Sartzeko Guneen" bitartez, hiriko alderdiak baliabide naturalekin lotzen dira, eta lurraldean atsedeen-eremurako bokazio eta ingurumen-kalitate handiena duten eremuetatik gertu dauden gune erakargarri txikien sarea ezarri da Gidalerroetan.

1994. urtean, Turismoa antolatzeko 6/1994 Legea onartu zen eta lege horren bitartez baliabide turistikoaren araubidea ezarri zen; baliabideen antolamenduari dagokionez, Lurralde-plan Sektorial baten bidez antolatu behar dela xedatzen da, eta Plan Sektorial hori Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legean zehaztutako lurralde-antolakuntzako tresnetan txertatuko dela. 6/1994 Legearen arabera, Baliabide Turistikoen Lurralde-plan Sektorialean xedatuko dira, jardun eta finantzaketa publikoari dagokienez, lehentasunezko joko diren lurralde edo eskualde turistikoak, eta eskualde bat turistiko izendatu ostean, eskualde horretako Baliabide Turistikoak Antolatzeko Plan Estrategikoa egin behar da.

### **Helburuak**

Bigarren etxebizitzaren eta baliabide turistikoaren eremuan, lurralde-eredua berrikusteko honako helburu hauek proposatzen dira:

1. Bigarren etxebizitzaren garrantzia eta ezaugarriak balioestea lurralde-plangintza partzialean eta udal-plangintzan.
2. Turismoaren sektorea antolatzeko lurralde-plangintza orokorra egitea Lurralde plan-Sektorial baten bitartez, baliabide turistikoak lurralde-jasangarritasunaren ikuspegitik begiratuta baliatuko direla bermatzearen.

### **Lurralde-orientabideak**

Bigarren etxebizitzaren eta baliabide turistikoaren eremuan, lurralde-eredua berrikusteko honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira:



1. Bigarren etxebizitzaren fenomenoak izan baduten udalerrietan plangintza eta, besteak beste, bizitegi-ahalmena egokitzea, bizitegi-kuantifikazioari buruzko zehaztapenei jarraiki.
2. Baliabide Turistikoak Antolatzeko Lurralde-plan Sektoriala egitea eta plan horretan zehaztea zer eskualde –ahal dela– turistikotan egingo den bertako Baliabide Turistikoak Antolatzeko Plan Estrategikoa.
3. Naturaren eta kulturaren aldetik dagoen potentziala modu jasangarrian garatzea.
4. Sektorekako azpiegitura baliabidearen potentzialtasunera egokitzea lurralde-jasangarritasuneko irizpideei jarraiki.

## 8.7. PLANGINTZEN BATERAGARRITASUNA

### **Egoera**

Hirigintza-bateragarritasuna zera da, udalerrietako plangintza orokorraren tresnak behar bezala koordinatzeko finkatu diren mekanismoen multzoa. Egiturazkoa da, eta mugakide diren udalerrietako eremuak harmonizatzeko balio du, behar izanez gero. EAEko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legean jada xedatu zen lurralde-antolakuntzako tresnak lurzoru-araubideari buruzko legedian aurreikusitako plangintza orokorraren eta plangintza bereziaren figuren bitartez garatu behar direla, eta plangintza horietan jasotako zehaztapenak bete beharko dituztela.

Bestalde, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean Plangintza Orokorreko Bateragarritze Planaren figura biltzen da egiturazko antolamenduko planei dagokienez, udalerrri bat baino gehiagoren mugako inguruetan, hirigintza-garapenaren ezaugarriak eta beharrak direla-eta, beharrezkoa baldin bada tartean diren plan orokorren egituren antolamendua koordinatzea eta lan hori egingo duen lurralde-antolamenduko tresnarik ez baldin badago, eragindako udalek bateragarritze-plan bat egiteko akordioa har dezakete. Era berean, 2/2006 Legean Plangintza Orokorreko Bateragarritze Planen gutxienezko edukia xedatzen da, baita planak izapidetzeko eta onartzeko prozedura ere.

Hala ere, Lege hori mugakide diren udalerrien artean sor daitezkeen gatazkak konpontzera bideratuta dagoela esan dezakegu; ez da plangintza lantzeko beste modu bat, eraginpeko udalerririk koordinatuta. Orain, bateragarri egite hori tresna bat edo



tresna multzo bat dela ikusarazi behar dugu, lurralde-plangintzan proposatu diren udalerriaz gaindiko erronkei aurre egiteko beharrezkoa den harmonizazio hori lortzeko baliagarri administrazio-mugak alde batera utzita. Herritarrei eremu horietan bizitzea aukeratzat –ez eragozpenzat– hartzen lagunduko dien faktore oro txertatu nahi da, beste udalerrri bat eta bertako azpiegitura, ekipamendu edo zerbitzuak hain gertu izateak dakartzan onurak baliatu ahal izan ditzaten, administrazio-oztopoen zurruntasuna pairatu behar izan ordez.

Indarrean dauden Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan, plangintza integratua behar duten hainbat udalerrri multzo identifikatu dira, baita mugakide diren edo lotuta dauden udalerrietako plangintza modu koordinatuan idatzi eta garatuko dela bermatzeko mekanismoak finkatzeko premia duten egoera guztiak ere. Aldi berean, bateragarri egiteko sistema alternatiboak eta bateragarri egin beharreko elementuak zeintzuk diren ere zehaztu da Gidalerroetan.

Plangintzak bateragarri eginda, udal-mugarateak alde batera utzi eta eremu integratu horiek batera hartuta kudeatu ahal izan dira, eta berrikuspen hau eragin duten alderdi guztiak aintzat hartuta, beste hainbat gai aztertzea ere komeni da; hala nola, bateragarri egin daitezkeen beste udalerrri multzo batzuk eta txertatzeko modukoak diren bateragarri egiteko sistema alternatibo berriak identifikatzea. Bateragarri egin daitezkeen beste udalerrri multzo batzuk identifikatzeari dagokionez, udal-plangintzak bateragarri egiteko mekanismoak Autonomia Erkidegoko zein udalerrri multzotan aplikatuko diren identifikatzen da indarrean dauden Gidalerroetan. Hala ere, lurralde-berezitasun estrategikoak aintzat hartuta, eremu horiek proposatzeko tokirik egokiena Lurralde-plan Partzialak direla uste dugu.

### **Helburuak**

1. Mugakide diren udalerrietako udalaz gaindiko erronkei erantzun egokia ematea.
2. Herritarrek eremu mugakide horiek aukera-eremutzat har ditzaten sustatzea, pertzepzio positiboa izan dezaten.



## **Lurralde-orientabideak**

1. Bateragarri egiteko sistema alternatibo berriak txertatzea udalaz gaindiko kudeaketa-eremuak zehaztu ahal izateko, eta hirigintza-antolamendurako zehaztapenak ere zehaztea, udalaz gaindiko egiturazko jardunak ahalbidetu eta koordinatu edo harmonizatu ahal izan daitezen, lurraldearen orekan eragina izango duen eredu jakin bat ezarri eta erabilerak zehazteko.
2. Lurralde-plangintza partzialean udalaz gaindiko eremu estrategikoak zehazteko aukera izatea zehaztapenak garatu ahal izateko, dela Bateragarritze Plan baten bitartez –lurzoruari eta azpiegiturei buruzko politikak garatu beharreko kasuetan–, dela Antolamendu Integraleko Plan Bereziaren bitartez –azpiegiturak koordinatu beharreko kasuetan–.



## 9. KAPITULUA

### 9. MUGIKORTASUN JASANGARRIA

LAGek barne-loturako eta kanpo-loturako erlazio- eta azpiegitura-sistema bat ezarri zuten, eta azken urteotan lurralde-plan partzialen eta sektorialen bidez eta proiektu espezifikoaren bidez garatu da. Horren guztiaren ondorioz, asko hobetu dira azpiegiturak eta garraio- eta komunikazio-zerbitzuak. Mugikortasun-eskaria gero eta handiagoa da, eta kanpoarekiko konektibitatea eta barneko loturen eraginkortasun handia ezinbestekoak dira lehiakortasunerako, berrikuntza-potentzial handia dela-eta, batez ere.

Urte hauetan guztietan, diziplinaren arloko funtsezko aldaketak izan dira gai honetan. Lehen garraio- eta komunikazio-sistemez jarduten zen, eta, orain, berriz, mugikortasunaz eta, zehazki, mugikortasun jasangarriaz. Izan ere, mugikortasun jasangarriak balioa ematen dio oinez ibiltzeari, bizikletaz ibiltzeari eta garraio publikoari, ibilgailu pribatuaren ordez, eta sustatu egiten ditu garraio mota horiek. Horrez gain, zenbait alderdi biltzen ditu:

- a) mugikortasun orokorrean garraio kolektiboko sistemen garrantzia handitzea;
- b) intermodalitatea erraztea;
- c) lotura estuagoa lortzea hiri-garapeneko prozesuen eta azpiegitura- eta garraio-sistemen artean;
- d) pertsonen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzea, CO<sub>2</sub>-ren emisioa murriztuz eta mugikortasun aktiboa handituz.

Eta nondik sortzen da mugikortasun jasangarria? Inpaktu txikiagoko garraio moduak errazten dituzten hiri-egiturak eta haiek posible egiten dituzten azpiegiturak eta zerbitzuak eskura izatearen elkarrekintzatik.

Berrikuspen honetan, hiri-eremuari buruzko kapituluan adierazten den bezala, garrantzi berezia ematen zaio lurralde-garapenari eta mugikortasun jasangarria lortzeko helburua duten ekimenei: garapen berriak hazkunde lineal moduan planteatzea, garraio kolektiboko sistemak dituzten hiri-korridoreetan zehar; ekobulebarrak sortzea, garraio kolektiborako eta oinezkoentzako eta bizikletentzako soilik diren plataformak dituztenak; lotura intermodaleko proiektuak egitea; trenbide bidezko garraio-sistema



eraginkorra eta elkarlotua garatzea; eta, azkenik, garraio jasangarri modu berriak sustatzea eremu berezietan, alde zaharretan eta naturaguneetan, bereziki.

Horrenbestez, kapitulu honek honako puntu hauek ditu:

1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna.
2. Bide-mugikortasuna.
3. Trenbide-, portu- eta aireportu-mugikortasuna.
4. Mugikortasun kolektibo multimodala.
5. Eredu logistikoa.

## 9.1. OINEZKOEN ETA BIZIKLETEN MUGIKORTASUNA

### **Egoera**

Oinez mugitzea pertsonen mugikortasun modu naturala da, eta, horren haritik, hiria eta lurraldea mugitzeko modu hori egoki gauzatu ahal izateko moduan egokitu behar dira, oinez segurtasunez eta modu erakargarrian ibiltzeko egokitu behar dira. Bizikleta leku eta protagonismo handiagoa lortzen ari da, beste garraio mota batzuen aldean, eta tokiko eremuan bereziki. Izan ere, garraiobide biguna da, ingurumenaren aldetik jasangarria, energia efizientziaz erabiltzen du, osasuntsua da eta berdintasuna sustatzen du. Alderdi horretatik, funtsezkoa da behar bezala planifikatutako, egindako, mantendutako eta babestutako hiriarteko sare bat izatea bizikletentzat eta oinezkoentzat, EAEko biztanleria-gune nagusiak artikulatzeko.

Oinezkoen mugikortasunari dagokionez, hainbat bide historiko daude, merkataritza-bide moduan eta pertsonen lekualdatzeetarako erabiltzen zirenak. Hauek dira bide aipagarrienak historiaren eta kulturaren aldetik garrantzitsuak baitira eta EAEko lurraldea egituratzeko ahalmena baitute: Donejakue bidea, Inaziotar bidea, Bidezidor historikoa, Ardo eta Arrain bidea, eta Itsas ibilbidea.

Bizikleta-mugikortasunari dagokionez, azpimarratu behar da Amsterdameko Adierazpenean, 2000. urteko ekainekoan, bizikleta garraiobide moduan erabiltzeak pertsoneri, gizarteari eta ingurumenari dakarzkion abantailak nabarmentzen direla. Besteak beste, adierazten du garraiobide azkarra eta eraginkorra dela; pertsonen osasuna hobetzen duela; hirietako zirkulazioa hobetzen duela; tokiko ekonomiaren garapena





sustatzen duela; eta herritarren bizileku den ingurunea hobetzen duela. Adierazpen horretan bizikletaren erabilera sustatzeko zenbait baldintza unibertsal ezartzen dira: etxebizitza-dentsitate txikia ez izaten ahalegintzea eta lurraren erabilera mistoa sustatzea; bizikletari beste garraiobide batzuei ematen zaien balio bera ematea; azpiegiturak abiadura-desberdintasunak eragozpenik ez sortzeko moduan diseinatzea; bide-heziketa egokia ematea; eta haurrei bizikletaz autonomiaz ibiltzeko aukera ematea.

EAEEn, lurralde historiko bakoitzak bizikleta-bideei buruzko bere foru-araua dauka (horrek bizikleta-bidearen kontzeptuari izaera juridikoa ematen dio, eta, horrenbestez, motorrik gabeko mugikortasuna garatzeko bide-azpiegitura mota berri bat da) eta araua garatzeko lurralde plan-sektorial bat idatzi edo izapidetu du.

Egokitzen jotzen da bizikleta-mugikortasuneko ardatz batzuk planteatzea, EAEko lurraldeko guneak egituratzeko, bai elkarrekin, bai eta mugakide diren lurraldeetako guneekin ere. Horren haritik, bizikleta-mugikortasunaren bi potentzialak azpimarratu behar dira: bata, aisiari eta olgetari lotutakoa, eta bestea, eguneroko garraioari edo mugikortasunari lotutakoa.

Trenbide-trazatu zaharrak, gehienak utzita daudenak eta batzuk gaur egun bide berde bihurtuta, kontuan hartu beharko lirateke sare egituratzaile hori osatuko duten oinezkoentzako eta bizikletentzako ardatzak diseinatzean.

Horrez gain, kontuan izan beharko da bizikleta elektrikoak garraiobide moduan erabiltzeko duen ahalmena.

### **Helburuak**

Oinezkoen eta bizikleten mugikortasunaren arloan, honako helburu hauek proposatzen dira lurralde-ereduaren berrikusketan:

1. EAEko lurraldea egituratzea, oinezkoentzako eta bizikletentzako azpiegituren EAEko sarea eratuz, hiriarteko eta eskualdearteko motorrik gabeko mugikortasuna garatzeko. Horrekin, barne-ibilbideak eta mugakide diren eskualdeekiko loturak finkatuko dira.



2. EAEko zatian, Donejakue bidea finkatzea, lurraldea egituratzeko duen ahalmenagatik; eta, orobat, EAE zeharkatzen duten Inaziotar bidea, Itsas ibilbidea (eta haren jarraipena Frantziatik eta Kantabriatik), Ardo eta Arrain bidea, eta Bidezidor historikoa sustatzea.
3. Bizikletaren erabilera garraio bide publiko moduan sustatzea, egunero erabil daitezkeen laguntza eta garraio moduen gaur egungo banaketan eragitea, sare seguru, eroso eta konektatu bat oinarri hartuta.
4. Irizpideak zehaztea bizikleta-sareak udal-plangintzekin bat igaro ditzan udalerririk.

### **Lurralde-orientabideak**

Oinezkoen eta bizikleten mugikortasunaren arloan, honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira lurralde-ereduaren berrikusketan:

1. Herritarren ikuspegitik seguru den sare bat sortzea; koherentea, jarraitua eta etenik gabea, eta ulertzeko erraza; zuzena, bide laburrenak bilatuz, bizikletaren erabilera sustatzeko; erakargarria eta muturreko klima-baldintzetatik babestua eta inguruneari egokituia; eskuragarria eta eroso, malda handiegirik gabea eta trafikoko motordunarekin nahasten ez dena.
2. Bizikleta beste garraio bide batzuen aldean lehenestea, abantailak baititu, garraio bide azkarra baita eta hiriak hobetzeko ahalmen handia baitu.
3. Lurralde- eta hiri-plangintzan bizikletaren erabilera kontuan hartzea — bizikleta elektrikoa barne—, aparkalekuetarako eta kargatze-puntuetarako.
4. Ongi zehaztea bizikleta-bideak eta bide historikoetako ibilbideak, eta herritarren artean zabaltzen ahalegintzea.
5. EAE mailako bizikleta-sare bat zehaztea, hiru lurralde historikoak elkarrekin eta mugakide diren eskualdeekin lotzeko.
6. Lurralde- eta hirigintza-plangintzan, Donejakue bidea sartzeko, lurraldea egituratzeko duen ahalmenagatik, bai eta EAE zeharkatzen duten Inaziotar bidea, Itsas ibilbidea (eta haren jarraipena Frantziatik eta Kantabriatik), Ardo eta Arrain bidea, eta Bidezidor historikoa.
7. Lurralde- eta hirigintza-plangintzan oinezkoen mugikortasuna egoki garatu eta egituratu dadin sustatzea, bai eremu funtzional mailan bai tokiko mailan.



## 9.2. BIDE-MUGIKORTASUNA

### *Egoera*

Indarrean dauden LAGekin ez zegoen errepide-plan berri bat idazteko asmorik; aitzitik, helburu zen eredia eratzeko garrantzitsuak jotzen ziren loturak iradokitzen ziren. Egiten ziren aipamenen helburua zen erreferentzia izatea EAEko Errepideen Plan Orokorren edo lurralde historikoetako foru-aldundiek idatzitako lurralde-plan sektorialen etorkizuneko berrikuspenak idazteko.

Kontzeptuzko ikuspegi batetik, ereduaren egituratzaileak ziren loturak soilik adierazten ziren, eta esaten zen ezarritako bide-tipologiak ez zuela zertan bat etorri bideen diseinuarekin. Izan ere, haien trazatua eta sekzioa dagokion Errepide Plan Orokorrek zehaztuko zuen. Honako tipologia hauek ezartzen ziren bide loturetarako: a) EAEko hiriburuen sistema polinuklearraren kanpoko loturak; b) EAEko hiriburuen sistema polinuklearraren barneko loturak; c) Eskualde-egituretako burutzen loturak; eta d) paisaia-intereseko kostaldeko ibilbideak.

LAGak behin betiko onartu zirenetik, asko garatu dira arlo honetan, EAEko Errepideen Plan Orokorren, lurralde historikoetako foru-aldundiek idatzitako lurralde-plan sektorialen edo lurralde-plan partzialen bidez. Esan daiteke LAGak arlo honetaz duen ikuskera oso egokia izan dela, ongi definitu baitu errepideetan eskumena duten administrazioek garatu beharreko eredia, bai trazatuari eta funtzionaltasunari dagokionez, baita egiteko denbora-epeei dagokienez ere. Horren haritik, ontzat hartzen da indarrean dauden LAGek bide-mugikortasunaren diseinurako lurralde-eredua.

Urte hauetan zehar egindako lanari esker, “EAEko hiriburuen sistema polinuklearraren kanpoko loturak” eta “EAEko hiriburuen sistema polinuklearraren barneko loturak” ia guztiz finkatuta eta eginda daudela jo daiteke. “Eskualde-egituretako burutzen loturei” dagokienez, errepideen lurralde-plan partzialek eta sektorialek ongi garatu dute gaia.

Horretatik harago, mugikortasunaren ikuskera integratu batetik, errepideen arloko funtsezko eginkizuna da beste garraio bide batzuekin integratzea, eta, horrenbestez, zer aurrekontu-muga dauden ikusita, lehentasunak ezarri beharko dira azpiegituretako inbertsioetan, azpiegiturek mugikortasun jasangarriko sistema integratu baten baitan sartuta. Horren guztiaren azpian ideia bat dago: trazatu batzuk egokitu beharra, beste



batzuk hobetu beharra, herri baten saihesbideren bat egin beharra eta ezinbestekoak diren mantentze-lanak gorabehera, EAEko errepide-mapa ia osorik amaituta dago. Horren haritik, bide-azpiegitura garrantzitsuak egin zireneko garaia igarota, ekonomia-jasangarritasuneko une hauetan, eginda dagoen bide-sarearen mantentze-lanetan jarri behar da arreta, sare berriak egin beharrean.

### **Helburuak**

Bide-mugikortasunaren arloan, lurralde-eredua berrikusteko honako helburu hauek proposatzen dira:

1. Mugikortasun jasangarriko testuinguru integratu baten baitan, garraibide bakoitzari dagokion eginkizun espezifikoa zehaztea eta, bereziki, bide-sistemari dagokiona.
2. EAEko errepide-mapa ia osorik amaituta dagoela jotzea, foru-aldundien lurralde-plan partzialetan edo lurralde-plan sektorialetan garatu beharreko proposamen zehatz batzuk gorabehera. Dena dela, bide-azpiegitura Europan zeharreko azpiegitura denez, mota horretako azpiegiturei dagokien kudeaketa izan beharko du.
3. Aurrekontu-aurreikuspenetan, lehentasuna ematea egun dauden azpiegituren mantentze-lanei azpiegitura berriak egitearen aurrean.
4. Salgaien distantzia luzeetarako errepide bidezko garraioaren egoera gero eta jasanezinagoa denez, horri erantzun integratua ematea.

### **Lurralde-orientabideak**

Bide-mugikortasunari dagokionez, proposatzen den lurralde-orientabidea indarrean dauden LAGek ezarritako bide-sistemaren antolamendua berrestea da. Honela egituratzen dira bide-loturak:

- EAEko hiriburuen sistema polinuklearraren kanpoko loturak.
- EAEko hiriburuen sistema polinuklearraren barneko loturak.
- Eskualde-egituretako burutzen loturak.
- Paisaia-intereseko kostaldeko ibilbideak.



### 9.3. TRENBIDE-, PORTU-, ETA AIREPORTU-MUGIKORTASUNA

#### **Egoera**

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen garapen moduan, otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuak behin betiko onartu zuen EAEko eremuan Trenbide Sarearen Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana. Eta otsailaren 22ko 34/2005 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planaren barruan Bilboko metropoliko eta zenbait udalerritako trenbidearen antolamenduari buruzko aldaketa behin betiko onartu zuen.

Agiri horren helburua zen plangintza-tresna eta arautze-tresna izatea trenbide-arloko esku-hartzeetarako eta hirigintzako esku-hartzeetarako. Lurralde-plangintza horretan oinarrituta, hirigintza-plangintzan txertatu dira gerora egiten ari diren trenbide-azpiegiturei buruzko xedapenak, eta fase aurreratuetan eman behar izan zaie konponbidea sektore horren eta hirigintzaren artean sortu diren kontraesanei, abiadura handiko trenaren lineari dagokionez, batez ere.

Eta antzekoa gertatzen da metropoli-inguruetakoa trenbide-lineei dagokienez ere. LAGek Periferiako Trenen Zerbitzuko Oinarrizko Ardatzei buruz ezarritakoa asko garatu da Bilboko metropoliko metro-lineen eta Donostialdea-Bidasoa Beheko metroaren (Topoa) azpiegitura eguneratuz, bai eta ADIFek, ETSk edo zabalera metrikoak gainerako lineetan egindako hobekuntzen bidez ere.

Portuei dagokienez, indarrean dauden LAGak irizpidea izan dira Bilboko portuaren garapenerako, eta Pasaia lehen mailako merkataritza-portu moduan finkatzeko, baita gainerako portuetan (Bermeo, Ondarroa, Getaria eta Hondarribian, bereziki) arrantza-jarduera sustatzeko ere.

Aireportuei dagokienez, oraindik orain ere balioa du “EAEko Aireportu Sistema” kontzeptuak eta EAEko aireportuak osagarritasun- eta espezializazio-irizpidez antolatu beharrak, ikuspegi global batez eta inguruneke aireportuekin integratuta.

#### **Helburuak**

1. Abiadura handiko trenbide bidezko Europa barneko sarea sustatzea.

2. Trenbide-mugikortasunak sistema global integratu batean, mugikortasun jasangarrian eta EAERena bezalako dentsitate handiko hiri-egitura batean duen eginkizun nagusia finkatzea.
3. EAEko portu-sistema eta itsasoko salgaien garraioa sendotzea.
4. EAEko Aireportu Sistema sustatu eta haren ahalmenak optimizatzea.

### **Lurralde-orientabideak**

Trenbide-mugikortasunaren arloan, lurralde-eredua berrikusteko honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira:

1. Abiadura handiko trenbidearekin lotzea EAEko hiri nagusiak eta EAE sarean dagoen lurralde polizentriko moduan egituratzea, eta AHTaren geltokiak metropolietako eta periferietako garraio-sistemekin ongi lotzea. Horrez gain, EAE abiadura handiko trenbidez konektatzea mugakide dituen lurraldeekin, eta babes handiagoa ematea gure lurraldeko zerbitzu aurreratuei eta maila handieneko azpiegiturei, Nafarroarekin eta Ebro haranarekin eta mesetarekin dituen loturen bidez, eta Kantauri itsasoko ertzarekin eta Frantzia hegoaldearekin etorkizunean izango dituen loturen bidez.
2. Abiadura handiko trenen geltokiak gure hiriburuetakoko bikaintasun-elementu nagusiekin lotzea, eta irisgarritasun handiko metropoli- eta eskualde-eremuetan kokatu eta hiri-eraldaketako eta -berritzeko eragiketen esparruan sartzea, azpiegitura horri lotutako eginkizun zentralak har ditzan.
3. Abiadura handiko trenen geltokiak intermodalitateko nodo handi moduan egitea, abiadura handiko trenaren bidez kanpoaldearekin eta probintzia-hiriburuekin lotzeko aukera izateaz gain, haietan biltzeko lotura-azpiegitura guztiak eta etorkizunean garrantzia handiagoa izango duten zerbitzuak, esaterako: aparkalekuak, auto-alokairuak, turismo-informazioko zerbitzuak, hotelak, taxi-geltokiak, metroa, tranbia eta periferietako trena.
4. Tren-geltokiak garraiobide hori erabil dadin errazteko eta sustatzeko funtsezko elementu gisa eraikitzea, baita lurraldean zentralitate-eremu berriak sortzeko elementu gisa ere. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da irisgarritasun-elementuak eta aparkalekuak edukitzea erabiltzaileentzat, ahal den guztietan tren-geltokiak garraio kolektiboko beste zerbitzu batzuekin lotzea, eta ingurunean eskari handiko ekipamenduak jartzea. Hiri-garapeneko



prozesuek garraio kolektiboko sistemak eta lurraren erabilera bat etortzen ahalegindu beharko lukete, eta garraio kolektibora iristeko nodoen inguruneetan dentsitate handiagoak izateko baimena eman.

5. Trenbide-sistemetan oinarritutako mugikortasun-sistema jasangarriak garatzeko baldintza egokiak sustatzea, kontuan izanda EAEn biztanleria-dentsitate handia, hiri-gune handietan eta ardatz linealetan bildua.

Portuen arloan, lurralde-eredua berrikusteko honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira:

1. Bilboko portua eta Pasaiaiko portua merkataritza-portu nagusi moduan sustatzea, eta nazioarteko zabalerako sarbide berrien bidezko konektibitatea sustatzea eta espazio logistiko lehiakorrekiko lotura, eta portuaren eta hiriaren arteko elkarrekintza erraztea, portu-espazioetan erabilera mistoak bateragarri egiteko irizpidea ezarriz.
2. Arrantza-jarduera sustatzea, batez ere, Ondarroa, Getaria, Hondarribia eta Bermeoko portuetan, eta azken honetan, merkataritza-jarduerak ere egitea. EAEko kostaldean dauden gainerako arrantza-portuak oso azpiegitura baliotsuak dira, hiri-espazioen erdi-erdian kokatuta daude, hiri eta herri askori beren eskaintza bereizteko aukera ematen die, eta espazio turistikoa moduan, bizitegi moduan eta jarduera ekonomiko berrietarako espazio moduan duten erakargarritasuna handitzen dute.

Aireportuen arloan, lurralde-eredua berrikusteko honako helburu hauek proposatzen dira:

1. EAEko hiru aireportuetako bakoitzaren espezializazioan oinarritzen den aireportu-sistema bat sustatzea.
2. EAEko hiru aireportuetako bakoitzaren ezaugarri positiboak optimizatzea.



## 9.4. MUGIKORTASUN KOLEKTIBO MULTIMODALA

### **Egoera**

Autonomia-erkidegoko administrazioak lan handia egiten ari dira garraiobide jasangarri moduan garraio publikoaren erabilera sustatzen, eta diru asko erabiltzen dute horretarako.

Autonomia-erkidegoko administrazioek herritarren zerbitzura jartzen dituzten garraiobideen erabilera hobezina izan dadin, ezinbestekoa da lan koordinatua eta elkarlana, garraio publikoko zerbitzuak EAE osorako interoperatibitatea izan dezan, txartel bakarrarekin erabili ahal izan dadin, eta erabiltzaile guztientzat fisikoki eta ekonomikoki eskuragarria, azkarra eta segurua izan dadin.

Horrez gain, erronka moduan hartzen da klima-aldaketaren aurkako borroka, berotegi-efektuko gasen emisioa asko jaitsiko duen garraio publiko kolektiboa ezarritik, garraiobide garbiak erabiliz, autobus eta bizikleta elektrikoak, esate baterako.

Horretarako, erakundeen arteko eta garraiobideen arteko koordinazioa sustatuko duten ikuspegi berritzaileak behar dira. Horren haritik, funtsezko eginkizuna dute garraioaren arloko agintariek, Euskadiko Garraio Agintaritzak eta lurralde historiko bakoitzeko dagokion erakundeek, erakundeen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako organoak diren heinean, bereziki.

### **Helburuak**

1. Garraio publikoaren erabilera sustatzea.
2. Garraio publikoaren bidez irisgarritasun integrala erraztea.
3. Berotegi-efektuko gasen emisioa murrizten laguntzea, garraiobide publiko garbiak erabiliz.

### **Lurralde-orientabideak**

Errepide bidezko garraio publikoaren arloan, honako lurralde-eredua berrikusteko helburu hauek proposatzen dira:





1. Garraiobide publiko motak uztartu daitezen sustatzea, mugikortasunaren kudeaketa integraleko ereduak osatzeko, EA Eren lurralde osoa irisgarria izan dadin.
2. Garraiobide publiko garbiak erabil daitezen sustatzea; esaterako, tren, tranbia, autobus elektrikoak eta bizikleta elektrikoak.
3. Ibilbide paraleloa duten garraiobide publikoen arteko lehiarik izan ez dadin ahalegintzea, eta garraio publikoa hobetzen duten konbinazio multimodalak bilatzea.
4. Lurralde-plangintzan eta hirigintza-plangintzan, garraiobide guztiak uztartzen dituen garraio publiko intermodaleko sistema integralak lantzea, eta arreta berezia jartzea garraiobide garbiei eta hiri-autobusen lehentasuneko zirkulazioko lineei; esaterako BRTak (Bus Rapid Transit).
5. Autobus-geltokiak intermodalitate-irizpideak kontuan hartuta egingo dira eta periferiako tren-geltokiekin eta garraio-sareko sarbide-nodo nagusiekin integratuko dira, esaterako, aireportuekin eta abiadura handiko trenen geltokiekin. Horrez gain, Eraldaketa Ardatzetako ekobulebarren diseinuan autobusak ibiltzeko erreserbatutako plataformak txertatuko dira.
6. Landa-eremuetan eta biztanle-dentsitate txikiko eremuetan eremu horietako baldintzetara egokitutako garraio kolektiboko zerbitzuak ezarriko dira.

## 9.5. EREDU LOGISTIKOA

### ***Egoera***

EA Eren kokapen geografikoa dela eta, azpiegituren ardatz transnazionalak ezinbestean zeharkatu behar dute. Arku Atlantikoaren barruan duen kokapena nabarmendu behar da: funtsezko gunea eta intermodalitate-gunea da ardatz atlantikoan. Halaber, Mesetatik Europarako bidean nahitaezko pasabide da eta hainbat autonomia-erkidegorentzat eta Portugalentzat Europar Batasunera iristeko sarbide ere bai.

Euskal Autonomia Erkidegoa Europar Batasunaren Garraio Sarearen barruan dago; beraz, ezinbestekoa da salgaiak garraiatzeko premia horri aurre egiteko azpiegiturak prestatuko dituzten politikak aktibatzea.



Horrez gain, ongi garatutako garraio-azpiegituren sarea du (trenbideak, bide-azpiegiturak, portu-azpiegiturak eta karga-aireportuak), eta Euskal Trenbide Sare berria erantsi behar zaio. Izan ere, azken horrek errotik aldatuko du garraio-sistema globalaren egitura. Euskal Trenbide Sare berria mistoa da, pertsonak eta salgaiak garraiatzekoa, eta salgaiak Europatik ekartzeko eta Europara eramateko ahalmen handiko azpiegitura da.

Horrez gain, beharrezkotzat jotzen da gaur egun eginda dauden plataforma logistikoetan egindako inbertsioei balioa eman eta haiek optimizatzea, bai ekonomia- eta gizarte-errentagarritasunaren aldetik, bai eta lurraldearen aldetik ere, lurraren artizialtzean duten inpaktua dela eta.

### **Lurralde mailako helburuak:**

Logistikaren arloan, lurralde-eredua berrikusteko honako helburu hauek proposatzen dira:

1. EAE salgaien nazioarteko garraiorako nodo logistikoa bihurtzeko erronkari aurre egitea, eta plataforma logistikoen sare bat osatzea.
2. Jundiz-Foronda, Arasur eta Lezo-Gaintxurizketa plataforma logistikoek Europar Batasunaren garraio-sarean duten kokapen estrategikoa agerian jartzea, multimodalitaterako aukera handiak eskaintzen dituzte eta.
3. Eginda dauden eta eskura dauden azpiegitura logistikoak optimizatzea.

### **Lurralde-orientabideak**

Logistikaren arloan arloan, lurralde-eredua berrikusteko honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira:

1. Jundiz-Forondako plataforma logistikoa sustatzea, honako honengatik: a) Euskal Trenbide Sare berriaren eta zabalera iberikoko sarearen arteko tren-aldaketa intermodala egiteko gunea baita; b) EAEko portuen eta haien hinterlanden zirkulazioa hobetzen baitu; c) trenbide-garraio jasangarriarekiko bateragarritasuna bermatzen baitu; d) errepide bidezko garraioa trenbidera aldatzeko aukera ematen baitu; eta e) Gasteiz-Forondako aireportutik hurbil baitago, eta trenbidearen, errepidearen eta aireko garraioaren arteko intermodalitaterako kokapen pribilegiatua ematen baitio.



2. Arasurreko plataforma logistikoa sustatzea kokapen estrategikoa baitu Iberiar penintsulako industria-gune garrantzitsuenetako baten bihotzean, eta honako honengatik: a) trenbide-lotune intramodala baita, Bilbora doan trenbidearen, Irun-Paris trenbidearen eta Ebroko haraneko korridorearen artean; b) EAEko portuen eta haien hinterlanden zirkulazioa hobetzen baitu, sarbidea baitu Pasaiara zein Bilbora; c) trenbide-garraio jasangarriarekiko bateragarritasuna bermatzen baitu; eta d) errepide bidezko garraioa trenbidera aldatzeko aukera ematen baitu.
3. Lezo-Gaintxurizketako etorkizuneko plataforma logistikoak eskaintzen dituen aukerak optimizatzea, honako honengatik: a) hiru zabalerako (iberikoa, UIC eta metrikoa) tren-aldaketa intermodala egiteko gunea baita; b) Pasaiako portuko zirkulazioa hobetzen baitu; c) trenbide-garraio jasangarriarekiko bateragarritasuna bermatzen baitu, Pasaiako badia biziberritzen laguntzen duen faktorea baita; eta d) errepide bidezko garraioa trenbidera aldatzeko aukera ematen baitu.



## 10. KAPITULUA

### 10. URA

#### **Egoera**

EA Eren lurraldea Kantauri-isurialdean eta isurialde mediterraneoan dago. Kantaurikoan daude, Bizkaia eta Gipuzkoa ia osorik; eta mediterraneoan, berriz, Araba. Alderdi administratiboan, haren kudeaketa hiru eremu hidrografikori dagokie: Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoari, Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoari eta Ebro Arroko Demarkazio Hidrografikoari.

Uholdeen prebentziorako edo haien kalteak mugatzeko edo prebenitzeko arloan, indarrean dauden gidalerroak aitzindariak izan ziren, ibaiertzetan hiri-erabilerak eta eraikinak antolatzeko modu berri bat ezarri baitzuten, une hartan uraren legediak ezarritakoa baino askoz aurreratuagoa. Horrela bada, gidalerroen garapen moduan, azaleko uren babesa kategoriaren barruan, bi arau hauek onartu ziren: 1998an, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde kantauriarra) behin betiko onesten duen abenduaren 22ko 415/1998 Dekretua; eta, 1999an, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde mediterranea) behin betiko onesten duen abenduaren 28ko 455/1999 Dekretua. Bi dekretu horietan ingurumen, hidraulika eta hirigintzako alderdiak txertatzen dira ibaiaren eta erreken ertzen antolamenduan. Geroago, Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana aldatzeko 449/2013 Dekretua onartu zen, eta antolamendu-irizpide berriak ezarri ziren ibaiertzen urak hartzeko arriskuaren inguruan.

Agiri horiek onartzea ingurumenaren, lurralde-antolamenduaren eta hidraulikaren arloan eskumenak dituzten administrazioen adoste-ahaleginaren ondoriozko emaitza izan zen. Horrekin, ibaiaren eta erreken ertzen lurralde- eta hirigintza-antolamendua bideratutzat eman dezakegu. Lurraldearen Arloko Plan horiek idazteak aldaketa handia ekarri du hirigintza-prozesuen baitako esku-hartzeetan, ibaia errespetatu beharra ekarri baitute, eta, bereziki, 100 urteko errepika-denborako uraldiak izan ditzakeen eremuarena eta lehentasuneko fluxu-eremuarena. Horren ondorioz, asko murriztu dira uholdeek eragindako kalteak, eta kontzeptuzko errespetu bat sortu da, etorkizunean agerian jarriko dena, hiri-dentsitate handiko lurralde honetan, orain artean izandako euriteetan behin eta berriro proban jarri den lurralde honetan. Horrekin bat, une honetan egin



beharreko funtsezko lana egungo hiriak berroneratzeko eta berritzeko jarduketak dira, gure ibaien drainatze-ahalmena handitzeko lanekin batera. Horrenbestez, beharrezkoak diren obra hidraulikoak egin beharko dira: bideratzeak, oztopoak kentzea, eta abar.

Nabarmentzekoa da uholde-arriskuak kudeatzeko planen esperientzia, bai eta nola txertatu diren planak Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legeak ezarritako betebeharretan.

Ur-hornidurari eta saneamenduari dagokienez, uraren kudeaketa modernoak baliabidea bi isurialdeetan eta haien arroetan lotuta kudeatzea eskatzen du. Urte hauetan zehar, baliabidearen kudeaketa efizienteagoa eta eraginkorragoa egin da, eta kontsumoa eta erabilera jasangarriagoak egin dira. Kudeaketa ona egiteko, oinarrizkoa da ur-eskaria murriztea eta baliabidea berrerabiltzea araztu ondoren. Izan ere, lurralde-antolamenduaren kudeaketak eta, zehazki, hirigintza-aurreikuspenek ura egotea eskatzen dute. Horren haritik, biztanleak hornitzeko ur-hornidurari dagokionez, hirigintza-legediak eskatzen du hirigintza-jarduerean onarpen-espeditentean administrazio hidraulikoaren txosten bat egotea, eskariak asetzeko nahikoa baliabide hidriko egon badagoela adierazten duena. Saneamenduari dagokionez, arro bakoitzeko udalerrietako saneamendu-sistemak, eskualde-egitura mailan ezarriko dira, lurralde plan partzialaren bidez, edo udal-mailan, udal-planeamenduaren bidez.

### **Helburuak**

Uraren arloan lurralde-eredua berrikusteko, honako helburu hauek proposatzen dira:

1. Ibaien eta erreken lurraldearen arloko plana aplikatzea ibaien eta erreken ertzetan egitea aurreikusten den bizitegi-lurzoru edo ekonomia-jarduera berrien antolamenduan.
2. Egungo hiria berritzeko lanarekin jarraitzea, izan badiren arazo hidraulikoak konpontzearekin batera.
3. Egungo hiria iragazkorra izan dadin sustatzea.
4. Lurralde-maila egokian zehaztea uraren, ur-horniduraren eta ur-arazketaren ziklo osoa, eta isurialdeetako eta arroetako baliabide hidrikoak elkarri lotuta kudea daitezen sustatzea.



5. Uraren hiri-eskaera murriztea, bai per capita eskaera, bai eta eskaera orokorra ere.
6. Hirigintza-aurreikuspenak egiterakoan, kontuan izatea baden horretarako nahikoa ur.
7. Araztutako hondakin-uren berrerabilera handitzea.

### **Lurralde-orientabideak**

Honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira, uraren arloan lurralde-eredua berrikusteko:

1. EAEko ibaien eta erreken lurraldearen arloko planeko xedapenei eustea, ibaien eta erreken ertzen lurralde-antolamendu gisa, eta garapen egokia sustatzea.
2. Hiria berroneratzeko prozesuetan bideratze-lanak eta oztopo hidraulikoak kentzekoak sartzeari, eta ardatz berdea kontzeptuaren barnean txerta daitezkeen uholdeen prebentzio-neurrien aldeko hautua egitea.
3. Etxadien, plazen eta espaloien iragazkortasuna sustatzea, hiriaren drainatze-ahalmena handitzeko.
4. Isurialdeetako eta arroetako baliabide hidrikoak elkarri lotuta kudea daitezen sustatzea.
5. Ur-beharra asetzea eskatzen duten lurralde- eta hirigintza-plangintzako xedapenak onartu aurretik, nahikoa baliabide hidriko badagoela bermatzea.
6. Ur-horniduraren hiri-sarea hobetzea, ur-ihesak eragozteko edo ahalik gehien murrizteko.
7. Araztutako hondakin-uren berrerabilera sustatzea.



## 11. KAPITULUA

### 11. ENERGIA

#### **Egoera**

Azken hamarkadetan izandako hazkunde nabarmenaren ondorioz, energia-kontsumoa modu adierazgarrian areagotu da. Ekonomia-egituran egindako aldaketak, efizientzian egindako hobekuntzak eta horren kutsatzaileak ez diren energia-iturriak erabiltzen hastea ez dira aski izan garapen-maila handiago batetik eta mugikortasuna areagotzetik eratorritako kontsumoaren hazkunde hori orekatzeko.

Testuinguru horretan, EAEko energia-eskariaren % 7 energia berriztagarriak erabiliz asetzen da, portzentajeak gora egin duelarik. Haatik, petroliotik eratorritako gaiekin asetzen da oraindik azken energia-kontsumoaren % 40, eta garraioa, zerbitzuak eta etxeko kontsumoa dira lurralde honetan energia-eskaria areagotzea dakarten sektore nagusiak. Horren guztiaren ondorioz, ia lurralde osoan airearen kalitate-baldintzak nabarmen hobetu badira ere, berotegi efektuko gasen emisioa oso handia da oraindik eta emisio hori areagotzeko joera aurreikusten da gainera. EAEko Energia Estrategiaren (2020) helburu estrategikoen artean energia berriztagarrien aprobetxamendua % 87 areagotzekoa barneratzen da, 2020. urtean azken kontsumoan energia berriztagarrien ekarpena % 14koa izan dadin.

Azken urteotan, aldaketa nabariak hauteman dira gure lurraldearen barne-kontsumoaren egituran. Horrela, petrolioaren eratorriek garrantzia galdu dute nabarmen eta, horren aurrean, gas naturala da denbora horretan protagonismo gehien baitaratu duen iturria, eta ondoren energia berriztagarria. Ekoizpenaren egituran izandako aldaketei eta energia-efizientzian izandako hobekuntzei esker (batez ere, industrian), energiari dagokionez horren intentsiboa ez den ekonomia batera bideratu gara. EAEn energia-intentsitateak beherazko joera izan du azken urteotan. Horrela, 2014an Barne Produktu Gordinari dagokionez sortutako euro bakoitzetik energia gutxiago, % 18 gutxiago, erabili zen 2000. urtearekin erabilitakoarekin alderatuta.

Energia-efizientzia eta energia berriztagarriak dira EAEko Energia Estrategiako bi ardatz nagusiak eta ezinbesteko betekizunak dira jasangarritasunerako, lehiakortasunerako eta klima-aldaketaren aurkako borrokarako. Dokumentu honetan



hainbat hiri-estrategia eta mugikortasun-estrategia planteatzen dira, baliagarri izan behar direnak, funtsezko modu batean, energia-kontsumoa eta kontsumo horrekin lotutako inpaktuak murrizteko. Lehen helburuari dagokionez, energia-efizientzia areagotzera bideratutako ekintzak lehenetsi behar dira. Alderdi horretan aurrerapauso garrantzitsuak eman behar dira ongizateari nahiz ekoizpenari dagokienez egun dugun egoera mantentzeko eta, aldi berean, energia-kostuak eta ingurumenarekin lotutako eraginak nabarmenki murrizteko. Dokumentu honetan proposatzen diren ekimenen bidez espazioaren antolamendurako eta funtzionamendurako eskema jakin bat eratzen da, abantaila garrantzitsuak ekar ditzakeena aipatutako helburua lortzeko. Ildo horretatik, garraio kolektiboen sistemei gero eta garrantzi gehiago ematea, garraio publikoko zerbitzuen garapena eta erabilera sustatzea dakarten garapen-ildo linealak indartzea eta, joan-etorriekin lotutako beharrianak murrizteko asmoz, polizentrismoan oinarritutako hiri-egitura eraginkor eta trinkoago bat finkatzea proposatzen da.

Lurralde-ekimenetan aintzat hartu behar dira energia-efizientzia areagotzeko eta erabilitako baliabideak dibertsifikatzeko aukerak. Garrantzitsua da hiri-hobekuntzarako estrategietan hainbat alderdi kontuan hartzea, esate baterako, hiri-argiteriaren eraginkortasuna, trafiko-pilaketen murrizketa, eta horren kutsatzaileak ez diren eta energia-iturri berriak erabiltzen dituzten ibilgailu publikoen erabilera. Etxebizitzaren alorrean, eraikinen isolamendurako baldintzak hobetzeak eta arkitektura bioklimatikoko teknikak erabiltzeak ondorio adierazgarriak dakartza gastuari dagokionez, izan ere, % 50era arte aurrez daiteke familia eta enpresetako energia-beharrizanetan. Baterako sorkuntza instalazioak hedatzeak eraginkortasun handiagoa ekar dezake. Horrenbestez, industria-espazioak hobetu eta sakabanatutako enpresa-finkapenak murrizteko estrategia batekin establezimendu ezberdinek erabiltzeko energi-zerbitzuak zentralizatu egin daitezke eta, era berean, industrialde bereko enpresen artean energiaren hornidurarako eragiketak ahalbidetu daitezke.

EAEko Energia Estrategiaren barnean, gas naturala eta elektrizitatea baliabide erabakigarriak dira. Horien inguruan ekoizpen eta hedapenerako azpiegiturak hobetu eta areagotzeko ekimenak garatu behar dira, horniduraren kalitatea, jarraikortasuna eta lehiakortasuna ziurtatze aldera. Horrela, epe ertainera, kutsagarriak ez diren energia berriztagarrien erabilera gero eta garrantzia gehiago izan behar duen aukera modura agertzen da EAEn energia-hornidurarako egituran. Azpiegitura horiek behar bezala antolatzeke eta haien hedapenerako eragiketak erabakigarriak dira azpiegitura horiek garapen-eredu jasangarriago bateko energia-euskarri bilaka daitezken.





Halaber, adierazi behar da, maiatzaren 14ko 104/2002 Dekretuaren bidez EAEko energia eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala onartu zela, eta haren arabera garatu dira Elgea, Badaia, Urkilla eta Oizeko parke eolikoak. LPS hori jarduera ekonomikoaren nahiz energia berriztagarriaren eta gure gailurretako paisaia-interesaren arteko oreka-ariketa bai izan zen. Hura onartu zenetik igarotako denbora kontuan izanik, beharrezkoa da LPS hori berrikusi eta egungo energia-betekizunetara egokitzea, energia berriztagarriari dagokienez bete beharreko helburuetatik abiatuta.

### **Helburuak**

Honako hauek dira energiaren arloan lurralde-eredua berrikusteko, proposatzen diren helburuak:

1. Energia-betekizunak eta energia-instalazioak lurralde- eta hiri-plangintzan txertatzea, politika publikoan jasangarritasunerako jarraibideak barneratuz, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko energia-jasangarritasunari buruzko irailaren 22ko 178/2005 Dekretuan ezarritakoaren arabera.
2. Hiriak berotegi efektuko gasen zero emisiorako helburuetara bideratzea, alde batetik, energia-eraginkortasuna eta -efizientzia nabarmenki areagotuz (desenergizazioa) eta, beste alde batetik, energia berriztagarriko iturrien erabilera orokortu eta autokontsumoa (deskarbonizazioa) sustatuz.
3. Hiri-estrategietan nahiz etxebizitza eta mugikortasunarekin lotutako estrategietan energia-efizientzia areagotzea.
4. Kontsumo ia nulua eraikitzeke irtenbideetarako aurrerapausoak ematea.
5. Garraio publikoaren erabilera sustatzea, garraio kolektibo eraginkor eta garbien bidez.

### **Lurralde-orientabideak**

Honako lurralde-orientabide hauek proposatzen dira, energiaren arloan lurralde-eredua berrikusteko:

1. Lurralde-plangintzan nahiz hiri-plangintzan energia-kontsumoaren beharrianak murrizteko neurriak barneratzea. Modu horretan, energiaren eraginkortasuna eta kutsatzaileak ez diren energia-iturri eta -sistemen

erabilera areagotzeko eta, era berean, beharrezkoak diren azpiegiturak finkatzeko behar diren lurzoru-erreserbak areagotzeko.

2. Lurralde-plangintzaren eta hiri-plangintzaren energia-jasangarritasunaren ebaluazioari buruzko ikerketa sustatzea, kontuan izanik, gutxienez, honako alderdi hauek: energia-jasangarritasunerako eskakizunak egokitzea; eraikin eta azpiegituretan energia berriztagarriak ezartzea; mugikortasun jasangarria.
3. Energiari dagozkion arloko helburuak lurraldera eramatea, Lurralde-plan Partzialak egokituz.
4. Energia Eolikoko LPS berrikustea eta egungo energia-eskakizunetara egokitzea, energia berriztagarriekin eta, zehazki, energia eolikoarekin, lotuta betetzeko arloko helburuetatik abiatuz.
5. Lurralde-plan Sektorialetako paisaiaren integraziorako ikerketetan Energia Eolikoko LPSean barneratzen diren instalazioen finkapenerako paisaia-baldintzak barneratzea, eta baita LPS horretan barneratzen ez diren 10MW baino gutxiagoko eta 100kW baino gehiagoko instalazioetan ere, hala badagokio, erabilera horri dagokionez debekaturik gera daitezkeen eremuak adierazita.
6. Polizentrismoan oinarritutako garraio publikoa eta hiri-egitura eraginkor eta trinkotuak bultzatzen dituzten garapen-ildo linealak sustatzea, joan-etorriekin zerikusia duten beharrianak murrizte aldera.
7. Energia alternatiboen garraiorako sistemak, esate baterako, elektrizitatea eta gas naturala erabiltzen dituztenak, sustatzea petroliotik eratorritakoen orde.
8. Energiaren autokontsumorako sistemen erabilera bultzatzea, orotariko eraikin eta instalazioetako eguzkiaren, energia eolikoaren edota biomasaren aprobetxamendurako sistemaren bidez. Alde batetik, elektrizitatea sortzeko energia berriztagarriak aprobetxatzeko irtenbideak erabiltzea eta, beste alde batetik, lurzoru urbanizaezinean kokaturiko eta beren funtzionamendurako energia-hornidurako linea edo baldintza berriak behar dituzten eraikin isolatuetan energiaren autokontsumorako sistemak erabiltzea lehenetsiz.
9. Energiaren ikuspegitik efizienteak diren argiteria publikoko gailuen erabilera sustatzea.
10. Linea elektrikoaren antolamenduari dagokionez, udal-plangintzan nahiz arloko ekintzetan honako irizpide hauek kontuan har daitezela ziurtatzea: linea



horien azpian mantenurako egiten diren sastraka kentzeko eragiketetan zuhaiztia errespetatzea; mantenurako kimatzeak altueran egitea, segurtasun-distantzia errespetatze aldera; isolamenduetan, airea mozteko gailuetan eta, oro har, abiaraztean txinparta sor dezaketen gailu guztietan suaren aurkako sistema bat erabiltzea, txinparta hori landareetara iritsi eta sua heda ez dadin.

11. Babes Bereziko Antolamendu Kategorian barneratutako lurretik igarotzen diren airezko instalazio elektrikoetarako arau tekniko batzuk aplikatzea.
12. Elektrizitatea garraiatzeko linea berriak eraikitzeko premia justifikatzea, linea zaharrak baztertu eta aurretik zeuden korridoreak aprobetxatzeko (lineak trinkotzea) aukera edo eratorritako ingurumen-inpaktuak baztertu edo mugatzea dakarten beste linea batzuk erabiltzeko aukera aztertuz.
13. Aprobetxamendu hidroelektrikoei dagokienez, beste gauza batzuen artean, instalazioen efektu metatzailea ikertzea, ezaugarri ekologiko zein morfo-dinamikoaren gainean efektu negatiborik gerta ez dadin eta, era berean, aztertutako ibaietan uraren erabilerari buruzko efektu negatiborik gerta ez dadin.



## 12. KAPITULUA

### 12. GOBERNANTZA: PARTE-HARTZEA, ANTOLAKETA, ADIERAZLEAK

Indarreko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan, azken kapitulua “Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aplikatzeko gakoak eta erreferentziak” izendatzen da. Kapitulu horretan hainbat gai jorratzen dira, esate baterako, udal-plangintzak eremu funtzionaletara egokitzeari buruzkoa, bizitegi-lurzoruaren eskaintza zenbatzeko kalkuluari buruzkoa, natura aldetiko interesa duten eremuei buruzkoa eta, azken atalean, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak aplikatzeko arauari buruzkoa da.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesuan azken zati hori gobernantzaren eremuan kokatzea proposatzen da, hau da, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak kudeatu, garatu eta aplikatzearekin lotutako alderdietan kokatzea, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen hirugarren zutabea izan dadin zati hori, lurralde-ereduaren oinarriekin eta lurralde-ereduarekin batera.

Berrikusitako lurralde-antolamendurako politikan partaidetzak duen garrantzia kontuan hartuz, egokitzeak jotzen da alde batetik partaidetza eta, beste alde batetik, gobernantza bereiztea. Partaidetzari buruzko atalean lurralde-antolamenduaren garapenean eragile publiko zein pribatuek eta herritarrek izan beharreko esku-hartzearekin zerikusia duten alderdiak jorratuko dira. Bestalde, gobernantzaren atalean lurralde-politikaren kudeaketa on batean eragina izango luketen alderdiak jorratuko lirateke.

#### 12.1. PARTE-HARTZEA

Proposatzen den partaidetza ez da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko abiatutako prozesura mugatzen; aitzitik, partaidetza lurralde-antolamendurako politikaren osagai natural bilakatzeko formulak eta tresnak zehaztea da xedea.

Partaidetza berez da erronka, izan ere, kudeaketa publikoaren kultura aldatzea dakar eta baita gizartea bera ere. Eta, kulturarekin lotutako aldaketa guztietan gertatzen den moduan, denbora beharko da aldaketa hori egokitu eta baitaratutako joerak baztertzen joateko.

Gainera, berrikuntza da eta araudira egokitzeko erronka ere aurrez aurre ageri da, berrikusteko prozesu honetan gertatzen den moduan. Tradizionalki, administrazio-



izapidean partaidetza administrazioei entzunaldia eta informazio publikoa emateko faseetara mugatu da. Haatik, partaidetza mugatu hori gainditu egin nahi da, politikaren kudeaketara bertara hedatuz.

Oinarrizko Dokumentu hau prozedurak jasan duen berrikuntzaren adibide argia da. Hain zuzen, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozedura parte-hartzailea abiatu baitzen, egokitzat jo zen partaidetza hori, alde z aurretik, Gidalerroen Aurrerapenaren aurkezpenean ere ahalbidetzea. Aurrerapen hori Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean aurreikusitako lehen dokumentu-izapidea da. Horrenbestez, Oinarrizko Dokumentu hau Eusko Jaurlaritzak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspenaren aurrean duen jarrera jasotzen duen dokumentu modura proposatzen da, eta partaidetzarako gonbitea egiten da, Aurrerapen hori modu parte-hartzailean egin dadin.

Halaber, partaidetza hori plan batean zehaztea berrikuntza da. Horrela jasotzen baita uztailaren 27ko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Akordioan, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozedura abiatzeari buruzkoan.

Oinarrizko Dokumentu honetan eransten den partaidetzarako plana inplikaturako aldean artean adostu beharreko proposamen bat da, eta etengabe egokituz joango da. Partaidetzarako plana 2015eko azaroaren amaieran Oinarrizko Dokumentua aurkeztu zenetik Gidalerroen Aurrerapenera arte aurreikusi da. Aurrerapen hori, hasiera batean, 2016. urtearen amaierarako aurreikusten da. Berrikuntza baten aurrean gaudenez, partaidetzarako planaren denbora-eremua lehen fase horretara mugatzea lehenetsi da, ondoren, baitaratutako esperientziaren arabera, beste partaidetzarako plan batzuk osatuz joateko.

Proposatzen den partaidetza presentziala nahiz digitala da.

Partaidetza presentziala, alde batetik, lurralde-antolamendurako Legean aurreikusitako organoen bilkuretan aurreikusten da, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen (EAELAB) eta Lurralde Politikako Organo Aholku-emailearen bilkuretan. Halaber, partaidetza presentziala aurreikusten da beste instituzio edo erakunde publiko batzuekin egiteko bilkuretan. Beste alde batetik, eragile edo herritarrekin egiteko topaketa edo bilkuretan ere partaidetza presentziala aurreikusten da.



EAELABaren koordinazio-funtzioa sendotzeko xedez, hura osatzen duten herri administrazioen aldetiko partaidetza aktiboagoa proposatzen da, eta lurralde-antolamenduari dagozkion gai zehatzak modu koordinatuan lantzeko hitzaldi tematikoak sortzea.

Halaber, Lurralde Politikako Organo Aholku-emaileak bere aholkularitzako funtzioak modu aktiboan bete ditzala planteatzen da, eta Eusko Jaurlaritzak Organo hori haren barnean lan-dinamika aberasgarri bat sortzeko beharrezkoa den maiztasunez deitzea.

Halaber, instituzio eta erakunde publikoekin bilkurak egitea proposatzen da, besteak beste, Eusko Legebiltzarrarekin, Batzar Nagusiarekin, Udalekin, Ekonomia eta Gizarte Batzordearekin eta unibertsitatearekin.

Instituzioz aparteko bilkurak lurralde-maila ezberdinetan planteatzen da, nagusiki, Lurralde Historikoetan edo eremu funtzionaletan.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozeduratik partaidetza-foro egonkorren sorrera erator daiteke.

Partaidetza telematikoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzarekin komunikazio birtuala izateko ohiko bideak jartzen dira erabilgarri, esate baterako, Irekia zerbitzua edo gizarte-sareak (Facebook esaterako), Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspenarekin lotutako ekarpen bakoitza aztertu eta erantzuteko konpromisoarekin. Arlo telematikoa partaidetza sustatzeko egokitzat jotzen diren trenen baitakoa izango da.

Finean, lankidetzaren oinarri duen eztabaida bat finkatu nahi da instituzio mailan nahiz gizarte mailan.

## 12.2. GOBERNANTZA

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikustean, haren kudeaketa ere berrikusi egin behar da.

Hogeigarren hamarkadaz geroztik “plangintzarako bloke” izendatu dena osatu da pixkanaka, LAGekin, LPPekin eta LPSeekin osatzen dena. Gainera, orduetik esperientzia metatu da eta esperientzia horretatik abiatuta hainbat proposamen egin daitezke gobernantzari dagokionez, esate baterako, araudiaren ebaluazio, zehaztasun eta



sinplifikazioari buruz, LPP eta LPSetarako eduki eta elementu grafikoan homogeneotasunari buruz, abiatu gabeko LPSen aukerak balioesteari buruz, eta lurralde-antolamendurako tresnen izapideak denboran murrizteari buruz.

Berrikuspen horren barnean Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako, LPPetako eta LPSetako zehaztapenak eraginkortasunez ebaluatzeko moduari buruzko lanketa egitea proposatzen da, modu homogeneo eta sinplean egite aldera, haien garapena balioesteko eta egokitzat jotzen diren neurriak hartzeko baliagarri izan dadin. Horretarako, adierazle jakin batzuk finkatu beharko lirateke, ebaluazio hori behar bezala egitea ahalbidetzekoak.

Jarraipen-ebaluazio eta -txostenak ezarritako epeen barnean egin beharko lirateke eta horietan ere partaidetza txertatu beharko litzateke.

Lurralde-antolamendurako tresnetako zehaztapenen zehaztasunari dagokionez, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan, LPPetan eta LPSetan modu argi eta bereizian ezarri beharko lirateke zehaztapen lotesle direnak eta gomendio izaera dutenak. Halaber, komenigarria izango litzateke hiru tresna horietako lurralde-zehaztapenak modu sinplifikatu eta antolatuan jasotzea haiek onartzeko Dekretuetan. Zehazki, eranskinetan jaso beharko lirateke. Horrek aparteko dokumentu batean osorik idatzi behar direla esan nahi du.

LPPEi dagokienez, bi izan ezik aurreikusitako guztiak eratu direla kontuan hartuz, baterako formatu batekin lan egiteari buruzko komenigarritasuna azter daiteke, etorkizunera begira patroi modura erabil dadin eta jorrazteko alderdiei eta baterako elementu grafikoei dagokienez homogeneotasuna ahalbidetuz. Horrela, aurretiaz dauden LPPen arteko komunikazioa eta elkarrekintza hobetu egingo litzateke. Gainera, alderaketa-ebaluazio aberasgarriagoa egingo litzateke.

Goian adierazitako arrazoi horiek direla medio, era berean, komenigarria izango litzateke LPSen eraketarako baterako eskema edo patroi bat izatea.

LPPen kasuan Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan aurreikusitako guztiak garatu badira ere, LPSen kasuan ez da gauza bera gertatu. Aurreikusi direnetatik zortziren kasuan izapidea hasteke dago oraindik eta horren arrazoiak aztertu egin beharko lirateke



eta, hala badagokio, esku-hartzeko proposamen modura ez mantentzea erabaki beharko litzateke.

Orobat, “plangintzarako blokean” lurralde-antolamendurako tresnen elkarrekintza aztertu egin beharko litzateke, eta Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen, LPPen eta LPSen artean eztabaida sustatu beharko litzateke, eta baita bakoitzaren barnean ere, eremu funtzional mugakideetako LPPetan arreta berezia jarritz.

Antolamendurako hiru tresna horietan errepikatzen den beste alderdi bat haiek onartzeko prozedurak denboran asko luzatzen direla da. Izapidearen iraupena murrizteko ahalegina egin beharko litzateke, esate baterako, izapidearen kronograma bat finkatuz. Kronograma hori gutxi gorabeherakoa izan arren, baliagarri izango litzateke izapidearen denbora-puntuak zehazteko eta hura onartzeko aurreikuspena publiko izan dadin. Kasu horietan izapidearen denbora aldetiko aurreikuspenak ez betetzeko arrazoiak azaltzea komeniko litzateke. Hain zuzen, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozedura hau abiatzeko Jaurlaritzako Kontseiluaren Akordioaren ondorioz, proposamen hori praktikan jarri da eta Gidalerroen Aurrerapenaren hasierako onarpenerako epe bat finkatu da.

### **12.3. LURRALDE- ETA HIRIGINTZA-ADIERAZLEAK**

Gizakiak lurraldean egiten duen ekintza neurtu beharra aplikagarri zaio lurralde-antolamenduaren diziplinari ere.

UDALPLAN Eusko Jaurlaritzaren lurralde-plangintza eta hirigintzako informazio grafikoko datu-biltegiko datuak oinarri hartuta, EAEren hirigintza- eta lurralde-bilakaera adierazten duten zenbait lurralde- eta hirigintza-adierazle landu dira. Adierazle horiek, gainera, baliabide egokia dira onartzen diren lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnak zenbateraino diren egokiak neurtzeko.

Honako lurralde- eta hirigintza-adierazle hauek proposatzen dira lurralde- eta hirigintza-antolamenduko plangintza neurtzeko eta haren jarraipena egiteko:

- A. Egungo hiri-egituraren eta lurralde-egituraren egoeraren adierazleak. Lurzoruaren kalifikazioak eta lurralde-dentsitateak ongi adierazten dute egungo lurralde-eta hirigintza-eredua.





## A1.- LURRALDE-EREDUA. LURZORUAREN KALIFIKAZIOA

### A2.- LURRALDE-DENTSITATEA

B. Gaur egungo garapenaren eta aurreikusitako garapenaren inpaktu-adierazleak. Plangintza orokorrean adierazitako etxebizitza-aurreikuspenek hiri- eta lurralde-errealitatean duten inpaktua adierazten dute: hiri-eredua, bizitegi-garapena eta etxebizitza-dentsitatea.

#### B1.- HIRI-EREDUA

#### B2.- BIZITEGI-GARAPENA.

#### B3.- ETXEBIZITZA-DENTSITATEA.

C. Artifizialtze-adierazleak. Hiri-orbanak azken urteetan izandako bilakaera adierazten dute eta, zehazki, lurzoruaren hirigintza-kalifikazioaren bilakaera.

### C1.- HIRIGINTZA-KALIFIKAZIOAREN BILAKAERA.

Lurralde- eta hirigintza-adierazleez gain, garrantzitsuak dira EAEko egoera sozioekonomikoa, ingurumen-egoera eta azpiegituren egoera osotasunez hartzen duten eta sektore-egoeren ikuspegi globala ematen duten beste erreferentziazko adierazle batzuk; esaterako: ingurumenari, biztanleriari, lan-merkatuari, ekonomiari, berrikuntzari, lehen sektoreari, industriari, energiari, mugikortasunari, etxebizitzari eta osasunari buruzkoak.

Lurralde- eta hirigintza-adierazleen balioei dagokienez, jarraian adieraziko dira UDALPLANeko azken datuak, 2015. urteari dagozkionak.

## A. Egungo hiri-egituraren eta lurralde-egituraren egoeraren adierazleak.

### A1. LURRALDE-EREDUA. LURZORUAREN KALIFIKAZIOA

UDALPLAN 2015 LURRALDE-EREMUA	A1(a)		A1(b)		A1(c)		A1(d)		A1
	Bizitegiak		Jarduera ekonomikoak		Sistema Orokorrak		Gainontzeko (Lurzoru urbanizazina)		Guztira
	(Ha)	%	(Ha)	%	(Ha)	%	(Ha)	%	(Ha)
EAE/CAPV	19.071	% 2,64	13.667	% 1,89	16.149	% 2,23	674.579	% 93,24	723.466
<b>LURRALDE HISTORIKOAK</b>									
ÁLAVA/ARABA	5.680	% 1,87	4.779	% 1,57	5.395	% 1,77	288.325	% 94,79	304178,8
BIZKAIA	8.167	% 3,69	4.984	% 2,25	6.772	% 3,06	201.547	% 91,00	221469,7
GIPUZKOA	5.224	% 2,64	3.905	% 1,97	3.982	% 2,01	184.707	% 93,37	197817,7

### A2. HIRI-BIZTANLERIAREN DENTSITATEA

A2 (a).- “DENTSITATEAK”, eremu bakoitzeko azalera osoa hartzen du kontuan.

UDALPLAN 2015 LURRALDE-EREMUA	BIZTANLERIA	DENTSITATEAK	
	GUZTIRA (Biz.)	Azalera, guztira (Km <sup>2</sup> )	Dentsitate, guztira (Biz./Km <sup>2</sup> )
EAE/CAPV	2.172.877	7.234,92	300,33
ÁLAVA/ARABA	320.032	3.041,79	105,21
BIZKAIA	1.144.214	2.214,85	516,61
GIPUZKOA	708.631	1.978,28	358,21

A2 (b).- “DENTSITATE KALIFIKATUA” kalkulatzeko, hirigintza-kalifikazioa duen azalera hartu da kontuan, bizitegiatarakoa, ekonomia-jardueratarakoa, ekipamenduak, garraio eta komunikazio azpiegiturak, eta oinarrizko azpiegiturak.

UDALPLAN 2015 LURRALDE-EREMUA	BIZTANLERIA	DENTSITATEAK	
	GUZTIRA (Biz.)	Hiri-azalera kalif. (Km <sup>2</sup> )	Hiri-dentsitate kalif. (Biz./Km <sup>2</sup> )
E.A.E./CAPV	2.172.877	488,88	4.444,60
ÁLAVA/ARABA	320.032	158,54	2.018,62
BIZKAIA	1.144.214	199,23	5.743,18
GIPUZKOA	708.631	131,11	5.404,86

## B. Gaur egungo garapenaren eta aurreikusitako garapenaren inpaktu-adierazleak.

### B1. HIRI-EREDUA



B1 (a).- Lurzoru urbanizagarriaren ehunekoa hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarriarekiko (%). Adierazle horrek, gaur egun dagoen hiri-lurzoruarekin alderatuz, lurzoruaren hirigintza-eraldaketaren aurreikuspena egiten du, plangintza-tresnetan jasotakoari jarraituz.

UDALPLAN 2015	B1(a)
	Lurzoru urbanizagarriaren ehunekoa hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarriarekiko (%)
LURRALDE-EREMUA	
E.A.E./CAPV	% 19,75
ÁLAVA/ARABA	% 24,11
BIZKAIA	% 17,54
GIPUZKOA	% 17,94

## B2. BIZITEGI-GARAPENA.

Adierazle horrek egun dauden etxebizitzaren kopurua, aurreikusitako igoera eta aurreikusitako etxebizitzaren guztizko kopurua adierazten du 100 biztanleko.

UDALPLAN 2015	B2(a)			B2(b)
	Egun dauden etxebizitza kop. (Etx.)	Etxebizitza-kopuruan aurreikusitako igoera (Etx.)	Etxebizitza-kopuruan aurreikusitako igoera (Etx.)	Etxebizitzaren guztizko kopurua, 100 biztanleko (Etx./100 biz.)
E.A.E./CAPV	960.782	195.853	% 20,38	53,23
<b>LURRALDE HISTORIKOAK</b>				
ÁLAVA/ARABA	151.079	49.371	% 32,68	62,63
BIZKAIA	500.164	84.938	% 16,98	51,14
GIPUZKOA	309.539	61.544	% 19,88	52,37

## B3. ETXEBIZITZA-DENTSITATEAK. GAUR EGUNGOAK ETA AURREIKUSITAKOAK

Adierazle horrek egungo hiri-sarea eta aurreikusitakoa adierazten ditu, bai eta egun urbanizagarria den lurzoruan aurreikusitakoa ere.

UDALPLAN 2015  LURRALDE-EREMUA	B3		
	B3(a)	B3(b)	B3(c)
	B3(a) - Bizitegi-lurzoru hiritarreen dauden etxebizitzak (etx./Ha)	B3(b) - Bizitegi-lurzoru hiritarreen aurreikusitako etxebizitzak (etx./Ha)	B3(c) - Bizitegi-lurzoru urbanizagarrian aurreikusitako etxebizitza-dentsitatea (etx./Ha)
EAE/CAPV	59,62	66,97	28,24
ÁLAVA/ARABA	31,17	36,22	30,94
BIZKAIA	73,78	81,93	22,87
GIPUZKOA	67,93	76,46	35,38

### C. Artifizialtze-adierazleak (UDALPLAN 2006-2015eko datuak)

#### C1. LURZORUAREN KALIFIKAZIO URBANISTIKOAREN BILAKAERA


Kalifikazioa, bizitegi-lurzorua, ekonomia-jardueretarakoa eta sistema orokorrak

Artifizialtzea bi arlo handitan egiten da: eraikuntzaren arloan eta azpiegituren arloan. Azterketan EAEko egoera orokorra aztertzen da. Honako aldagai hauek aztertzen dira lurzoruaren artifizialtze-maila aztertzeko:

1. Bizitegi-lurzoru.
2. Ekonomia-jardueretarako lurzorua.
3. Sistema orokorrak: ekipamenduak, bideak, trenbideak, portuak, aireportuak eta oinarrizko azpiegiturak.



**Oharra: sistema orokorretan ez dira kontuan hartu espazio libreetarako gordetakoak eta ibai-ibilguak, lurzorua ez duelako inolako eraldaketarik izaten haietan.**



Grafikoan, EAEko kalifikatutako lurzoru osoa, urteka, hektareatan.

Bialdi bereizten dira (2005-2011 eta 2012-2014), urteko artifizialtze-bidean aldaketa nabaritzen baita. Ondoren, urtero kalifikatutako azalera agertzen da, xehakatur:

EAE	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
	Ha	Ha	Ha	Ha	Ha	Ha	Ha	Ha	Ha	Ha
Bizitegiatarakoa	18.521	18.657	18.841	19.027	19.085	19.199	19.121	19.195	19.057	19.071
Ekonomia-jardueretarakoa	13.120	13.197	13.445	13.492	13.647	13.952	13.967	13.989	13.935	13.667
Sistema orokorrak	14.496	14.604	14.664	14.749	14.786	14.885	15.227	15.592	15.746	16.149
<b>KALIFIKATUTAKO AZ. OSOA</b>	<b>46.137</b>	<b>46.459</b>	<b>46.950</b>	<b>47.268</b>	<b>47.518</b>	<b>48.036</b>	<b>48.315</b>	<b>48.492</b>	<b>48.738</b>	<b>48.887</b>
<b>Urtean artifizialdutako az.</b>		322	490	319	250	518	279	177	246	149
<b>Urtetik urterako aldak. (%)</b>		%0,70	%1,06	%0,68	%0,53	%1,09	%0,58	%0,37	%0,51	%0,31
<b>Art. lurzorua / EAEko azalera</b>	%6,38	%6,43	%6,49	%6,54	%6,57	%6,64	%6,68	%6,71	%6,74	%6,76





## Laburpen planoa





# LAG

EAEko Lurralde Antolamendurako  
Gidalerroen-Berrikuspena  
OINARRIZKO DOKUMENTUA

## DOCUMENTO BASE Revisión de las Directrices de Ordenación Territorial de la C.A.P.V.

# DOT

### INDARREAN DAUDEN LAG DOT VIGENTES

#### EREMU FUNTZIONALAK AREAS FUNCIONALES

EREMU FUNTZIONALEN MUGAK DELIMITACIÓN DE ÁREAS FUNCIONALES

#### KOKALEKUEEN SISTEMA SISTEMA DE ASENTAMIENTOS

EUSKAL HIRIBURUEN GUNE ANITZEKO SISTEMA SISTEMA POLINUCLEAR VASCO DE CAPITALÉS  
EREMU FUNTZIONALEN BURUAK CABECERAS DE ÁREA FUNCIONAL  
EREMU FUNTZIONALEN AZPIBURUAK SUBCABECERAS DE ÁREA FUNCIONAL  
BESTE GUNE BATZUK OTROS NUCLEOS

#### LOTURA SISTEMA SISTEMA RELACIONAL

EUSKAL HIRIBURUEN NUKLEO ANITZEKO SISTEMAREN OINARRIZKO LOTURAK INTERCONEXIONES BÁSICAS DEL SISTEMA POLINUCLEAR VASCO DE CAPITALÉS  
EREMU FUNTZIONALEN BURUEN ARTEKO LOTURAK INTERCONEXIONES DE LAS CABECERAS DE LAS ÁREAS FUNCIONALES  
PAISAJIA INTERESEKO IBILBIDEAK RECORRIDOS DE INTERÉS PAISAJÍSTICO  
ABIADURA HANDIKO TRENA TRENA DE ALTA VELOCIDAD  
ALDIRIKO TRENA ZERBITZUEN OINARRIZKO ARDATZAK EJES BÁSICOS DE SERVICIO FERROVIARIO DE CERCANÍAS  
AIREPORTUAK AEROPUERTOS  
MERKATARITZA PORTUAK PUERTOS COMERCIALES  
ARRANTZA ETA KIROL PORTUAK PUERTOS DEPORTIVOS Y PESQUEROS

### ELEMENTU BERRIAK NUEVOS ELEMENTOS

#### AZPIEGITURA BERDEA INFRAESTRUCTURA VERDE

HIDROGRAFIA SAREA RED HIDROGRÁFICA  
NATURA GUNE BABESTUEN SAREA (URDAIBAI BIOSFERA ERRESERBA, NATURA GUNE BABESTUAK, NATURA 2000 SAREA - KBEAK, HEEBAK, TXINGUDIKO PLAN BEREZIA) RED DE ESPACIOS NATURALES PROTEGIDOS (RESERVA DE LA BIOSFERA DE URDAIBAI), ESPACIOS NATURALES PROTEGIDOS, RED NATURA 2000, ZEC's, ZEPA's, PLAN ESPECIAL DE TXINGUDI  
KORRIDORE EKOLOGIKOEN SAREA RED DE CORREDORES ECOLÓGICOS

#### ERALDAKETA ARDATZAK EJES DE TRANSFORMACION

BERRIKUNTZA EREMIJAK HIRIBURUEN GUNE ANITZEKO SISTEMAN ÁREAS DE INNOVACIÓN EN EL SISTEMA POLINUCLEAR DE CAPITALÉS  
EREMU FUNTZIONALETAKO ERALDAKETA ARDATZAK EJES DE TRANSFORMACIÓN DE LAS ÁREAS FUNCIONALES

#### MUGIKORTASUN IRAUNKORRA MOVILIDAD SOSTENIBLE

DONEJAKUE BIDEA CAMINO DE SANTIAGO  
OINEZKOENTZAKO IBILBIDEAK (ITSASO-KO BIDEA, ARDOAREN ETA ARRAINAREN IBILBIDEA, INAZIOTAR BIDEA, BIDE HISTORIKOA) RECORRIDOS PEATONALES (SENDA DEL MAR, RUTA DEL VINO Y DEL PESCADO, CAMINO IGNACIANO, SENDERO HISTÓRICO)  
BIZIKILENTZAKO IBILBIDEAK RECORRIDOS CICLISTAS

#### HIRI ETA LANDALUR BIRGAITASUNA REQUALIFICACION URBANA Y RURAL

HIRIGUNE HISTORIKOA CASCO HISTÓRICO  
HIRI BERRITZEA RENOVACIÓN URBANA  
UNIBERTSITATEA UNIVERSIDAD  
LOGISTIKA PARKEA PARQUE LOGÍSTICO  
TEKNOLOGIA PARKEA PARQUE TECNOLÓGICO

